


Zientzi fikzioa: Ezinezkoa gertatu da



E u s k a l   H e r r i k o   A s t e k a r i a

01801



MARTXOKO

*larrun*

Kantugileen ahotik

Euskal Herriko Gazta

# TENTAZIO MAMITSUA

Arantxa Urretabizkaia

“Idazkera hotza, garbia bilatzen dut: diamante bat”



mundu bat euskarara bildu

# korrika

2001- Gasteiztik Baionarat • martxoaren 29tik apirilaren 8ra

babeslea:



antolatzailea:

aek

korrika



Argazkia: Alberto Elozegi  
Diseinua: antza S.A.L



■ **Gorka Martinez:**  
"Autodeterminazio eskubidea  
egunero landu behar da" 9



■ **Artzainaren fruitua**  
mahaiaren konkistan 18



■ **Arantxa**  
**Urretabizkaia:**  
"Idazkera hotza,  
garbia, bilatzen dut,  
diamante bat" 28



■ **Zientzia fikzioa:**  
Ezinezkoa  
gertatu da: 36

**ORRIZ ORRI**

Gora Pro Nobis. <i>Asisko Urmeneta</i>	4
Oihartzunak	5

**POLITIKA**

Euskal Politikaren Termometroa	6
Elkarrizketa: Gorka Martinez.	
<i>Mikel Asurmendi</i>	9

**EKONOMIA**

15.500 zornotzarren sinadura zentralaren aurka.	
<i>Daniel Udalaiz</i>	12

**EUSKARA**

Haurrek bi aldizkari berri dituzte zain.	
<i>Nagore Legarreta</i>	16

**GIZARTEA**

Artzainaren fruitua mahaiaren konkistan.	
<i>Iosu Etxaniz</i>	18
Kwinek nahi duzuna topatuko dizu PC-an.	26
Elkarrizketa: Arantxa Urretabizkaia.	
<i>Estitxu Eizagirre / Ixiar Eizagirre</i>	28

**KULTURA**

Euskal Kulturaren Ezpalak	34
Ezinezkoa gertatu da.	
<i>Iñigo Bidetxea</i>	36
Euskararen harribitxiak kristalezko kutxatan.	
<i>Lore Agirrezabal</i>	40
Orain dela 30 urte.	
<i>Pilar Iparragirre</i>	42

**ASTIA HARTUTA**

Argitalpenak	46
Agenda	50
Ihesi	51
Bizia	54
Denborapasak	55

**IRITZIAK**

Politika: <i>Arantza Urkaregi</i>	8
Kultura: <i>Pablo Malo</i>	44
Azkena: <i>Elixabete Garmendia</i>	58



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Kultura, Euskara, Gazteria eta  
Kirol Departamentua

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

**kutxa** gizarte-ekintza  
obra social

BIGARREN ITZULIAN...

# BAIKORRI



NORA  
ZOAZ  
**MIXEL  
GALANT**  
HORI ?



Asierko

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGOA, S.A.L.  
**ZUZENDARIA:** Pello Zubiria.  
**Kontseilu Editorialeko Arduraduna:**  
 Baleren Bakaikoa.  
**Erredakzioa:** Katixa Garate, Nagore Irazustabarrena, Onintza Irureta, Izaskun Jauregi, Xabier Letona.  
**Maketazioa:** Berdaitz Goia.  
**Administrazioa:** Marijo Aierza.  
**Harpidetzak:** Olatz Korta, Edurne Urruzmendi.  
**Hedapena:** Ixabel Bereziartua.  
**Publizitatea:** Iñigo Txintxurreta, Aloña Soraluze, Bego Zuza.  
**Argazkiak:** Alberto Elozegi.

**HELBIDEAK**

**GIPUZKOA:** Zirkuitu ibilbidea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 37 15 45. Faxak: 943 37 34 03 (erredakzioa)/943 36 10 48 (komertziala).  
**IPARRALDEA:** Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 47 60 00. Faxa: 559 47 60 01.  
**NAFARROA:** Gazteluko Plaza 44, 3.eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 22 22 85.  
**POSTA ELEKTRONIKOA:**  
 Erredakzioa: kazeta@argia.com  
 Komertziala: komertzial@argia.com  
**WEB ORRIALDEA**  
 www.argia.com  
**LEGE GORDAILUA:** NA 80-1963.  
**ISSN:** 0213-909X.  
**BATZORDE PAREKIDEA:** 72562 E.

**INPRIMATEGIA:** Antza, S.A.L.  
**INFORMATIKA:** A.S.P., S.A.L.

**Harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria .16.400 pta./98,57 euro  
 Ipar Euskal Herrian ...780 lib./118,92 euro  
 Espainia .....16.400 pta./98,57 euro  
 Beste atzerriak ....21.100 pta./126,81 euro  
 Airez .....33.000 pta./198,33 euro



KOMUNIKAZIO BIZIAGOA, S.A.L.  
 Ametzagaina Taldeko partaidea da

■ Aislin, Kanadako "The Montreal Gazette" egunkarian



Ezkerrean: Lehengo iraultzailea...  
 Eskuinean: Oraingo iraultzailea...

■ Markstein, EEBetako "Milwaukee Journal Sentinel" egunkarian



Gizona: Hiesarentzako botikak garestiak direla? Ez dut inor kezatzen entzun.  
 Txapan: Botika enpresak. Hilarrian: Hegoafrikako Hies biktimak.

Hiruko Txikian

**ZAPLAZTEKOA**

**B**ozketa munizipalako lehen itzulian izandako emaitzekin hartu dudanak azalgorritu dit bisaia. Urruñan abertzaleek bildutako %15ekoa urrunetik begiratura lasaigarria badirudien arren, bertatik ikusi dugunontzat kezagarria da, egindako lanak gehiago merezi zuenaren inpresioa baitugu. Eta zenbaiten aurpegian minbera ikusi dut. Ez deritzot zuzena Poulou bezalako pertsonaia bati herriak eman dion sostenguari. Inondik ere ez nuen hori espero, azken urteetan gizon honen praktika feudala publikoa izan baita Herritarrek abertzaleen lanari esker. Bestalde, harritu egin nau emai-

tzen irakurketa baikorra ABren militante kualifikatu batzuen ahotik entzunda. Ez dakit nik adierazpen horiek taktikoak ote diren. Ez dakit nik errealismo zientifikoan oinarritutako azterketen ondorioak diren. Badakidana da, gure inguru hurbilean ezosegura sortu digutela. Ez dakigun gerta igandero galtzen ohitutako hari bezala: zer egin duzue? Hiru eta zero galdu, baina ni ikusleek txalotu egin naute. Ikusleek txalotutako hori atezaina genuen. Agian txaloak golak lasai jasotzen zuenarentzat joak ziren. Baina ongi, denak kontent. Jarrai dezala espektakuloak ●

◆ JOXE MARI OSTOLAZA

## T E R M O

## TXANPONA

PENTSU  
FABRIKAK

"Behi eroen" krisiari azken egunetan Nafarroan "Scrapie" edo ardiak eta ahuntzak hiltzera behar-tzen duen gaixotasunaren krisia gehitu zaio. EHNE eta UAGNren arabera, egoera horrek Nafarroako ganadu sektoreak bizi duen krisia areagotu egiten du, ustiategi askoren jarraikortasuna arriskuan jarritz eta baita familia askoren etorkizuna ere. Nafarroako ganaduzaleak, EHNEk bultzaturik, krisi honetan UPNren Gobernu-a erakusten ari den axo-lagabekeria eta animalia pentsuen ekoizleen ardura salatzeko mobilizazioak egiten ari dira. Nafarroako ganaduzaleak benetako erantzuleak zein diren erakusten ari dira argi eta garbi. Beraiek ez dira erantzuleak, pentsu lantegiak eta horien jarduera kontrolatu beharra duen Administrazioa dira erantzuleak. Gainera, nahiz eta debekatua egon, animalia eta arrain pentsuak ekoizten jarraitu dutela ziurtatu dute. Hori pentsu lantegien eta baita Administrazioaren aurkako oso salaketa larria da. Arrazoizkoa da ganaduzaleek positibo eman duten pentsuen fabrikak gelditzeko eskatzea eta ez beraien ganadutegiak, beraiek ez baitira errudunak ●

◆ DANIEL UDALAITZ

MOSSOS D'ESCUADRAKO KIDE BAT  
HILIK KATALUNIAKO ROSESEN

KATALUNIAKO ROSES herrian ETAK jarritako bonba-autoaren leherketaren ondorioz hil zen Santos Santamaria Mossos d'Escuadrako kidea hilaren 17an. ETAK Roseseko Montecarlo Hotelarren inguruetan bonba-autoa jarri zuela iragarri zuen eta handik ordu erdi batera izandako eztandak heriotza eragin zion kataluniako polizia autonomikoari. Gandian ere beste bonba-auto bat jarri zuen ETAK baina hau modu kontrolatuan eztandarazi zuen poliziak, jarrita zegoen inguruetan kalte ugariak sortuz.

HAUTESKUNDEAK DEITZEKO  
SANZEN TENTALDIA

UPN-K Foru Legebiltzarreko 50 eserlekue-tatik 22 dauzka. Ia gehiengo osoa, baina gutxiengoa denez aurrekontuak PSNrekin negoziatu zituen eta berdin garrantzi bereziko den Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zer-garen (PFEZ) erreforma. Zenbaitetan, ordea, gutxiengoan geratu da Sanz lehendakariaren gobernu-a: Izatezko bikoteen legea, Plan Hidro-logiko Nazionala, Artekariaren aurrekontua... PSNk oposizio lanari ekin dio pixka bat eta, Nafarroaren egonkortasun instituzionalak inongo arriskurik ez badu ere, UPNtik hauteskonde-ak aurreratzeaz egiten da mehatxu, antza, dituen datuen arabera gehiengo osoa lortuko bailuke. Dena den, hauteskondeek oraingo legealdia (2003ra artekoa) amaitzeko balioa lukete eta ez beste bat irekitzeko. Egiazko ezer baino, gaizki hezitako umearen mehatxua dirudi, baina "blokeo egoera gainditu ezean"... datak ere aipatu dira, edo udan edo abenduan.

## IKUSPEGI BAKARREKO TXOSTENA

EUROPAKO Batasuneko Giza Eskubideen komisario Alvaro Gil Roblesen txostenak zalaparta handia sortu du euskal gizartean. Abertzaleek, oro har, alde bakarreko ikuspegia islatzen



duela egotzi diote eta konstituzionalistek, aldiz, ez abertzaleek jasaten duten bazterketa eta biolentzia egoki islatzen duela adierazi dute. Hauteskunde atarian aurkeztua, PPren orbitakoak egina, izandako bileren izaera... popular eta sozialistek Euskal Herriaz saldu nahi duten irudiaren isla da, eta Gil Roblesengandik espero zitekeen txostena ere bai.

## 107 ATXILOTU HIRU ASTETAN

OTSAILAREN 27tik martxoaren 15era polizi indar desberdinek 107 pertsona atxilotu dituzte ETA eta ezker abertzaleko erakunde desberdinen aurka egindako operazioetan. Amnistiaren Aldeko Batzordeek emandako datuen arabera. Horieta 67 aske geratu dira eta gainerakoak espetxeratuak izan dira. Haue-tako askok polizia, guardia zibil eta ertzainen torturak eta tratu txarrak salatu ditu.

## B A H E A

- Arnaldo Otegi, EHko bozeramailea: "Konpromiso etikoez hitz egiten dutenek (Ibarretxe lehendakariari erreferentzia eginez) ez dute salatu joan den asten hamasei gazte atxilotuak, torturatuak eta espetxeratuak izan zirela".
- Iñaki Zarragoa Getxoko alkatea (EAJ): "Abertzale bezala gauza askotan ikuspegi bera daukagu eta gauza askotan askoz hurbilago gaude EHtik PPTik eta PSOEtik baino. Une zailak izan arren, hau konpondu nahi badugu, ditugun loturei eutsi behar diegu".



## ABERTZALEAK GORA

Eskuinak jarraitzen du izaten jaun eta jabe Ipar Euskal Herrian, iragan herri eta kantonamendu bozetan ikusi den bezala. Ezker orotariko gisa antolatutakoak ez du pentsatutako emaitzik lortu eta orain bakoitza berera itzuliko dela pentsa liteke. Abertzaleek, eta bereziki ABk, herritarren artean lana eginez emaitzak lortu ahal direla erakutsi dute, aurreko bozetan erdietsitakoa baino %2,3 boto gehiago lortu dituzte eta 3.500 bat boto gehitu. Baionan lau zinegotzi izatea edota, besteak beste, Baigorri aldean eta Hiriburun izandako emaitza historikoak esperantzagarriak dira, hori bai oraindik bakoitzak esparru politikoan duen egiazko tokiaz ongi jabetuz.

## KOALIZIOETAKO TXIKIAK

DAGOENENKO hauteskunde kanpaina giroa bete-betean somatzen da EAeko giro politikoan. EAJ-EA eta PP-UA koalizioak publikoki aurkeztu dira eta beren lehenbiziko mitinak egin dituzte. EAJ eta EAren artekoa egiten den bigarrena da, baina aurretik gobernu lanetan ere denbora luzez aritu izan dira elkarrekin. UA aitaren etxera itzuli da, duela hamar urte PPTik alde egin eta Araban PP bera txiki utzi ondoren. UAk etorkizun beltza du alderdi gisa eta jadanik irentsia izan dela esan liteke. EAren egoera bestelakoa da, alderdi izaera sendo mantentzen du gaurkoz eta gizartean ordezkaritza sendoa ere bai. Aurrera egiteko moldeetan, ostera, barne desadostasun sakonak ditu, eta bere koalizioideekiko ikuspegia ere aski desberdina da alderdiko bi sektore nagusienetan. Gutxienez,

tentu handiz ibiltzeko moduko egoera bizi du.

## ARALAR ILDOAK IZATE JURIDIKOA EMAN DIO BERE BURUARI

ARALAR Ildoak bere burua berezko izate juridikoz hornitzea erabaki du. Ezker abertzaleko iritzi korronteko kideek jakinarazi dutenez, Batasuna prozesuan jarraituko dute, beren ustez, "ezker abertzaleak beti izan dituen onarriak" defendatzen. Ez dago ezustekorik erabakian: Aralarrek EHrekiko distantziak gehiago markatzen ditu pauso honekin eta bere etorkizunerako bide guztiak zabalik uzten ditu. Egungo egoera asko luzatuz gero, ez litzateke harritzekoa Aralar Ildoa bere bidea egiten saiatzea, oraindik halako egoerarik irudikatzea erraza ez bada ere.



■ Arnaldo Otegi

## IZPIAK

Arnaldo Otegiaren aurka Baltasar Garzonek egindako salaketak bidezkoak diren aztertu beharko du EAeko Auzitegi Gorenak, eta egoki ikusiz gero buruzagi abertzalea auziperatzeko baime-na eskatu Eusko Legebiltzarriari. Aspalditik ari dira Otegi espetxeratzeko ahaleginetan eta oraingoan lortu ezean hurrengo saioak ere izango bide dira.

**Idoia Zenarruzabeitia** Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak gogor salatu du Kontzertu ekonomikoa negoziatzeko Madrilgo Gobernua erakusten ari den jarrera itxia. Iragan astean kupoaren bitariko batzordea biltzekoa zen baina Zenarruzabeitiak salatutakoaren arabera, Cristobal Montoro Hazienda eta Administrazio Publikoetarako Ministroak bere kasa deitu zuen bilera eta, gainera, aurreko bilera batean adostutakoari muzin eginez.



■ I. Zenarruzabeitia.

- Pablo Mosquera UAko buruzagia: "Feudalismo urte bi ondoren, PP-UA akordioak berpizkundera ekarriko du".
- Juan Cruz Alli, CDNko lehendakaria: "Ondasun kultural gisa ikusi beharrean, UPNk kolonizazio politikoaren tresna gisa ikusten du euskara".
- Iñaki Anasagasti jeltzalea: "Biolentzia gaitzetsi ezik, ez gara HBko talibanekin itzuliko".
- Joan Reventos, PSCko buruzagia: "Elkarrizketari mugak jartzea arazoaren ikuspegi okerretik abiatzea da".

# Oztopo guztien gainetik

**B**atasuna prozesuari hasiera ematen zion manifestua aurkeztu genuenetik hamar hilabete luze igaro dira. Denbora-tarte honetan, gure herriak bizi duen egoerak ez du hobera egin. ETAREN jarduera gogortu egin da, gero eta fronte gehiago irekiz. PPrene gobernuak egindako erasoak gero eta bortitzagoak dira, bai euskal kutsua duen edozeren kontra, bai disidentzia apur bat adierazten duen pertsona ororen kontra.

Egoera latz honetan, jende askok galdetzen dio bere buruari ea eztabaida politikoa egiteko aukera dugun. "Batasuna" prozesua bultzatzen dugunok ahalegin guztiak egin ditugu eztabaida ahalik eta hoberen aurrera eramateko, oztopo eta zailtasun guztien gainetik. Hala ere, jende askoren artean zabaldua dagoen ideia hau da: ETA dagoen bitartean, ez da posible ezkertiar eta abertzaleak batuko dituen erakunde politiko berria eratzea.

**OSO** ondo dakit, mementu honetan, ETAREN jarduera bortitza oztopo bihurtu dela gure herrian dauden ezkertiar eta abertzale anitz erakunde politiko zabalean biltzeko. Baina hori bezain ondo dakit ezin dugula geldu egon borroka armatua desagertu arte. Ahal den neurrian urratsak eman behar ditugu erakunde berri hori sortzeko bidean, ezeren zain gelditu gabe.

"Batasuna" eztabaida-prozesu barruan nabaria izan da partehartzaileen artean egon den aniztasuna. Beharbada ez batzuek nahi genuen hain aniztasun handia, baina eztabaida ugari eman dira, eta ez bakarrik borroka armatuaren inguruan: Euskal Herriak eta bera osatzen duten sei herrialdeek izan beharko luketeen erabakitze ahalmenez, militanteen erroldaren beharraz, funtzionamendu demokratikoa bermatzeko baliabideetat, korrante antolatuen eskubideetat...

Borroka armatuari dagokionez, iritzi ezberdinak agertu dira, bai, baina guztion xedea biolentziarik gabeko eskenatoki politiko berri bat eraikitzea dela nabarmen geratu da. Aldea dago eskenatoki berri horretara ailegatu arte, borroka-molde ezberdinek, borroka armatuak barne, izan behar duten garrantzia baloratzerakoan.

Nire aldetik, Arragoa kolektiboaren kidea izanik, borroka armatuaren aroa gainditu behar dugula uste dut. Horrela defendatu dut eta jarraituko dut defenda-tzen, nahiz eta minorian egon. Nire ustez, ezinbestekoa dugu, Arragoaren ponentziak defendatzen zuen moduan, erakunde autonomo eta soberanoa eratzea. Aldaketa politiko eta sozialak lortzeko indarrak borroka armatuan bilatu ordez, gehiengoaren konbentzimenduan bilatuko dituen erakunde politiko sendoa beharra dugu.

**BAINA** borroka armatua etetea edo desagertzea ez dago gure eskuetan. ETAREN erabakia izango da. ETAK horrelakorik egiten ez duen bitartean, itxaroten egon ordez, lan politikoari ekitea ezinbestekotzat jotzen dut, bide politikoak zabalduz borroka armaturako bidea estutuko delakoan bainago. Lan politiko itzela dugu aurrean, zeren eta borroka armatua desagertzeak ez baitizkigu gauzak konponduko. Aldiz, gizon eta emakumeen arteko aukeraberdintasunean eta justizia sozialean oinarrituriko Euskal Herri askea eraikitze behar ditugun indarrak metatzeko ahaleginak eten gabe egin beharko ditugu. Eta lan hori gure eskuetan dago.

Jakin badakit, egun, ideia hauek minoritarioak direla "Batasuna" prozesuan parte hartzen dugunon artean, baina aniztasunean oinarrituriko erakundeaz hitz egiten dugunean, gutxiengoan ala gehiengoan aritzen ikasi beharko dugu. Gehiengoak gutxiengoa errespetatuz eta bere ideiak defendatzeko askatasuna

emanen; gutxiengoak gehiengoaren erabakiak onartzu eta gehiengo bihurtzeko lanean arituz.

Orain gutxiengo baten ideiak direnak gehiengoarenak izango diren uena ailegatuko dela sinesten dut. Behintzat hori da nire erronka (eta uste dut, beste askorena ere). Horrexegatik ez dut amore emango ●



MONIKA DEL VALLE

Arantza Urkaregi

"Batasuna" Batzorde Nazionalako kidea

*"Borroka armatua etetea ETAREN erabakia izango da. ETAK horrelakorik egiten ez duen bitartean, lan politikoari ekitea ezinbestekotzat jotzen dut, bide politikoak zabalduz borroka armaturako bidea estutuko delakoan bainago"*



Garzonek espetxeratu zuen "Xaki auzia"ren kariz. Ez da epaile honek espetxeratzen duen lehen aldia. HBko Mahai Nazional' osoa espetxeratu zuenean Gorka Martinezek hainbat hilabete eman zuen barruan. Egungo egoera politikoaz aritu gara HBko mahikide honekin.

## "AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA EGUNERO LANDU BEHAR DA"


**E**zker abertzalearen nazioarteko aparatua desegitea xede zuela esan zuen Mayor Orejak eta "Xaki auzia"ren barruan inplikatu zintuen Baltasar Garzonek. Zein da zure esperientzia eta iritzia auzi honen inguruan espetxetik pasa ostean?

Modu pertsonalean pairatzen duzun egoera eta Euskal Herrian politikoki bizi den egoera nahasten dira; pertsona zaren aldetik esperientzia ona. Senideekin, lagunekin eta gizartearekin dituzun harremanek eragina dute zure baitan eta hori zure lan politikoari gehitzen diozu. Gero eta garbiago ikusi dut Espainiako nahiz Frantziako Estatuak daramaten estrategia bateratua ondo kokatua eta finkatua dagoela Euskal Herrian dagoen independentismoaren ideiak suntsitzeko. 18/98 sumarioa ez nuke arlo judizialean kokatuko, estrategia politiko global batean baizik. Ez dabilta independentziaren alde ari diren pertsonen aurka soilik -nire kasuan nazioarte mailan ari den Xaki erakundearen kontra- bestela ez da ulertzen komunikabide, enpresa edota fundazioen aurka horrela jotzea.

Hauek guztiak zaku berean sartu nahi dituzte, eta guk perspektiba politiko horren barruan aritu behar dugu bai kanpoan bai espetxean gaudenean. Preso politikoez bizi duten egoera bizi izan dut guztiz eta biziki. Norberak jasaten dituen baldintzek eragina dute barruko eta kanpo politikoa zehaztean.

■ **Ezker abertzaletik estatuaren egungo ofentsiba aipatzen da eta ETaren ofentsiba haren ondorioa dela. ETaren gaur egungo borroka armatua iraultzailetzat jo al daiteke?**

Ez dut uste ETarena ofentsiba denik;



MONIKA DEL VALLE

■ "Ziklo bakoitza aurretiaz baldintza berriak sortu ditugulako sortzen da".

ETA azken hogeitaz hamar urte luze hauetan ofentsiban dago. ETaren borroka iraultzaile armatua esatea ere, ez da egokia. ETaren arabera -nik bere hitzak baino ez ditut hartuko- borroka armatua tresna bat da eta agente politikoak eta sozialak Euskal

ziklo luze baten barruan sartu gara. Hori entzun nuen Lizarrako Akordioa sinatu zen unean nahiz ETaren su-etenaren ostean, hau da, egoera hau luza daitekeela beste hogeitaz hamar urtez edo. Nik ez nuke halakorik esango, alde batetik ez dakidalako, baina inork ez daki zenbat iraun dezakeen ziklo honek.

Ziklo bakoitza sortzen da aurretiaz baldintza berriak sortu ditugulako, ez badugu sortzen baldin-

tza edo egoera berri bat ezinezkoa da egoera batetik bestera igarotzea. Lizarra-Garazi inflexio puntu bat izan ahal zen, agian. Eta zentzu honetan ez nuke esango EAJ, EA edota ETA errudunak direnik, baizik eta ezker abertzaletik, agian, ez genuela egin genezakeen guztia egin.

■ **Zer ez zenuten egin, adibidez?**

Bada, ez genuen lortu Lizarra-Garazi-

### □ "Estatu biek daramaten estrategia bateratua ondo finkatua dago Euskal Herriko independentismoaren ideiak suntsitzeko"

Herria aurrera eramateko jarrera zehatz eta tinko bat garatzeko gauza bagara borroka armatua albora utziko du. ETAk ez du bilatzen iraultza borroka armatua- ren bidez.

■ **Nolanahi dela, Lizarra-Garaziko Akordioaren osteko ETaren aldetiko fase luze batean al gaude zure ustez?**

Entzun dut behin baino gehiagotan

ko Akordioaren potentzialitatea alderdi politikoen eskuetan baino gera ez zedin. Akordioa 31 erakunde politikok, sozialek edota sindikalek sinatu zuten. Hartara, hiru alderdi hauen artean pisu guztia uzteak ez du zentzurik izan. Funtsezkoa gizartea Akordioak eskaintzen zuen prozesuan parte hartzea zen. Hor dago gure erantzukizuna, eta denok ikasi behar dugu horretaz.

■ **Haren ondorengo fase honetan zer ekar dezake ETaren jarduerak lehenetik ekarri ez zuenik?**

Nik ezin dut esan ETak egiten duenarekin egoera ezberdin batera iritsiko garenik, areago, haiek egiten dutenarekin bakarrik ez behintzat, ziur nago horretaz. Gizarte osoak hartu behar du lekuko hori. Ezker abertzaletik hasita, gainontzekoek ere erantzukizun hori hartu behar dugula esan nahi du horrek. Ikasi behar dugu zer egin dugun gaizki iraganean: Udalbiltza, Batera ekimena, Gasteizko Legebiltzarrean hitzartutako

akordio instituzionala, horiek guztiak hartu eta egin ditugun akatsetatik ikasi eta berauk zuzendu, beste fase berri batera iristeko. Ez diezaiegun ETari ez EAJ ez Eari erantzukizun guztia leporatu, baizik eta lan egin dezagun euskal gizar-teak erantzukizuna har dezan.


■ **Baina, azken finean gizar-tea eta ezker abertzalearen dinamika ETak irauteko duen ahalmenaren baldintza pean dago. Ez duzu uste?**

Gizarte honek bizi dituen baldintzak ez daude ETaren menpe, egoera ez da gure gizar-teak bizi duen egoeraren ondorioa, aitzitik, kanpotik ezarritako baldintzen ondorioa da. Batez ere, hedabideetatik eta beren burua konstituzionalista gisa jotzen dutenen baldintzapean dago euskal gizar-tea. Aldi berean, nazionalista baskongadoek sortzen dituzten kontraesanak daude. Horiek ezker aber-

tzalearen barnean egon daitezkeen kontraesanek baino gehiago baldintzatzen dute gizar-tearen egoera.

■ **Ezker abertzalearen Alternatiba Demokratikoaren oinarria herriari hitza ematean datza. Ezker abertzalearen baitan demokraziaren esanahia benetan bete egiten da?**

HBk eta ezker abertzalearen beste indar batzuek "Batasuna" prozesua abiatu zuen erakunde politiko berri bat sortzeko helburu izaki, ahalik eta jende gehien eta zabala bilduz. Kontuan izanik



■ **"Beste fase berri batera iristeko zer egin dugun gaizki ikasi behar dugu".**


zein une politikoan bizi garen prozesu honi barne kohesio eta koherentzia bat exigitu behar zaizkio. Barne kohesio hori, dudarik gabe, militantziaren baitan kokatu behar da, berari utzi behar zaio eztabaidaren prozesu osoa, eta eztabaida horretatik ateratzen diren ondorioak, ez

□ **"Ibarretxe tranpaz ari da. Ibarretxek herriari hitza eman eta errespetua zor zaiola dio, baina berak ez du hori asmatu"**

bakarrik errespetatu, baizik garatu behar dira. Horrek exigitzen du baita ere errespetu minimo bat militantziarekiko, eta sektoreren batek ez du halakorik erakutsi.

■ **Aralar sektoreaz ari zara?**

Adibidez. Ezinezkoa da prozesu demokratiko bat gauzatu partehartzaileok ez badugu prozesuan era demokratiko batez jokatzen. Oinarriko militantzia egu-



nero ari da lanean jo eta su eta errespetu osoa merezi du. Hori apurtzeak ez du izenik, onartezina da. Espetxean nahi hori bizi izan dugu eta benetan haserretu ginen. Ez da bakarrik militantziare-

kiko, presoekiko ere errespetu falta da. Denok izan dugu geure ponentziak irakurtzeko aukera eta ekarpenak herrietara joan dira. Zergatik besteen aportazioek ez dute hartzen bide berbera? Horixe da lehen exigentzia. Horrek indartzen du barne kohesioa.

■ **Ibarretxek Kursalean plazaraturiko hiru puntuetan herriari hitza ematea ageri da. Berau autodeterminatzeko modutzat jotzen dute EAJ eta**

**EAK. Markoa gaintzeko epea gizar-teari jartzea dagokiola diote ere bai.**

Ibarretxe tranpaz ari da. Ibarretxek herriari hitza eman eta errespetua zor zaiola dio, baina berak ez du hori asmatu. Horiek ezker abertzalearen hitzak dira eta guk ontzat jotzen dugu berauek kontuan hartzea, bereganatzea eta garatzea. Baina herriaren hitzak ari denean kon-

tuan hartu behar dugu Euskal Herri osoko herriaren hitzaz ari garela, eta bera ez dabil bide horretan. Berak dioenez, markoa gainditzeko epea eta erritmoa herri honi dagozkio, baina herri honi ez badizkiogu tresna guztiak jartzen alferrikan ari da. Zer dio EAJk? Herri honen ordezkaria ni naiz, orduan nire dagokit epe hori jartzea, eta tarteka eskubidea hartu eta erabiltzen du. Autodeterminazio eskubidea hauteskundeetarako aurkezten dute orain. Haatik, autodeterminazio eskubidea gauzatzeko egunero lan egin behar da eta EAJk ez du lantzen hori, eta lantzen ez diren proposamenak atzean geratzen dira, eta azkenean desegin ere bai.

■ **Ezker abertzaleak eraikuntza nazionala eraikuntza sozialaren kaltean hobetsi duela dioenik ere bada. Eraikuntza nazionala sistema kapitalista bermatzen duten alderdi abertzale egiten ari direla.**

Bada horrela ari dena gezurretan dabil eta asmo txarrez gainera. Guk eraikuntza nazionala aipatzean ez gara soilik marko politikoa aldatzeaz ari, baizik eta marko politikoa horretan zer-nolako gizar-tea nahi dugun. Behin baino gehiagotan esan dugu gure helburua sozialismoa dela eta horretarako iraultza soziala egin behar dela. Agian, iraultza ez da hitz polita gaur egun, eta nahiago baduzu eraldaketa soziala deituko diogu. Kontua ez da nola deitu baizik zer egiten ari gara gizar-tea eraldatzeko.

■ **Bien bitartean gatazka bizirik dago. Gainditu al daiteke egoera hau nazio-estatuaren ereduaren arabera?**

Bai, bestela ez dago irtenbiderik, Euskal Herriarentzako intzenbiderik alegia. European estatuaren kontzeptua inoiz baino indartsuago dago. Jakina, Europako Batasuna osatzen duten estatuak subiranotasunaren alor batzuetan ahalmena utzi dute eta modu komun batean biltzen dira. Baina kontuz, beren markoa defendatzen dute buru-belarri. Kontua ez da, estatuak oraindik dituzten indarra edota ezaugarriak etorkizunean ere berberak izan behar dituzten edo ez, baizik eta Europako herri bakoitzak gauza izan behar duela bere nortasuna

**BEHIN-BEHINEKOZ ASKE**

*Venezuelan jaio zen 1948an, erbeste-  
teraturiko familia baten baitan.  
HASI eta LABeko militante izana.  
Peoi bezala hasi zen eraikuntzan  
eta obrako buru aritu zen HBn  
liberatu gisa hasi zen arte. Azken  
lau urteetako hiru espetxean eman  
ditu. Behin-behineko askatasunean  
dago. Euskaldun berria da eta  
Euskal Filologia burutzen hasi zen  
espetxean. Barrutik osasun arazo-  
rekin atera da. Laster osatu eta  
borrokan segitzeko irrikatzen dago.*

-beste herrien ezaugarriekin bat eginez-mahai baten gainean jartzeko. Egungo egoerari elkarrekiko menpekotasuna deitzen diogu. Euskal Herria hiru zatitan banaturik dagoela kontuan izanik, menpekotasun hori gero eta bortitzagoa da, eta bistan da Baskongadetako indar politikoak ez dira gauza Euskal Herri osoko interesak defendatzeko. Beraz, egun markoak balio du Euskal Herriaren bizirau-

pena bermatzeko? Guk garbi daukagu ezetz. Eta besteek ere ez. Badakite horrela ez goazela inora, baina Euskal Herriarentzako defendatzen duten marko politikoa, klase eta interes baten menpeko politika bat da. Euskal Herriak bizirauteko bere marko propioa behar du eta hortatik gauza izango gara beste batzuekin akordio batera iristeko.

■ **Herri honek fronte klabetan egin dezake aurrera?**

Nik ez dut frontetan sinesten, ez nator bat fronteak sortzearekin. Indar politiko eta indar sozialen arteko lanen bidez sor daitekeen etorkizuneari sinesten dut. Fronte subiranozalearena espainolen asmakizuna da.


■ **Jose Mari Olarrak Estatuari erantzun dion fronte bat aipatzen zuen orain gutxi "Gara" egunkarian.**

Bada, nik, Gorkak, halakorik ez nuke inoiz proposatuko. Horrek ez baitie estatuei inolako erantzunik ematen. Gure estrategian ez da hori sartzen kontrakarrean ibiltzea baita. Nik uste badaudela oso arrikutsuak diren errefrentzia batzuk. Bate-tik, estatuena. Hor daude, egin dezatela nahi dutena, baina gu errespetatuz. Hori horrela ez bada, guk defendatu behar dugu gure burua, artean guk eraiki behar dugu gure eredu propioa. Estatuari aurre egiteko ez dut ikusten inondik inora ezer sortu behar dugunik. Gure burua gauzatzeko bai ikusten dudala guztion ahaleginen beharra, nik zentzu horretan Euskal Herrian dauden indar guztiak lotuko nituzke.

■ **Zer falta da horretarako?**

Sakonago hitz egin, aurrealdintzarik gabe. Ezin dugu elkarriketa bat hasi baldintzak jarriz. Lizarra-Garaziko Akordioa borroka armatua indarrean egonda sinatu zen. Munduan badaude halako beste adibideak eta inork ez ditu bere arropak urratu horregatik. Kontua da zein erronka ditugun eta berauei nola egin behar diegun aurre. Iristen bagara akordio batera finkatuko dugu noraino iritsi, eta bide hori barneratzen dugun bitartean ikusiko dugu zein elementuek distorsionatzen duten gure bidea eta nola gainditu berauek. Baina gelditu gabe, hori da ezinbesteko baldintza, bestela ez goaz inora, ez gu ez inor ●

◆ **MIKEL ASURMENDI**



MONIKA DEL VALLE

■ **"Europako egungo egoerari elkarrekiko menpekotasuna deitzen diogu".**

## B O R O A K O P R O I E K T U T E R M I K O A

*Baliteke Bizkaian kokatzen diren proiektu energetikoen aurkako herri borroka emaitzak jasozten hastea. Borroka horretan, kasurik azpimarragarriena Zornotzakoa da. Bertan, herri osoa altxatu da ezarri nahi duten zentral termikoaren aurka eta agian geratzea lor dezake.*

## 15.500 ZORNOTZARREN SINADURA ZENTRALAREN AURKA



■ Boroan zentral termiko bat jartzeko asmoa zegoela jakin zutenetik, mobilizazio ugari egin dute zornotzarrek.

**H**erri bakoitzak bere oroimen historikoa du, eta badaki bertako biztanleek bat egin badute ezingo duela inork herriaren aurkako proiekturik aurrera eraman. Euskal Herriak Lemoizko zentral nuklearra geraraziz lortutako garaipena gauza hurbila da oraindik. Inork ez du ahaztu borroka hari esker lortutako garaipena. Gaur egun, garai hartan bezalaxe, proiektu energetiko berriak abian daude Euskal Herrian, eta bereziki Bizkaian, bertan

bost proiektu gauzatu nahi baitira: Badia I eta Badia II, Santurtziko zentral termikoa, Zabalgarbi errauskailua, eta Boroako zentral termikoa.

Proiektu horien kokapenak eragiten dituen herriek dagoeneko abian jarria dute horien aurkako mugimendua eta, horretarako, hainbat mobilizazio, agerraldi, itxialdi, sinadura biltze eta abar egin dituzte. Guztien artean Zornotzako Boroako zentral termikoaren aurkakoa da indar gehien lortu duena eta, nonbait, zentralaren proiektua bertan behe-

ra geratzeko zorian egon daiteke borroka horren eraginez. Aurkako jarrera hori ez du gutxiengo batek erakutsi, gehiengo zabal batek baizik, eta esan liteke Zornotzako familia guztiek hartu dutela parte bertan.

**69.000 MILIOI PEZETAKO INBERTSIOKO ZENTRALA.** Boroako zentraleko "Bizkaia Energia" proiektua ziklo konbinatuko zentral elektriko da, gas naturalez hornitua. Irlandako ESB enpresak proiektatua izan da, eta

enpresa horren akziodun bakarria Irlandako gobernua da. 800 megawatteko potentzia izango luke, eta Aldundiak Boroako auzoan duen milioi bat metro koadrotik 60.000 bereganatuko lituzke. Urtean 1.000 milioi metro kubiko gas kontsumituko lituzke eta bere gehieneko temperatura 1.350 graduko litzateke.

Boroako kokapena erabaki aurretik, ESBk beste 14 leku aztertu zituen. Bertako zuzendariaren arabera, enpresarentzat errentagarriena Abrakoa zen, baina ordurako leku horietarako aurreikusiak zeuden beste proiektu batzuk, esaterako, Bizkaiko Badia I eta II. Azkenik Boroa aukeratu zuten, "proiektuaren eta azpiegituren eragina hortxe zelako txikiena". Gainera, gasbidea hortik igarotzen da, sareari lotzea erraztuz, energia elektrikoaren linea ere hurbil dago eta topografia hobea da jaulkipenatarako.

Aurreikusten den inbertsioa 65.000 milioi pezetakoa (2.600 milioi libera inguru) da, eta horri 4.000 milioi pezeta (160 milioi libera inguru) gehitu behar zaizkio, enpresak, alegazioei erantzunez, proiektuari egindako zuzenketen ondorioz. Horren burutzapena datorren urtearen amaieran hasiko litzateke lehen fasean, eta 2003. urtean bigarren fasean. Lantegia amaitu ondoren, 45 lanpostu sortuko lituzke, oso kualifikatuak. Halaber, eraikuntza lanek 700 lagunentzako aldi baterako lana ekarriko lukete.

Proiektu honen berri izan zuten lehen unetik, Zornotzako biztanleak aurkako mobilizazioetan hasi ziren. Eta egunetik egunera areagoa egin da auzokideen aurkakotasuna. 1999. urtearen hasieran jakin zen atzerriko enpresa bat Boroan ziklo konbinatuko zentral termikoa jartzeko asmotan zebilela. Harrezkero Zornotzako biztanleak gelditu gabe ari dira horren aurka. 1999. urtearen amaiera aldera hainbat alegazio aurkeztu zuten, proiektu hori herri-tarren osasunaren eta ingurunearen kalte-tan izango zelako, nahiz eta, enpresaren esanetan, "horixe izan energia elektrikoaren sortzeko biderik eraginkorrena, garbiena eta ingurumena gehien zaintzen zuena".

Gero, 2000ko martxoan, bertako biztanleek auzo plataforma bat eratu zuten: Zornotza Bizirik. Plataformak



■ 2000ko martxoan Zornotzako biztanleek Zornotza Bizirik plataforma eratu zuten, otsaileko manifestazioan 8.000 pertsonak hartu zuen parte.

HB-EH eta IUren babesa izan zuten; baina EAJ, PP eta PSEk, ordea, ez zuten proiektua zalantzan jarri. Proiektuaren aurkako lehen manifestazioa apirillean izan zen, eta guztiz arrakastatsua gertatu zen, 16.000 biztanleko herri batean 7.000 lagunetik gora bildu baitzituen.

Horren ondoren, Zornotzako Udalak, EAJ, PP eta PSEren botoekin, proiektuaren aurkako erabakia hartu zuen, udal arautegia betetzen ez zuela argudiatuz. Erabaki horren eta, bertako alkate andreak, bera alkate zegoen bitartean zentralik ez zela eraikiko esanez, egindako adierazpenen ondorioz, hurrengo manifestazioko partaidetza jaitsi egin zen 4.000ra. Gero, 2000ko abenduan, plataforma berak deitutako martxa batean are gehiago jaitsi zen

## □ Zornotzako ia biztanle guztiek sinatu dute Boroako zentral termikoaren aurka egiten duen idatzia

partaidetza.

Baina herritarren mobilizazioak gora egin zuten berriro joan den otsailean, proiektuari zuzenketa batzuk egin ondoren ingurumeneko eraginari buruzko erabakia proiektua onartzearen aldekoa izan zitekeela jakin ondoren. Oraingo honetan, manifestazioak ordura bitarteko marka guztiak



hautsi zituen, 8.000 lagun bilduz. Halaber, 15.500 lagunek, hau da, herri horretako ia familia guzti-guztiek, dagoeneko sinatu dute proiektuaren aurkako idatzia. Zornotza Bizirik taldeak bestalde, proiektua eragozteko eskatu die berriro Eusko Jaurlaritzari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta udalari, eta bere aldarrikapena edo "borrokarako deia" adierazi du, esanez bere jarre-

rak tinko iraungo duela ESBk zentral termikoa egiteko asmoa bertan behera uzten ez duen bitartean, baina, nolana ere, bertako ordezkariak garbi utzi dute bere mobilizazio guztiak ekintza baketsuak izango direla.

Aipatzekoa da Bizkaiko herrialdean zentral termikoak eraikitzearen aurkako

## ■ Lemoiztik Tarragonara

**Z**ornotzako biztanleek ez dute ahaztuko zenbaterainoko indarra izan duen herritarren bat-egiteak Boroako zentral termikoaren aurka egiteko garaian. Euskal Herriari dagokionez Lemoizko eredu du. Garai hartan Iberduerok Lemoizko zentral nuklearra abian jarri nahi zuen, ia euskal alderdi guztien onarpenarekin, EAJ barne, eta milioi kopuru izugarriko inbertsioarekin. Bere I eta II multzoak jardunean jartzeko prest zeuzkan, eta, hala ere, gerarazia izan zen herriaren hainbat borroka mota ezberdinen eraginez, besteak beste manifestazio erraldoien eraginez. Bertako instalazioak, barrutik husturik dauden arren, Basordas Senaian jarraitzen dute, zentzugabekeriaren eta agintekeriaren eredu eta herri borrokaren garaipenaren adierazgarri bihurturik. Denboran hurbilago, Zornotzakoaren antzera, Katalunian, Tarragonako Morá la Nova jarri nahi izan duten beste proiektua daukagu. Ebroren inguruko eskualde horretan izan diren mobilizazioen eraginez, Kataluniako Generalitatek ziklo konbinatuko proiektua geraraztea eta hiru hilabetez atzeratzea erabaki du proiektua hobeto aztertzeko ●



plataformek, besteak beste Bizkaia Bizirik plataformak, Euskal Herriarentzako eredu energetikoari buruz aukera berdintasunez egin beharreko eztabaida sakon baten premia aldarrikatu dutela, eta "zentzugabetzat" jo dituzten orain arteko proiektuak bertan behera uzteko eskatu dutela.

**ESB ETA ZORNOTZA BIZIRIK EZTABAIDA GOGORREAN.** Boroako zentral termikoaren proiektua aurrera atera nahi duen Irlandako ESB enpresa eta herritarren Zornotza Bizirik plataforma tira-bira gogorrean ari dira. Bi erakundeen arteko tentsioa joan den otsailaren amaiera aldera areagotu zen, ESB enpresak Zornotza Bizirik plataformaren kanpainari aurre egiteko Bizkaiko prentsan orri osoko publizitatea zabaldu ondoren. Publizitate horretan Zornotza Bizirik plataformaren orriska baten fotokopia ageri zen "Akastuna" handi bat gainean jarrita, eta, bestalde, ezin ukatu izenburua bera ere nahiko esanguratsua dela: "Zornotza Bizirik kanpainak sortu duen nahastea dela eta, ESBk egiarekin erantzuten du. ESBk Zornotza Bizirik plataformaren

alegazioei erantzun nahi die eta egia adierazi nahi du enpresaren beraren eta Bizkaia Energia Ziklo Konbinatuzko Planta Zornotzan instalatzeko proiektuaren inguruan". Hurrengo egunean, enpresa horrek adinako baliabide ekonomikorik ez duen herritarren plataformak prentsaurreko baten bidez egin zion aurre enpresaren publizitateari.

Eztabaidaren muina CO2 eta NOX jaulkipenetan dago. ESBk dioenez "Boroako proiektuak %50ean murriztuko ditu CO2 jaulkipenak, gaur egun dauden gainerako zentralekin alderatuz. CO2k ez du tokiko eraginik, eta bere eragina nahiz neurketa maila orokorrean egiten da. NOX jaulkipenei dagokienez, lantegi honek NOX baxuko erregailuak ditu, beraz, gure lantegiaren eragina Amorebieta-Etxanoko autopistan orduko bi auto gehiago igarotzearen parekoa izango da". ESBk gaineratu du, ingurumeneko CO2ren metaketa murriztuko duela ohiko zentral termikoak ordezkatzean, haiek jaulkipen bikoitza egiten dutelako. Gainera, enpresak dioenez, erabiltzeko aurreikusia duen aire bidezko hozte-sistemak Ibaizabal ibaiaren eta Boroako erreken



*Haurtxoen komunikazioa batez ere bideojoko eta telebistaren inguruan ematen dela entzuten dugu sarritan. Arazo horretaz arduratuta eta haurrentzako aldizkarietan dagoen hutsuneaz ohartuta datozkigu "Nanai" eta "Pika" haur aldizkariak.*

## HAURREK BI ALDIZKARI BERRI DITUZTE ZAIN



NANAI

**L**az Durangoko Azoka haur eta gazte literaturaz gainezka etorri zitzaigun, baina haurren irakurzaletasuna gero eta eskasagoa dela azpimarratu du zenbait idazle eta ilustratzailek. Haurrak liburuetara erakartzeko helburuarekin sortu zen iaz Galtzagorri elkartearen ekimenez guraso eta hezitzaileei zuzendutako "Behinola" aldizkaria, baina liburuak egin al diezaiekete lehiarik telebista, ordenagailu eta bideojokoei? "Nanai" eta "Pika" aldizkariak horren aldeko apustua egin dute.

Azenarioak jaten dituzten haur-jaleak, zerrikumeak zaintzen dituzten otsoak, eta beste hamaika kontu aurkitu ahal izango dituzte bost eta zortzi urteko hurrek iazko abenduaren 28an Baionan aurkeztu zen "Nanai" haur aldizkarian. Kolorez beterik dator Nanai, jolasak, ipuinak, komikiak,

pegatinak, irakurleentzako txokoa eta abestiak deskubritzeko aukera izango dute etxeko txikienek. Horretaz gain hurrek gurasoak ederki erotuko dituzte aldizkarian proposatzen diren errezetekin.

Aldizkaria Euskal Herriko ume guztiei dago zuzendua eta erabilitako euskara denok ulertzeko modukoa izan dadin saiatu dira. Ikas Bi-ko kide den Thierry Dolebelen esanetan, "euskara batuak gaztelera kutsua du eta denongana iristeko asmoz euskara asko zaindu dugu. Sinonimoak



NANAI

erabili ditugu, honela hurrek euskalki ezberdinak ezagutuko dituzte".

Urtean hamar ale kaleratuko dira, hila-bete bakoitzean bat oporretan izan ezik, eta dagoeneko bi ale atera dira. "Nanai" bakoitzean gai ezberdinak landuko dira: urtarrelekoan gabonak eta negua izan bazi-



■ Ipuin, joko eta errezeta ugari dakartza "Nanai"ren bigarren zenbakiak.

ren hizpide, otsailekoan inauteri festa izan da.

"Nanai" aldizkaria, Ikas Bi elkartearen (Ipar Euskal Herriko ikastetxe publikoetako gurasoen elkartea) ekimenez eta Hegoaldeko guraso elkartearen laguntzaz (Bige, Baikara, Denon Eskola) sortu da. Aldizkariaren diru sustengua Eusko Jaurlaritza eta Akitaniako Lurralde Kontseiluaren laguntzan eta irakurleen harpidetzan oinarritzen da. "Zailena haurren irakurzaletasuna bultzatzea da haurren aisialdian telebista eta bideojokoak nagusi direnean. Aldizkaria hedatzeko ikastolen giroan sartzeara erabaki genuen eta horregatik Hegoaldeko gurasoen elkartetara jo genuen", adierazi digu Thierry Dolebelek.

Eusko Jaurlaritzak haurren komunikazioa sustatu nahi zuen eta haurrentzako euskarazko testu liburuak egiten dituen Ikas Bik "Nanai" proiektua aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzari. Milan argitaletxeak kaleratzen duen Frantziako "Tobbogan" aldizkarian oinarrituta dago "Nanai", garai batean dagoeneko desagertua dagoen "Xirrista" haur aldizkariak egiten zuen

Euskara sailaren babeslea:



Oiartzungo Udala

OIARTZUN, UDALERRI EUSKALDUNA

Osasungintza, Lan Mundua, Epaitegiak eta Zerbitzuak...  
Euskaraz bizitzeko, oraindik ere hamaika urrats emango ditugu.





bezala.

Sei mila ale zabaltzeko erronka dute, horietatik bost mila Hegoaldean. Thierry Dolebelen aburuz, "lehenengo aleetan espero baina arrakasta gehiago izan du 'Nanai'-k. Aldizkari bat arrakasatsu den ala ez irakurleek epaitzen dute, aldizkari bat ezin da subentzioetatik soilik bizi".

**PIKA, HERRIALDE EZBERDINAK EZAGUTZEN.** "Xirrista" haur aldizkaria desagertu zenetik, "Pika" hila-betekaria aurrera ateratzeaz arduratu den Zuberoako Mendizolan elkarteak ere faltan botatzen zuen haurren aisialdia aberastuko zuen aldizkaririk. Gainera, "Pika"n lan egiten ari den Maddi Oihenart abeslari zuberotarraren esanetan, "'Xirrista' aldizkaria batuaz zegoen idatzia eta Iparraldeko zenbait umek ezin zuten ondo ulertu. Baxenafarrera eta zubereraren idatzitako argitalpenen beharra somatzen genuen".

Biarnon okzitaniaraz idazten den "Plumayou" izeneko haur aldizkaria kaleratzen da duela bost urtetik eta argitalpen horretan oinarrituko dira Mendizolanekoak. Euskal Herrian ezezik, bai Korsikan eta bai Britainian ere gauza bera egiteko asmoa dute. Aldizkariaren Korsikako alderak "Aio" izena hartuko du eta britainiarak "Luarning". Herrialde ezberdin horietako kulturak islatuko dira aldizkarian eta haurrek horiek guztiak ezagutzeko aukera izango dute, jolasten duten bitartean.

Zazpi eta hamalau urte bitarteko haurrek "Pika" hilabetekariaren azala zabaltzeko orduko, jolasak, fantasiako nahiz aipatu herrialdeetako usadioekin zer ikusia duten ipuinak, errezetak, esku lanak eta gai ezberdinak aurkitu ahal izango dituzte, denak kolore eta marrazki bizi-biziek.

"Izen sinple eta labor bat nahi genuen aldizkarirako, eta 'Pika' oso kuriosoa den ixori baten izena da", esan digu Maddi Oihenartek. Urtean hamaika ale aterako dira (udaran ale bat bi hilabeterako) eta aldizkaria harpidetza bitartez zabaltzea gustatuko litzaieke.

Departamentuko Kontseiluaren, Frantziako Kultur Ministerioaren, Europako Batasunaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzea espero dute aldizkaria aurrera ateratzeaz arduratzen diren euskal, korsikar, okzitaniar eta bretoi taldeak. Guztiak batera Koopelingua elkarte osatu dute eta dagoeneko harremanetan jarri dira Frantziako Kultur Ministerioarekin ●

◆ NAGORE LEGARRETA



Arturo Campion

## Arturoren kaiera

### OINARRIAK AURRERA BEGIRA

Oinarriak plataformak plan estrategikoa onartu du eta, era berean taldea handitzeko asmoa du. Plan estrategikoa epe luzerako ildo baten beharra nabarmentzen da eta, halaber, plataformako kideak gehiago inplikatzea eta kide

berriak bereganatzea. Etorkizunari begira, UPNren Gobernuaren erasoan aurrean euskara argitara ateratzea du helburu. Horretarako, euskaldunek lehen hitza euskaraz egitea proposatzen du, besteak beste.

### LAU BAZKIDE BERRI TOPAGUNEAN

Aurreko astean Topaguneak, euskara elkarten federazioak, bilera egin zuen. Bertan, herrietako elkarteek euskara gizarteratzeko arlo guztietan aurrera egin dutela, adierazi zuen Topaguneko lehendakari Jose Mari Muxikak. Guztira 60 elkarte biltzen dira federazioan; izan ere, lau bazkide berri baititu larunbatetik: Eskoriatzako Axtroki, Iurretako Gurien Bai, Zaldibarko Eixu! eta Pasaia Abaraska. Halaber, 33 herri aldizkari, bi irratia eta bi telebista daude erakundean.

### KONTSEILUA EUROPAKO PARLAMENTUAN IZAN DA

Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia Estrasburgon izan zen joan den astean eta euskal herritarren hizkuntza eskubideen berri emateaz gain, euren urraketa geldiarazteko elkartasuna eskatu zuen Hizkuntz Gutxituen eta Erregionalen Taldean eginiko bileran. Bestalde, Europako Kontseiluan Eurokartaren sinaketaz arduratzen direnekin bildu zen Mendiguren.



### FILMAK EUSKARAZ ESTREINATZEKO LAGUNTZA

Orain arte zazpi pelikula estreinatu dira euskaraz iaz "Zinema Euskaraz" plana garatzeko Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzari esker. Ekaina bitarteko beste lau film estreinatuko dira. Orain beste 75.000 milioi pezetako laguntza emango du, komertzializatu eta bideo eta DVD euskarrietan kaleratu ditzaten.

## Urrea



■ Bermeoko Itsuki irratia Bermeoko euskararen 120 esaera eta esamolde zabaltzeko iragarki bidez. Udal Euskara Zerbitzuak eta Itsuki irratia antolatutako ekimena Joseba Mikel Ugaldek bertako euskaraz egin zuen lanean oinarritu da eta bertako esaerak berreskuratzea du helburu.



■ Elika Fundazioa, Elikagaien Bermerako Euskal Irakundea (zer ote da hori?), EAEko kontsumitzaileari nekazal elikagaiak behar den moduan iritsiko zaizkiola bermatzekotan sortu da. Web orrialdea paratu du irabazi asmorik gabeko entitate honek, baina gaztelera hutsean dago. Beste behin ere baztertuta.

## Ikatz





# ARTZAINAREN FRUITUA

*Euskal Herrian gero eta gazta gehiago ekoizten da. Hala ere, oraindik Europako ekoizpen kopuruetatik urrun gabiltza, europarrek (batez ere iparraldeko estatuetan) gazta postrearen errege egin baitute.*

*Kopuruak kopuru, Idiazabalgo, Erronkariko eta Ossau-Iratiko gaztak mahaigaineratu ditugu. Ez hauek Euskal Herriko gazta marka bakarrak direlakoan, ezagunenetakoak direlako baizik. Mamiak, azalak, zaporeak... bereizten dituzte eta denak dira aho gozagarri.*

Testuak: Iosu Etxaniz



DANI BLANCO

**G**aztaren sorkuntza zela-eta, antzinako gizakiak ordura arte zuen arazo handi bati ahalik eta elikagai gehien ahalik eta tokirik txikienean garraiatu ahal izatea- konponbidea ematea lortu zuen, eta hortik aurrera gaztaren hobetze eta mundu osoan hedatzea etengabea suertatu da. Ez dakigu noiz helduko zen Euskal Herrira, baina Neolito aroan gure inguruan jadanik gazta egiten zela ziurra da.

Horretaz gure mendi eta bailaretako txoko guztiak ezagutzen dituzten artzainak arduratu dira, mendilerro garaietako txaboletan lehenbizi, udaberriaren amaieratik hotzak eta elurrak bertatik botatzen dituzten arte, eta kostalde inguruko base-ri alokaturen batean negualdean, historiaurretik datorren ziklo aldagaitzari behin eta berriz atxikiz. Lan horretan, batez ere, eta gaztagintzari dagokionez, latxa ardi mota mitikoaren laguntza izan du, edozein ingurura moldatzen den eta zainketa gutxi behar duen abere txiki baina gogorrarena, eta esne-ekoizpen mugatua (ehun bat litro denboraldiko) baina kalitate handikoa ematen duena. Badira Euskal Herrian bestelako ardi arrazak, "rasa" edo manetx esaterako, eta abeltzainek behiak eta ahuntzak ere badi- tuzte, baina gure gaztagintzari dagokio- nez latxa ardiak garrantzi handia izan du.

## EGUNERO GAZTA ETA URTEAN GAZTA BAT.

Horixe dio esaera zaharrak, baina esnearen deribatu hau elikagairik osoenetakoa dela kontuan hartzen badugu (proteina, bitamina eta abarren aldetik), bere kontsumoa gero eta zabalagoa eta ugariagoa dela uler dezakegu. Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailak emandako datuen arabera, EAEko biztanle bakoitzak batez beste urtean lau kilo eta erdi gazta inguru jaten du etxean; zehatzago esanda, 1,4 kg. gazta fresko, kilo bat gazta urtu, 1,15 kg. ondu edo erdi ondu eta ia kilo bat bestelako moten artean.

Gero eta gehiago jaten dugu, bai, baina datuei erreparatuz gero, Estatu Espainiarrean batez besteko kontsumoa gurea baino kilo bat gehiagokoa dela konturatuko gara, eta gure burua Estatu Frantziarrekin konparatzen badugu ipa-

DANI BLANCO



# MAHAIAREN KONKISTAN

rraldeko bizilagunek guk baino bost aldiz gehiago jaten dutela ikusiko dugu; urteko 22 kilo (Europako batez bestekoa 16 kilokoa da). Arrazoia, bertan gaztak postreko fruta freskoaren tokia hartu ohi duela da.

**GERO ETA GEHIAGO EKOIZTEN DA.** Ekoizpenaren inguruan, mundu osoko 15 milioi tonetatik Europako Batasunak 6,6 ekoizten ditu (1997an), bertan lehen postua Frantziaren 1,6 milioi tonetik betetzen dutelarik (Espainiak 250.000 tona ekoizten ditu).

Euskal Herrian, Eusko Jaurlaritzaren datuek EAEko gaztandegien salmenta garbiak 1998an 2.535 milioi pezetaoak (101 milioi libera) izan zirela adierazten digute, hortik Idiazabal Jatorrizko Izendapenak 1999an ekoiztu zituen 966.578 kiloko kopurua (80 bat ekoizleren artean eta 100.000 ardien esnea erabiliz) azpimarratzen dutelarik.

Zehatzago, Idiazabalen barruan lau industria izango genituzke: Arabako El Pastor Vasco (171 tonako ekoizpena) eta Queserías Araia (177 tona), gehi Nafarroako Quesos La Vasco-Navarra (170 tona) eta Gaztandegi Dorrea (88 tona). Hauek gain, Hegoaldean dauden 17 kooperatiben artean beste 185 tona ekoizten dituzte, eta azkenik, 55 artzain eta baserritarrek gainontzeko 185 bat tonak.

Dena den, Euskal Herrian ditugun jatorrizko izendapenen artean gehien ekoizten dena Ossau-Irati dugu, zortzi industria eta kooperatiba eta 65 ekoizle txikiren artean 1.980 tona egiten baitituzte. Gazta mota hau Ipar Euskal Herrian eta baita Biarnon ere egiten dute, hots, Pirinio Atlantikoak departamendu osoan. Iparralderako datu argigarri gisa, esan dezagun Nafarroa Behereko Heleta herriko Agian Kooperatibak 300 tona egiten dituela, 16 milioi liberako (400 milioi pezeta) baliodun salmentekin. Duela gutxi bere instalazioak handitu eta lan eremua biderkatu dute, gazta mota hau Frantziaren eta Europan ez ezik Ameriketara ere saltzeko asmoa dutelako.

Erronkari Gaztaren ekoizpena, azke-



■ Urtean 3.000 tonatik gora gazta ekoizten dituzte euskal enpresek.

nik, urteko 400 tonakoa da, Iruñeko Enaquesa (100 tonatik gora egiten duen bakarra) eta bailara honetako lau ekoizle txikiren artean banatuak. Gazta mota honen salneurria kiloko 1.800-2.200 pezeta ingurukoa (72-88 libera) da, gure marken artean garestiena. Urteko salmentak 800 milioi pezeta inguruan (32 milioi libera) ibil daitezke, Hegoalde eta Espainiako merkatuen artean banatuak. Ekoizleek ez dute bertako eskaera

egin izan baititu halakoak, azken finean gaur egun arte hiru mirari gastronomiko (Idiazabal, Erronkari eta Ossau-Irati) eta beste hainbat gazta produktu laguntzaile heldu bazaizkigu ere.

## IDIAZABAL, HEGO EUSKAL HERRIKO GAZTA.

"Idiazabal" izenez ardi latxaren esnearekin Hego Euskal Herrian egiten den gazta mota ezagutzen dugu, Jatorrizko Izendapena arautu zenean (1989) hainbat marka bazegoen ere (Gorbea Bizkaian, Urbasa Nafarroan...) funtsean gazta berdina zelako eta Euskal Herrian zein kanpoan markarik ezagunena horixe zelako. Gaur egun, Idiazabalen barruan Aralar, Urbasa eta Gorbeak azpi marka gisa funtzionatzen dute.

Gazta honek gurean zein kanpoan duen ospeaz jabetzeko nahikoa izango da aipatzea 1992an Frantziako Gastronomiako Akademiak Europako Ondasun Gastronomiko izendatu zuela (Estatu Espainiaren horrelakorik ezkur-bernilak eta oliba olioak bakarrik lortu zuten), 1995ean Parman buruturiko Europako gazten arteko lehiaketan urrezko domina lortu zuela, edota gure azokarik garrantzitsuenetan gazta irabazlearen erdiak milioi erdi pezetatik (20.000 libera) gora-

asetzen eta beraz, ez da Estatu Espainiarretik kanpo ia Erronkaririk esportatzen. Honen arrazoia, Jatorrizko Izendapenaren arduradun Angel Maria Solchagaren ustez, ardi esnearen eskasia da, bere esanetan merkatuak egun ekoizten denaren bikoitza ere hartuko lukeelako.

Euskal gazta milaka urtetan zehar egiten eta hobetzen joan den oinarrizko elikagaia dugu, lanbide astuneko artzainen esku gogor baina iaioetatik sortutako mokadu goxo eta osasuntsua. Dena den, euskal gazta baino, gure gaztetaz hitz egin beharko genuke, haran bakoitzean artzain eta baserritar bakoitzak bere erara

## □ Euskal gazta baino, gure gaztak ditugu, haran bakoitzean artzain eta baserritar bakoitzak bere erara egin izan duelako

## ■ Jose Antonio Merino: "Artzainen belaunaldi erreleboa behar dugu"

**I**diatzabal Gazta Hego Euskal Herriko ezagunena da, eta Jatorrizko Izendapenaren Kontseilu Arautzailearen gerentea orain arteko lanaz pozik badago ere, etorkizuna kezka-ti ikusten du, artzain gazteen falta dela-eta.

■ **Zenbat ekoizle eta zenbateko produkzioa kontrolatzen duzue Jatorrizko Izendapenetik?**

Ekoizleak sailkatuz, alde batetik industriak ditugu, urtean 100 tonatik gora gazta egiten dituztenak eta esne guztia erosten dutenak, beste alde batetik kooperatibak, 10-15 tona ekoiztu eta esnea beraiena eta erositakoa nahasten dituztenak, eta azkenik, artisauak (artzain edo baserritarrak) izango genituzke, esne guztia beraiena izanik batez beste lau bat tona (2.600 gazta inguru) ekoizten dituztenak. Azken hauen artean, bateren batzuek mendian egiten jarraitzen dute, baina kontrolatutako gazta guztia baserrian ekoizten da, artzain baserritarraren eta bere emaztearen artean.

■ **Batzuek ala besteek egin, pentsatzekoa da prozesua eta emaitza pixka bat ezberdinak izango direla...**

Industrietan lana automatizatuagoa da, baina oraindik lan asko (moldez molde igaro, etiketa jarri eta abar) eskuz egin behar izaten da. Bestalde, baserritarrek ez bezala, industria bakoitzak marka komertzial bat baino gehiago erabiltzen du, bakoitzaren merkatuaren arabera. Salneurriak ere desberdi-

nak dira, artzain gazta kiloko 1.800 pezetatan saltzen baita eta industriakoa, 1.450 pezeta inguruan.

■ **Non saltzen duzue?**

Merkatua batez ere Euskal Herria da, ekoizten diren gazten %75 hementxe saltzen delako; gero Madril eta Bartzelona ditugu, eta %5 esportatzen dugu, batez ere EEBBetara eta Alemaniara.

■ **Nola ikusten duzu gaztagintzaren etorkizuna?**

Sektorearen datuak ez dira oso baikorrak, artzain eta baserritarrak dagoeneko nahikoa zahartuak daudelako eta ez delako belaunaldi-erreleborik ikusten. Hala ere, baikor izateko datuak ere badaude, Arantzazun adibidez artzain-eskola batek funtzionatzen duelako eta bertan hainbat gaztek parte hartu duelako, gehienak euskaldunak, baina baita gaztelarrak, kataluniarrak, perutarrik eta txiletarrak ere ●



■ Idiazabal Jatorrizko Izendapenaren Kontseilu Arautzailearen gerentea.

ko balioa lortzen duela.

Ardi esne ondu eta pikante samarra-zaporea du, gazi, azido eta goxo samarra. Gazta txikia da, 1-2 kilokoa, azal gogorrekoa, zulo txikiduna eta mami koipetsua duena. Pieza keztatuetan (Euskal Herrikan kanpo gazta keztatua eta Idiazabal sinonimoak dira) kearen gustua du. Egilerik gehienak Bizkaiko Karran-

tza, Urkiola, Oitz eta Gorbeia, Arabako Entzia, Urkila, Elgea eta Gorbeia, Nafarroako Urbasa, Aralar eta Andia eta Gipuzkoako Goierri, Aralar eta Ernioke mendi edota mendilerroetan biltzen dira. 2000. urtean Jatorrizko Izendapenaren barruan Zumitx Elkarteak sortu zen, "Latxa Gazta Etiketa Beltza" izeneko gazta berezia merkaturatu asmoz.



■ **Gaztaren prezioan garrantzitsua da artzainak edo enpresak egina izatea.**

## ERRONKARI, BAILARA BEREZIKO BATEN ESENTZIA.

Tradizioak dioenez, "Erronkariarrak oso ongi ezagutzen du gazta onaren sekretua, odolean idatzia daramalako", eta milaka urtetan zehar belaunaldiz belaunaldi igorri den ohitura honi jarraikiz, Nafarroako ekialdeko Erronkariako bailaran egiten den gazta honek 1981ean Jatorrizko Izendapena lortu zuen, Espainiako lehena izanik.

Nortasun handiko bailara piriniar honetako jendeak eskuz landua, soilik esnea, gatzagia eta gatz erabiliz, Nafarroako latxa eta "rasa" arrazetako ardi esneaz burutua, emaitza bizpahiru kiloko gazta koipetsu eta lehorra dugu, azal eta mami gogorrekoa, zulo txikiduna eta nahiz eta oso lehor egon sekula apurtuko ez dena. Zaporeari dagokionez, indartsua, gogorra, koipetsua eta pikante samarra, bere usain ezagunarekin batera inoiz galdu ez duen nortasuna ematen dio.

## OSSAU-IRATI, IPAR PIRINIOETAKO ZAPOREA.

Pirinio Atlantikoak delako departamenduan, hotz, Ipar Euskal Herri eta Biarnoko mendi eta baila-

retan, gazta leun, ez azido ez garratz hau ekoizten da. Euskal Herriko gazten artean Jatorrizko Izendapena lortu zuen lehena dugu, 1980an, eta Iparraldeko abeltzaintzan urrats hau garrantzi handikoa izan da. Euskal, Biarno zein manetx arrazetako ardien esneaz egiten da eta gutxienez hiru hilabetez ontzen da, azkenean lau zapabost kiloko (bizpahiru kilokoak eta zazpi kilokoak ere badira) pieza zilindrikotan plazaratzeko. Gazta koipetsua da, azal gogorrekoa eta mami bigun samarrekoa. Jatorrizko Izendapenaren Elkarte Arautzaileak aurrera eraman dituen ekimen interesgarrien artean, Ossau-Itati Gaztaren Ibilbidea dugu, Iparraldean eta Biarnon zehar ekoizpen zentroak lotzen dituen ibilbide turistikoa, alegia.

#### GAINONTZEKO ARDI GAZTAK.

Ikusi dugun moduan, gure herriko gaztarik garrantzitsuenak ardi esneaz egiten dira, baina jatorrizko izendapena dutenez gain bestelakoak ere tradizio handikoak dira. Besterik gabe, Hegoaldean ardi gazta eta Iparraldean ardi gasna izena hartzen dutenak, esaterako, aurrekoen antzekoak dira, esne hutsezkoak eta prentsatuak, eta hiruzpalau hilabetez ontzen direnak. Beste alde batetik gaztanbera aurki dezakegu, ardi-esnearen gazuraz eginiko gazta freskoa. Berez gaztaren azpiproduktua da, erdigaingabetu eta erdi-koipetsuaren artekoa, usain leunekoak eta esnetsua. Batez ere, Nafarroako iparraldean, Gipuzkoan eta Ipar Euskal Herrian egiten da.

Gaztanberaren aurkakoa, aldiz, gaztazarra izan liteke, Hegoaldean egiten den eta zapore oso indartsua duen ardi gaztaren krema. Gazta oso zahartuekin egiten da, berauek merkaturatzeko, eta gaztok esnearekin nahastean lortzen dira, emaitza den krema kristalezko ontzietan saltzen delarik. Eta nola ez, gaztaren azpiproduktuen artean agian ezagunena den gatzatu edo mamia aipatu behar dugu, ardi esne hutsez eta gatzagi naturalez buruturiko esne produktu erdi-solidoa. Lehen kaiku bateko esnean harri berotuak sartuz lortzen zen, eta horrek ohitura bihurtu zen zapore erre ematen zion;

behi-esneaz ere egin daiteke baina hau zapore leunagokoa izaten da.

Azkenik, ezin dugu Lapurdiko Ahurti herrian dugun Belloc-eko Abadiako monjeek egiten duten gazta aipatu gabe utzi, oso ondua (sei hilabete), koipetsua (%60) eta tamaina handikoa (5 kg.), baina ezeren gaitetik bakarra bihurtzen duen azukre moduko zapore goxoa erakusten duena.

**BEHI GAZTAK.** Gure geografian arruntena ardiaren esnea erabiltzea bada ere, saltzen ez den eta soberan geratzen den behi esneaz ere gero eta gazta gehiago ekoizten da. Antzera lantzen dira, freskoa izan ezik, eta urte osoan egin badaitezke ere udakoak izan ohi dira onenak, orduko belardiak ugari eta aberatsak baitira. Lehenbizi Vache-Brülle gazta aipa dezakegu, Ipar Euskal Herrian behi esne hutsez eta eskuz eginikoa, hiru aste-ko ontzea duena eta %50eko koipea. Zapore leun eta azido samarra du eta adituek gerezi konfituraz jatea aholkatzen dute. Gainera, behi gazta freskoa dugu, hau da, azalik erakusten ez duena eta

prentsatu ez dena. Batez ere Iparraldean hartu ohi da eta egun batean eginez gero biharamunean saltzen da, berehala jateko. Oso zapore leuna du eta gozokiren batekin jan ohi da, ezti, irasagar ala gerezi konfituraz

esaterako. Esne gordinekoa ere ohi-koagoa da Ipar Euskal Herrian Hegoaldean baino, eskuz egin eta prentsatu aurkezten dena. Gutxi ondudak eta azal leunekoak (hilabete-koak) edo erdi ondudak eta azal gogorrekoak (2-3 hilabete-koak) izan daitezke, eta pisu eta itxuran ere alde nabarmenak izaten dira (1-3 kilo) batetik bestera; zapore leunekoak, koipearen aldetik %50 inguruan ibiltzen dira.

**AHUNTZ GAZTAK.** Gazta hauek ohikoagoak dira Iparraldean Hegoaldean baino, nahiz eta orotara bere ekoizpena txikia izan. Motarik ezagunena Crottin delakoa da, ontze epealdi ezberdinetan jan daitekeen gaztetako bat, freskoa lehenago ala krematsuagoa beranduago agertzen baita. Gero eta ondugo orduan eta zapore indartsuagoa du ●

### 1998an EAEko gaztandegien salmenta garbiak 2.535 milioi pezetakoak izan ziren

Hitzek obrak behar



Pour une école qui intègre la différence

Ezberdintasuna integratzen duen eskola baten alde

Donibane Lohizune - Jai-alai - 21etan

Kepa Junkera Urdangarin

martxoaren 31 larunbata  
samedi 31 mars


Seaskako Integrazio Batzordea  
Alozeko ikastola • Hazparneko ikastola  
• Donibane Lohizune-Ziuruko ikastola • Ereintbil

INTEGRAZIO BATZORDEA - KASTOIA ■ 16, AV. LABREI ETORBIDE 64500 Donibane Lohizune

Kontzertua

Donibane Lohizune - Jai-alai - 21etan

Kepa Junkera Urdangarin



martxoaren 31 larunbata  
samedi 31 mars

Ondotik : Erromeria Berako "Siskuitz Txaranga"



*Gazta egiteko oinarriak ez dira milaka urtetan aldatu. Antzinako artzainek, gaur egungo baserritar gazteek edota milaka pieza ekoizten dituzten industrietan erabiltzen duten prozesua oso antzerakoa da. Aldatzen diren bakarrak tresnak eta kopuruak dira.*

## ESNE ONAK EZ DU GAZTA TXARRIK

**N**ikolas Seguroiak, Arantzazuko Artzain Eskolako tutorea denak, adierazten digun bezala "edonola eginez, garrantzitsuena garbitasuna da, norberarena, makinariarena, tokiarena eta, batez ere, esnearena. Gazta txarraren errua ia beti esne txarrarena da, esne onaz gazta egitea ez delako horren zaila. Industrietan ere aitortzen dute artzain gazta beti hobea izango dela, norbere esnari izugarritzko arreta jartzen zaiolako". Berak kontatu digu gure herrian nagusi den Idiazabal gazta batzuek eta besteek nola egiten duten.


**GAZTAGINTZA ANTZINAKO ERARA.** Aspaldiko artzain edo baserri-tarrek ardia jetzi ostean (esnea 36° inguruan irten da), egiten zutena zera zen, azkar ibiliz gero esnearen tenperatura 30-32°-ra jaistean zuzenean arkumearen gatzagia bota. Honen ondorioz esnea mamitzen zenean (eskuarekin ukitu eta eskuari eransten ez bazitzaion nahikoa

mamitua zegoela esan nahi zuen), malaxta izeneko makila mota batez txikitu egiten zen, ahalik eta gehien (tartean gazta botatzen zitzaion, gazta geza atera ez zedin; bestela, gazta jada prentsaturik gatzunetan edo ur gazian sartzen zen hainbat orduz), eta atsedean hartzen uzten zitzaion, mamia ontziaren behealdera eta gazura goialdera mugitzen joan zitezten. Hau guztia sutondoan egin ohi zuten, gaur egun dakigun moduan gazura ongi ezabatzeko tokia gutxienez 20°-ra egon behar delako.

Mamia zapaldu eta puskatu egiten zen, "zumitz" izeneko egurrezko molde berezitan sartu ahal izateko. Hauetan gatzatu zatitua sartu eta eskuekin zapaldu eta estutu egiten zen, zumitza bete arte. Orduan itzulia ematen zitzaion eta estutzeari berrekiten zitzaion, ahalik eta itxura trinkoena lortu arte. Hasieran ez, baina denborarekin prentsak ere erabiltzen hasi ziren lan honetan. Hurrengo urratsa gaztak "gazanola" izeneko oholetan jartzea zen, egunero gatzari itzulia eman eta

ohola garbitu behar izaten zelarrik. Gainera, txaboletan edota baserrietan tximinia egokirik ezak gatzak keztatzea ekartzen zuen. Garai horretan, behin hilabetera helduta eta azala egiten hasia, geraturiko gazta (gutxienez %20 galdu egiten ziren eta animaliei ematen zitzairen) jaten edo saltzen hasten zen, gaur egun baino denbora gutxiago ontzen uzten baitzen.

**GAURKO ARTZAIN MEKANIZATUAK.** Gaur egungo baserritar gazte gehienek ardiak mekanikoki jezten dituzte, esnea zuzenean tanke batera igarotzen da (gehienez 4°-ra) eta hortik edukinontzi handi batera, gazta egiten den ontzira, hain zuzen. Bertan, lehenengo malaxta gabe, lira edo metalezko soka ilara automatikoa erabiltzen da, mamia txikitu baino uniformeki ebakitzen delako. Ondoren mamia plastikozko molde batzuetara -barruan trapu bat izaten dute, gazta inguratze- pasatzen da (hemen ere antzinako zumitzak baztertuak geratu dira), eta bata bestearen gainean jartzen



■ Ekoizpen industrialari esker gazta kopuru handia egiten da.



■ Era tradizionalen eginiko gaztari arreta handiagoa jarri ohi zaio.

dira, prentsa hidrauliko batez pixkanaka elkarki presio egin eta mamia estutzen joateko. Barruko trapua aldatu, gaztari itzulia eman eta beste pare bat orduz (aurreko 4-6en ostean) prentsatzan jarraitzen da. Azkenik, beste hainbat ordu gatzunetan sartuta eduki ostean 3-4 egunetan azala sortzen uzten zaio, eta azkenik hotz ganbaran (10-13° tara) gutxienez bi hilabete ontzen uzten zaio, jan edota saltzeko moduan izan baino lehen.

### EKOIZPEN INDUSTRIALA.

Gazta enpresa handien ekoizpen prozesuak ez du gaur egungo baserritar edo kooperatiba txikiekiko alde nabarmenik erakusten, ekoizpen kopuruan edo makinaria handiagoa erabiltzean ez bada; funtsez, prozesua berdintsua da. Erositako ardi esne hutsa altzairu herdoilezinezko upeletan 30° taraino berotu, artxo gatzagia erabiliz 30 minututan mamitzen utzi, liraz arto alearen tamainako zatitxotan moztu, ahalik eta gazurik gehien ateratzeko zatitxoak irabiatu eta upela 37° taraino igo, mamia behealdera joaten utzi, trinkatu, gazta banako zatitan ebaki, moldetan sartu, prentsari sei bat ordu eman, gatzunetan -berriz- egun oso bat, eta azkenik umotze-ganbaran

(10°ko tenperaturan eta %90eko hezetasunean) gutxienez hiru hilabete gorde. Hortik saltokira eta gure mahaira.

### ERRONKARIKO GAZTA, ABENDUTIK UZTAILERA.

Aurreko gutzia Idiazabal gaztari badagokio ere, Nafarroan egiten den Erronkariko gaztak ere antzeko lantzea du, eta ezberdintasun nagusiak denbora epetan eta tenperaturetan daude. Horrela, Idiazabalek mamitzeko 20 eta 45 minutu artean behar baditu, Erronkariren kasuan gutxienez ordubetez egin behar da baina ez dago gehieneko eperik. Gatzagiaren tenperatura, beste alde batetik, Idiazabalen kasuan 28-32° artean egon behar bada, nafar gaztarenak 32-37° artekoa behar du. Idiazabali gutxienez hiru hilabete ontzen uzten bazaio, epe hori lau hilabetera luzatzen da Erronkariren kasuan. Kontuan izan behar da, gainera, Idiazabal egiteko garairik zehazten ez bada ere, Erronkari ezinbestez abendu eta uztaile artean egin behar dela ●

### NAHI BEZALAKO GAZTA

Gazta ezberdinak hainbat ikuspunturen arabera sailka daitezke, hala nola, ur-eduki, koipe-eduki, azal, mamia edota erabilitako esnearen arabera.

#### Ur edukia

Gazta gaingabetu batek (koipe edukia kontutan hartu gabe) duen ur proportzioa da: honen arabera gazta baten tinkotasuna ezagutu dezakegu:

**Mami bereziki gogorrekoa**- %51 baino gutxiago.

**Mami gogorrekoa**- %51-54

**Ebakikoa**- %54-63

**Mami bigun samarrekoa**- %61-69

**Mami bigunekoa (freskoa)**- %67tik gora.

#### Koipea aterakin lehorrearekiko

Aterakin lehorrearekiko (ur osoa ezabatu ostean) zenbat eta koipe gehiago izan, gazta krematsuagoa irtengo zaigu:

**Gaingabetua**- %20 baino gutxiago.

**Erdigaingabetua**- %20-30.

**Erdi-koipetsua**- %40-50

**Koipetsua**- %60-75

**Oso koipetsua**- %75etik gora.

#### Azala

**Azal gogorra**- Idiazabal, Roncal, Ossau-Irati, Iparraldeko ardi gasna eta Hegoaldeko ardi gazta, Iparraldeko ahuntz gaztak, eta hiruhilabetezko umatzedun behi gaztak.

**Azal kezatua**- Idiazabal.

**Brule azala**- Ipar Euskal Herrian haritz sugarraz erretako azala. Gazta biguna- Hego Euskal Herrian esne pasteurizatua eginiko eta gutxi umatutako behi gaztak.

**Azal urdindua**- Hegoaldeko ahuntz-gaztetan bakterio-kapa zuria agertzean.

**Azalik gabekoak**- Gazta freskoak, gaztanbera, behi gazta edota ahuntz esneko "crottin" bezalakoak.

#### Mamia

**Trinkatua**- Euskal Herriko gazta ia guztiak.

**Egosia**- Hegoaldeko behi gaztak (esnea 40°tik gora berotua).

**Erdi egosia**- Gehienez 38° tara berotutako esneaz (esne gordinekoak), hots, Idiazabal, Roncal, ardi gasna, Ossau-Irati eta behi gaztak.

**Trinkatu gabea**- Gazta freskoak, azal urdinduko ahuntzarenak eta "crottin" izenekoak.

#### Esnea

**Animaliaren araberakoa**- Ahuntz, ardi edo behi.

**Gordina**- 37°tik gora berotzen ez dena.

**Pasteurizatua**- Egositako esnea.



# CHEESE, FROMAGE

## Italia



### MOZZARELLA

Bufalo-eme esneaz egiten da; beratu lantzea oso gorabeheratsua da, eta, beraz, arrakasta langileen eskuetan dago. Sukaldaritzan oso erabilia da.



### PARMESANO

Erregioaren arabera izen bat edo beste hartzen du, baina ezaugarriak berdinak dira. Bere ekoizpena arau zehatz eta aldaezinetara lotua zaie, hala nola, apirilaren 15ean hasi eta azaroaren 11n bukatzea.

Ontzeko bi eta lau urte bitartean behar ditu eta piezen bizitza 20 urteak arte hel daiteke. Italiar sukaldaritzan txoko guztietan ageri da.

## Espainia



### CABRALES

Asturiaseko gazta indartsu eta goxo honetan ardi, behi eta ahuntz esnea nahasten da, familia bakoitzaren sekretua den proportziotan. Ontzeko kobazulo oso hotz eta haizetsu batzuk erabiltzen dira, eta beste leku batzuetan ekoizten saiatu diren arren, ez dute lortu kobazulo berezi hauen baldintzak errepikatzea eta horrelako gaztanik egitea. Espainiako gaztarik zaharrenetakoa da eta erromatarrek jadanik berari buruz idazten zuten.



### MANCHEGO

Mantxako lurretan sortua, gaur egun Gaztela osoan egiten da eta ardi gazten artean Espainian salduena da. Duela gutxi arte erabat artisau lan, gaur egun industria indartsuek burutzen dute, eta kardabera lorea erabiltzetik laborategiko gatzagia erabiltzera igaro da.

## Frantzia



### BRIE

Biguna, oso goxoa eta gazia. Jetzi berria den behi esnari bezperako esnegaina gehitzen zaio. "Gazten Erregina", XV mendean jadanik ezaguna zen, eta Saint-Amant olerkariak "Baco jainkoaren irasagar haragia" izendatu eta bere ospea urrezko letratan idaztea merezi zuen gazta bakarra zela zioen oda bat eskaini zion. Hainbat tamainatan ekoizten da, metro erdiko diametroa duten piezekin.



### CAMEMBERT

Brie bezala landua, legamia-mikrobioak eta, ondorioz, zaporea ezberdina ditu. Nahiz eta aspalditik egina izan, gaur egungo perfektzioa Normandiako Camembert herrixkako Harel izeneko etxalde andreari zor dio. Frantzian gazta honek duen garrantziaren lekukoa, XVIII. mendeko emakume honi bere herrian eraiki zitzaion monumentua da.



### ROQUEFORT

"Gazten erregea" (Karlomagno enperadorearen eta beste askoren gustokoena), bitxikeria gisa ogiaren mamia gehitzen zaion (lehortu, hauts bihurtu eta lizun berdexka berezia garatzen duena) gazta bakarra dela esan behar da. Umatzen 30-40 egun utzi behar zaio, baina zaporea oso indartsua gustuko dutenek urtebete utz dezakete. Gaur egun hainbat herrialdetan ekoizten da, eta Frantzian bertan antzeko asko daude.



# KAESE, QUESO...

## Holanda



### EDAM

"Bola gazta" izenez ezaguna, egun Europa eta Amerikako herrialde gehienetan ekoizten da. Holandako behi ospetsuen esnea erabiliz, bere lanketan hainbat molde eta gelatatik igaro behar dute, piezak banaka zaintzen direlarik. Merkaturatu aurretik bija izeneko landare tintez margotzen dira, beren ezaugarria den kolore gorria emateko.

## Norvegia



### GJETOST


Norvegiako gazta nazionala, gazuraz egina dago, ez mamiaz, eta ez dago ontze eperik. Emaizta, zapora leun, arraintsu eta karamelutsua. Ez dugu antzekorik aurkituko.

## Britainia Handia



### STILTON

Gazta honen ezaugarria zera da, jaterako orduan bere azala zulatu eta Xerez edo Oportoko ardoa botatzen zaiola. Koilaraz jaten den gazta bakarra da.



### CHEDDAR

Munduan zehar gehien jaten den gazta-mota, danbor itxura hartzen du eta pare bat hilabetetan ontzen uzten zaio.

## Suitza



### GRUYERE

Emmenthal-en antzera landua, benetako Gruyere-ak ez dauka zulorik, nahiz eta jende gehienak gazta hau eta zuloak sinonimotzat hartu. Arazoa zera da, suitzarrak lehenbizi Emmenthal esportatzen hasi zirela, eta gero Gruyere, eta bien zaporea antzekoa denez kanpoko erosleak zulorik gabeko Gruyere faltua zela uste izan zuten. Ondorioz, esportaziorako zuloak egiten zaizkio, eta gaur egun munduko Gruyere ia guztiak zulodunak dira, suitzarrek jaten dituztenak ezik.



### EMMENTHAL

Hau ere (Roquefort-i bezala) "Gazten errege" izendatu da, lantzean jartzen den arreta, kalitate eta ospeagatik. Zulodun gazta ezaguna dugu hau, eta egiteko zortzi mikrobio mota ezberdin erabil daitezke. Pieza handitan ekoizten da (80-110 kilo) eta bere bizitza izugarri luzea izan daiteke. Esaterako, duela urte batzuk, Bernako erakusketa batean 1847ko pieza bat aurkeztu zuten.

## Alemania



### BIERKAESE

Izenaren jatorria, "Garagardo gazta" alegia, alemaniarren ohitura batetik dator, hau da, gazta garagardoan sartu eta jatetik. Gazia, zazpi hilabetetan zehar oso baldintza hezetan ondu behar izaten da.

# KWIN-EK NAHI DUZUNA TOPATUKO DIZU ZURE PC-AN

*Kwin izena du eta Adur Software Productions (ASP) enpresak ekoiztu du. Erabiltzailearen ordenagailuan dauden Microsoft Word, QuarkXPress, Macromedia Director eta Adobe Acrobat-eko fitxategiak modu erraz eta azkarrean bilatuko ditu eta abantaila anitz eskainiko digu.*

**N**ork ez du behin ere bere ordenagailua berrantolatu behar izan dokumenturen bat bilatzen hasi denean? Denboraren poderioz lan guztiak metatzen ditugun "karpeta" horiek nahasten joaten dira eta egun batean dokumentu jakin bat bilatzeko gai ez garela konturatzen gara. Kwin horrelako arazoak konpontzera dator. Hitz erroetan oinarritutako bilaketa sistema baten bidez, gure ordenagailuan (PCa izan behar du) nahasmena nagusi izanda ere, gure lanak azkar eta erraz aurkitzeko gai izango gara hemendik aurrera.

Adur Software Productions (ASP) enpresaren jarduera nagusia enpresen gestiorako softwarea sortzea baldin bada ere, hizkuntz ingeneritza arloa lantzen duen lan talde bat ere badu. Alor horretan eginiko ikerketa eta esfortzuen ondorioa izan da Kwin.

ASP-ren ardura nagusienetako bat betidanik euskaraz bilaketak ahalik eta modurik errazenean prestatzea izan da, gure hizkuntzak dituen ezaugarri bereziak errespetatuz. Euskaraz atzizkiez osatua dago; gaztelarak, ingelesak edo frantsesak ez duten berezitasun bat, alegia. Hori kontuan izan dute Kwin-en sortzaileek. Horrela, bilaketak euskaraz era lematizatuan (erroetan oinarrituta) egiteko prestatu dute produktu hau, sistemak itzultzen dizkigun dokumentuen artean

"zaborrik" sortu ez dadin eta guk aurkitu nahi genuena erraz eta azkar topa dezagun.

Kwin-ek funtsezko lau ezaugarri ditu: bata, arestian aipaturiko bilaketa lematizatuei dagokiona; bestea, indexatua izatea (bilaketa mota hori sekuentzialaren aldean azkarragoa da); hirugarrena, dokumentuetan nabigatzea ahalbidetzen duela eta laugarrena, guk nahi bezainbeste bilaketa multzo osa ditzakegula. Joxerra Aizpurua ASP-ko ordezkariak adierazi duenez, merkatura ezaugarri hauek guztiak dituenik ez da kalera oraingoz.

Nahiz eta produktu hau sortzerako orduan ASP-koek euskaraz abiapuntuz hartu, Kwin-ek beste hizkuntzetan bilaketak egiteko ere balio du. Horretarako nahikoa da aurkitu nahi dugun hitza gehi asteriskoa edo galdera ikurra bezalako karaktere bereziak jartzea.

Kwin-en erabiltzaile bagara gauza bakarra izan behar dugu kontuan, dokumentu bat gordetzean indexatu egin behar dela, besterik ez. Momentuz, dokumentu bat ezabatuz gero, Kwin-ek erabiltzen duen datu-basean ez da desagertzen, baina Joxerra Aizpurua dio hori hurrengo bertsioetan aldatzeko asmoa dutela: "Gure asmoa

da, hurrengo bertsioetan beste hizkuntzetan ere (gaztelania, ingelesa eta frantsesa) bilaketa lematizatua egin ahal izatea eta sistema osoa berrindexatzeko aukera egotea".

Oraingoz, Word-erako bilatzailea bakkirik eskura daiteke. Baina urte honetan bertan gainontzekoak ere atera nahi dituzte (QuarkXPress-erako, Macromedia Director-erako eta Adobe Acrobat-erako). Word-erako Kwin [www.kapsula.com](http://www.kapsula.com) helbidetik jaitsi daiteke doan eta gainontzekoak salgai jarriko dira. Jaitsiera astuna dela ohartarazi behar da (7 Megabyte), bilatzaileak hitzegi oso bat baitu barnean. Baina behin gure disko gogorrean dugunean instalatzea oso erraza da. Berak egiten du guztia.

Baina zertarako behar dugu Kwin, Word-ek eta Windows-ek beren bilatzaileak badituzte? Alde batetik, Kwin-en guk nahi ditugun multzoak edo datu-baseak osa ditzakegu eta ez dugu zertan bilaketak unitate edo "karpeta" konkretuetan egin behar. Bestalde, Windows-en bilatzaileak ez du indexatzen, Kwin-ek bai. Azkenik, Word-eko bilatzailearekin dokumentu bakar baten barnean begiratzen dugu eta bilaketa sekuentziala da. Aldiz, Kwin-ek sailkatuak ditugun dokumentu guztietan begiratu eta



• Adur Software Productions enpresak garatu du Kwin programa.

## — Kwin abian jartzeko —

Kwin eskuratzeko eta ondoren bilaketak egiteko, hona hemen pausoz-pauso egin behar dena:

✓ Lehenik eta behin, [www.kapsula.com](http://www.kapsula.com) helbidean sartu behar da. Kwin jaisteko eskatzen diren datuak ematea ez da beharrezkoa. Hortik aurrera ez da ia ezer egin behar, "eskuratu doan Kwin 1.2" jartzen duen lekuan klik egin eta aplikazioa jaitsi zain egon. Behin instalazio prozesua amaitzen denean honako bidea jarraitu behar da, "Hasi-Programak-Kwin". Ondoren, Word barnetik ere bertara iristea nahi baldin badugu zera egin behar dugu, Kwin irekita dagoela, "Fitxategia" aukeratu "Konfigurazioa" eta ondoren "Worderako Kwin instalatu". Horrela, bi bide izango ditugu Kwinera iristeko: bata "Hasi" menu nagusitik eta bestea, Word barnetik "Tresnak" menuaren bidez.




✓ Hurrengo pausoa multzoak egitea litzateke. Nola? "Fitxategia-Base testualaren administrazioa-basea sortu" aukerarekin. Osatzen dugun multzo bakoitzari izena eta deskribapena eman behar zaio. Horretaz gain, tamaina ere aukeratu behar da. Hiru tamainen artean erabaki beharko dugu: Arrunta (32.767 dokumentu), Handia (8.388.805 dokumentu) eta Oso handia (2.147.483.647 dokumentu). Erabiltzaile arruntten kasuan lehenahoa izan ohi da.

✓ Behin multzoak osatuta dokumentuak bertan sartu behar dira. Horretarako dokumentua amaitua dugunean Kwinera jo eta honako bidea egin behar dugu: "Dokumentua-Indexatu-Word-Zerrendan gehitu-Indexatu". Hortik aurrera guztia berak egiten

du. Orain arte eginak dauzkagun dokumentuak Kwin-en bilaketa sisteman sartu nahi izanez gero berriz, pazientziarekin hartu beharko genuke eta banan-banan dokumentu bakoitzarekin orain azaldutako prozesua jarraitu. Behin lan hori eginda ordea, ez dugu beraien antolaketari buruz gehiago arduratu beharrik izango.

✓ Bilaketak egiteko berriz, lehenik eta behin multzoa aukeratu behar da eta "bilatu" botoiari eman. Ondoren aurkitu nahi dugun hitza sartuko dugu eta behin bilaketa egiten duenean "ireki" botoiari ematen badiogu, lehiotxi bat zabaltzen digu. Bertan bilaketaren inguruko datuak eskaintzen dizkigu: zenbat dokumentu aurkitu dituen, guztira zenbat agerpen dauden eta dokumentu bakoitzean zenbat aurkitu diren. Gainera, lehiotxi horrek bilaketaren emaitza bihurtu diren dokumentuetatik nabigatzeko aukera eskaintzen digu. Bilaketa bikoitzak edo hitz gehiagokoak egiteko, hau da guk jartzen ditugun hitzak dokumentu berean aurkitzen diren kasuak itzultzeko, "and" edo "&" ikurra erabili behar da; bat edo bestea bilatzeko berriz, ALT GR+1 (|) erabil daiteke hitzen artean, eta hitz kateak aurki ditzan komatxoak erabili behar dira, adibidez honela: "normalizazio lingüistikorako plangintza".

Informazio gehiago nahi izanez gero jarri harremanetan Joxerra Aizpurua ASPko ordezkariarekin.  
**Tel: 943-371849** edo **e-maila: kapsula@kapsula.com**



• Nahi dugun hitza aurkitzeko lehenengo non bilatu erabaki behar da. Gero, Kwin-ek egingo du bilaketa.

bilaketa lematizatua eta indexatua egiten du. Aukerak beraz, anitzak dira.

### HIZKUNTZA "KAPSULA" BATEAN

Adur Software Productions (ASP) enpresa urtetan zehar euskara eta informatika batzen saiatu da, hau da "euskararen ingenieritza" landu du eta horren inguruan hainbat ikerketa egin du. Duela urte batzuk ikerketa horien ondorioz sortutako produktuak merkaturatzen hasi zen. Erabaki hori hainbat gogoeten ondorioa izan zen eta horiek ongi laburbiltzen ditu Joxerra Aizpurua ASP-ko ordezkariak: "Bazetozen teknologia berriak, bazetorren internet eta hainbat sare, hainbat sistema informatiko, guk euskara maila horretara

eraman behar genuen. Baina ez bakarrik euskararen mesederako. Euskara da gure abiapuntua, gure motorra, baina hor garatzen dugun teknologiak beste hizkuntza batzuetarako ere balio beharko luke. Azken finean, gizarte eleanitz batean gaude eta ohituak gaude euskararen kasuan beste hizkuntzetako teknologietatik xurgatzera. Zergatik ez euskaratik abiatu?". Gauzak horrela, ASP-n Ikerketa eta Garapen (I+G) talde bat osatu zuten eta Eusko Jaurlaritzak homologatu egin zien. Horrek abantaila ugari ekarri dizkie, alde batetik administrazioaren aldetik nolabaiteko onarpena eta bestalde hainbat dirulaguntza. "Ez dago jende asko ikerketa

onarpenik duenik Euskal Herrian eta gutxiago euskarari dagokionez", dio Joxerra Aizpuruak.

Ikerketa eta Garapen atalak bultzada handia jaso zuen onarpen horri esker. Gauzak horrela, hizkuntzaren inguruan landutako teknologia guztiak izen baten menpean bildu zituzten: "Kapsula". Bilatzaileekin hasi ziren, sistema konplexuak eta osoak garatuz, enpresen beharrei egokituak. "Baina konturatu ginen sistema konplexu horiek bazituztela atal arruntagoak, jende gehiagorengana heltzeko modukoak", dio Joxerra Aizpuruak. Ideia hori abiapuntutzat harturik jaio zen Kwin, "Kapsula" ren haur txikia.

Arantxa Urretabizkaia

# “Idazkera hotza, garbia, bilatzen dut: diamante bat”

P E R F I L A

Maritxuk (gimnasiako monitorak) eta Ghandik bere bizitza aldatu dute, beste emakume bat da. Aitaren, amaren, semearen eta espiritu santuaren egun komertzialak asmatu zirenetik larrosak, bonboiak, edo lurrinak oparitu behar diren honetan, Arantxak denbora oparitzeko luxu garestia hartzen du bere ajendako ekonomian. Autoan, bide ertzetako iragarki erraldoi-trafikoaren erdian, imagina dezaket Arantxaren argazkia, bata eta mantalaren etxekoandretasun sentsualaz sukaldean idazten; eta neoizko eslogana: “Oparitu ezaiozu diamante bat. Zeure buruari”.

Testuak: Estitxu Eizagirre /  
Ixiar Eizagirre  
Argazkiak: Dani Blanco

**A**ma eta seme-alaba arteko harreman korapilatsuak kontatzen dituzu zure liburuetan. Horrela ikusten dituzu?

Giza-harremanak ez zaizkit bereziki zailak, uste dut nahiko trebea ere banaizela, baina dena konpontzen dut lana eginez, eta denbora eskainiz. Maite duzun jendea-ri zure denbora ematea, eta "gaur oparitu-ko dizut arratsalde bat" esatea asko kostatzen zait, 40 urte. "Haizeak eramán zuena" filmaren hasieran harri bat azaltzen da, eta bertan esaldi bat grabatua dago: "denbora da bizitzaren osagaia". Bizitza denbora da eta ez besterik.

■ **Istorio guztietan denbora oso kronometratua, zehaztua dator...**

Bai, ez dut propio egiten, nonbait nire obsesio bat izango da. Nik idazten dut iruditzen zaidana, baina gero nire maniak zeintzuk diren kanpotik ikusten da. Askotan esan didate, "zer mania duzun usaimenarekin, askotan aipatzen duzu!". Eta ziur asko denborarekiko ere mania bat badut, bai. Ez naiz sekula berandu irjsten inora, horrekin histerika bat naiz. Etxeko gizonek telefono mugikor bat oparitu didate, horretarako bakarrik: ez daramat sekula piztua, norabait berandu noanean deitu eta



## “Argitaratzea jende aurrean defentsarik gabe jartzea da”

abisatzeko soilik erabiltzen dut. Niretzat hori trauma bat da, iruditzen zait ez didatela sekula itxarongo.

### ■ Eta zuk badakizu itxaroten?

Bai, aditua naiz! Puntuala izanik, 50 urte daramatzat itxaroten...

### ■ Kritikariak mesede edo kalte egin dizutenari begiratu gabe, asmatu dute zuk esan nahi zenuena igartzten?

Kritikariak arrazoi izan dezakete, nik ez dut horretan dudarik. Baina kritika bat irakurrita, nik ez dut ikasi gaizki egiten dudana ondo egitea. Jaso dudan kritikarik mingarriena, izan da: "liburu hau kaka bat da, eta zuk erretiratu egin beharko zenuke betirako". Hortik zer ikasi dezakezu? Liburuak hobetzen ez. Ikasi dezakezu pazientzia, "apaltasuna", "tolerantzia", "dotoretasuna"... baina hobeto idazten ez. Kritikaria, azken batean, irakurle bat gehiago besterik ez da. Bere iritzia idatziz jartzen duen irakurle bat. Berea interpretazio bat da, eta beste irakurle batena beste bat.

### ■ Zer da liburu bat interpretatzen jakitea?

Jendeak askotan komentario triste hau egiten dizu: "bukaeraraino ulertu dut!"

Ongi, primeran, baina ulertzeaz gain, gustatu zaizu ala ez zaizu gustatu? Oraindik badaogo halako haustura bat idazle eta irakurleen artean, eta horregatik oso maiz irakurleek ez dute ulertzen. Horrek kezkatu egiten nau. Niri ere gertatzen zait askotan, hasi liburu bat irakurtzen eta ez ulertzea. Eta pentsatzen dut "norentzat egin du hau?", zeren ez dut uste ni irakurle arrunt-arrunta naizenik.

Liburuak bi motatan banatzen dira: batzuek dira mahai ganean irakurtzekoak. Beraz lan egitekoak, hiztegi bat hartu, arretaz jarri, eta gauza bakoitzari zer interpretazio eman pentsatzekoak; eta beste batzuek dira sofan jarrita irakurtzekoak.

Niretzat irakurtzea gozatzea da, eta gozatzeko bi hiztegi behar badituz, hori jada

beste zerbait da, lan egitea.

### ■ Zuk irakurlearengan pentsatzen duzu idazterakoan?

Zentzu horretan behintzat bai, ez dut ezer korapilatu nahi. Eta idazterakoan ez



dut sekula hiztegirik erabiltzen, gero datoz txukunketak. Gogora datorkidan bezala idazten saiatzen naiz. Nahiko oztopo

badaukagu bestela ere. Nire belaunaldiko gehiengoa ez dago alfabetatua, ni neu neure kasa alfabetatu naiz. Eta aldez liburu asko hizkuntzakeria dira. "Beno, bai, liburu horrekin frogatu didazu zure hizkuntza gaitasuna, eta orain kontakizuna zer?". Zeren literatura kontakizun bat da, ez da arrisku salto hirukoitza egiteko; zuk kontakizun didazu istorio bat eta nik irakurri egiten dut. Saiatzen naiz eten hori amildegi ez bihurtzen.

### ■ Irakurtzea plazer bat dela esan duzu. Eta idaztea zer da?

Lana. Lanik zailena, kontzentrazio eta baldintza gehien eskatzen dituen.

### ■ Zerk bultzatzen zaitu idaztera?

Idazteko unean lana da, ez zait atsegina iruditzen, baina gustuko zerbait idazten dudanean, horrek ematen didan betetasuna ez dit beste ezerk

ematen. Betetasun sekretoa da gainera. Idatzi ondoren beste gauzak egitera noanean, hitzik esan gabe nik barruan altxor



■ "Oraindik badago halako haustura bat idazle eta irakurleen artean, eta horregatik oso maiz irakurleek ez dute gleratu"

bat daramat, eta da lortu dudan esaldi edo gauza polit bat.

■ **Idaztetik argitaratzera aldea egongo da...**

Koaderno Gorria egiteko tartean 10 urte pasa ziren, eta esaten nion gizonari: "eta orain nork agintzen dit niri argitaratzeko?". Zeren argitaratzea jende aurrean defentsarik gabe jartzea da. Eta badator baten bat esatera "hau kaka bat da eta joan zaitez etxera". Hori gabe bizi naiteke ni! Zergatik jartzen naiz trantze honetan? Ez dakit zergatik den, baina bai arraroa egiten zaidala.

"Zergatik panpox"en kasuan, badirudi perfekzioa dela, zoragarria, baina kaleratu

zenez inork ez zuen esan ezer ere. Errefuertzak orain ditut, ez orduan. Baina nik pazientzia badaukat, oraingo lana onartzeko itxaron ditzaket beste 20 urte, bizi banaiz...

■ **Semea irakurle amorratua izango**

**"Galdera da, zer egin dezakeen literaturak zinemak baino hobeto. Eta zertan aldatu gure kontakera zinemak indar hartu duenean"**

da...

Ez zaio batere interesatzen. Beti esaten diet irakasleei, "zuek asko esan, zer ikusi hura ikasi, eta ez da egia." Etxe hau liburuz josia dago! Hori bai, pozik dagoenean eta nirekin gogoratzen dela adierazi nahi didanean aipatzen ditu liburuak: "ama, ni handitzen naizenean eta aberasten naizenean erosiko dizut etxe bat handi handia dena liburuz josia, sapairaino!". Baina berak legeak agintzen duenean bakarrik irakurtzen du. Gure etxeko legeak agintzen baitu lo egin aurretik irakurri egin behar dela.

■ **Eta zure irakurzaletasuna nola piztu zen?**



Saiatzen naiz eten hori amildegi ez bihurtzen".

Nire kasua kontrakoa zen. Ezkutuan irakurri behar izaten nuen. Amak esaten zidan gehiegi irakurtzen nuela eta ikusmena galduko nuela. Logelan irakurtzen nuen, baina atearen beste puntan, ohea eta lehioaren artean eserita, eta ama logelantzen zenean liburua ohe azpian ezkutatzuten nuen.

■ **"Etxekoandre" zarela aldarrikatu izan duzu, eta kanpoan ere lan egiten duzu. Nola ikusten dituzu soilik etxekoandre direnak?**

Madrilera bizitzera joan ginen orain 11 urte. Noski, gure lagunek ez zuten balio umearentzat, harentzat eskolatik aterata balio zutenak eskolakideak eta parkea

ziren, eta horrek amak esan nahi du. Gainera denak ziren etxekoandre soilik, ez ni bezala, eta 15 urte gazteagoak. Senarrari esaten nion, "banoa soziologia pixka bat egitera". Behatzen nituen, eta egunen batean aterako dut tesia. Oso harrিতා gel-ditu nintzen. Batetik, denak iruditzen zitzaizkidan ni baino zaharragoak, ez zekiten kotxerik gidatzen eta gizonak ermaten zituen batetik bestera... Nik ez dut izan inoiz esparru hori nire inguruan. Nire amak beti egin izan du lana etxetik kanpo, baina ez progresista zelako. Ezkondu zenean heredatu zituen bere suhia eta izeba bat, eta lana egin beharra zuelako irteten zen etxetik. Ni etxekoandre naiz,

## BERE HITZETAN

▼  
"Gehienetan, epaile lanetan ari garenok ez dugu egilearen sexoa igertzen. Eta igerri dugula uste dugun gehienetan, oker gaude".  
Euskaldunon Egunkaria, 2000-03-04

▼  
"Etxekoandre hutsek gizonarengandik kobratu behar lukete soldata, ez guztion dirua biltzen duen zergetatik. Bizitza, gauza askoren artean, tratua da, gurekin bizi direnekin tratua. Etxean beti norbait eduki nahi duenak, ordain dezala luxu hori".  
Euskaldunon Egunkaria, 1999-10-31

▼  
"Ez zait iruditzen ETB gure politikoen politika maila baino kaskarragoa denik".  
Argia, 1991-04-14

▼  
"Nire botua Euskal Herri osoan hauteskunderz hauteskunde aldatzen den bakarrenetakoa da".  
Argia, 2000-02-20

▼  
"Azken liburuaren inguruan banuen titular bat neure barruan, kazetariak galdera aproposa eginez gero irteteko prest: 'tarteka idazten duen etxekoandre bat naiz'".  
Euskaldunon Egunkaria, 1999-10-31

▼  
"Liburu bat amets bat egitea bezala da. Nik ametsa daukat, eta ez naiz egiten dudana interpretatzeko gai. Hori irakurleak egiten du, eta irakurlea kritikoa edo psikiatra baldin bada are gehiago".  
Argia, 2000-02-20

▼  
"Idazteko bizitza guztia daukat eta haur jaio berri bat zaintzeko oraintxe bakarrik".  
Argia, 1991-04-14

## BIZITZAREN PASARTEA

*Gandhi da nire eredu. Ghandiren filma maiz ikusten dugu. Gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko Gandhi hartzeak on handia egingo liguke gure eguneroko bizitzan. Gure umeak eskolako arazoak kontatzen dizkidanean, beti Gandhirekin erantzuten diot: filma berriro ikusten dugu, edo esaten diot, "gogoratzen al duzu sekuentzia bura? Bada horixe, maitia". Nik ere kalean arazoren bat dudanean, bi gauza pentsatzen ditut: bat, Gandhi; eta bi, Maritxu, gimnasiako monitoreak esaten diguna: sentitu behar dugula beti norbait ari zaigula burutik tenka egiten, "tente, ez makurtu". Maritxuk eta Gandhik arazoetatik ateratzen naute.*



■ "Gustuko zerbait idaztean, barruan altxor bat daramat: lortu dudana esaldi edo gauza polit bat".

baina kanpoan ere lan egiten dut. Alde horretatik aukera izan dut galzorian dagoen espezie hau ezagutzeko.

Galzorian dago nahi eta nahi ez, eta ez ideologiaz: batetik, etxe gehienetan solda-

ta bakarra ez da nahikoa, eta nahi ez badute ere, emakumeek etxetik kanpo ere lan egin beharra dute. Gainera, aparailu berriek etxeko lana erraztu eta azkartu dute eta bestalde, gaur ez ditugu sei seme-alaba izaten.

■ **Emakumeen literaturarik ez dagoela esaten da eta sexuak ez duela lana baldintzatzen. Baina emakumeena ez al da saltzeko zigituztat erabiltzen? Hor dago emakumeek idatzitako "Gutiziak" liburua, laxo eta guzti...**

Niri ongi iruditzen zait, besterik ez bada zer ezberdintasun dauden ikusteko, baina azkenean nik badakit zeren alde nagoen: pertsona bakoitzak aukeratu behar duela nola bizi nahi duen, gizona ala emakumea den kontuan izan gabe. Niri esaten zidaten "Zergatik panpox" emakume batek bakarrik egin zezakeela,

eta ez da egia, gizon batek oso harreman estua baldin badu semearekin, idatz dezake liburu bera. Gure adinekoak oso markatuak gaude, baina ni dezente intsumisoa naiz, baita marka horrekin ere.

**"Ni bezain zaharrak lehiaketetara aurkezten dira eta gazteak hor konpon"**

Badakit horrek gizonak kezkatzen dituela baina ni ez. Askotan entzuten ditut Lourdes Oiñederra kritikatzeko, esanez sari asko irabazi dituela emakumea delako. Baina barkatu, orain dela urtebete ni sari-keta berean nengoen, emakumea naiz, eta nik ez dut saririk jaso. Beraz, ez du emakume batek jaso, Lourdes Oiñederrak jaso du.

■ **Literatur lehiaketak sarri kritikatzeko dira. Zer du esateko epaileak?**

Bai, jendeak kritikatzeko ditut, baina lanak aurkeztu ere bai. Bolada batean, ez zegoen ongi ikusia zaharrok, eskarmentu pixka bat daukagunok parte hartzea. Baina ni orain epaimahaikoa izan ohi naiz, eta ikusten ditut ni bezain zaharrak euren lanak aurkezten, eta gazteak hor konpon. Nik uste dut lehiaketak gazteentzat direla, eta modu on bat dela ezagutarazteko eta zure lanak sinesgarritasun pixka bat izateko. Ni ez naiz aurkezten, eta ez diru faltarik ez dudalako. Honezkerok, merezi dudana daukat; eta gehiago ez badut, merezi ez dudalako izango da.

■ **Egungo literaturatik zer interesatzen zaizu?**

Ipar Amerikan idazten diren gauzak interesatzen zaizkit. Batetik, emakumeek

## BERTSOA

*Doinua: Espainian behera*

**Etxekoandre ta idazle  
Urretabizkaia,  
diamante idazteko  
behar du dohaia.  
Gaurko bizimodua  
presaren ibaia  
denbora baldin bada  
bizitzaren gaia  
itota jaiotzen da  
gure bizi-nahia.**

*Jexux Mari Irazu*



egindako nobela beltza. Oso modu originalean uztartzen dituzte (eta "Koaderno Gorria" k badu hori ikasitako zerbait) trama beltza eta emakumeen kezka.

Bestetik, Ipar Amerikako idazle gazteen ipuinak gogoko ditut, gustatzen zait nolako xehetasunekin deskribatzen duten errealtatea. Hor bada ni kezkatzen nauen kontu bat. XX. mende hasiera arte, bi modu nagusi zeuden gauzak kontatzeko: bata, ahozkoa eta beste, idatzia. Baina XX. mende hasieran istorioak kontatzeko beste modu bat sortzen da: zinema. Zazpigarren arteak hartu du lehenago zati batean literaturarena zen esparrua. Eta orain, galdera da, ea zer den literaturak egin dezakeena zazpigarren arteak baino hobeto. Eta zertan aldatu behar den gure kontatzeko modua zinematik indarra hartu duen honetan. Adibidez, film bat hasi eta bost minutu pasa baino lehen istorioa jada kokatua dago, eta badakizu zein den istorioaren arazoa. Nobela klasikoetan berriz, pasa ditzakezu 40 orrialde deskribapenetan. Oraingo irakurleak ez dizu hori onartzen, jakin nahi du istorioa zeri buruzkoa den nobela horretan. Gaur ez dugu berdin kontatzen. Elkarrizketak ere aldatu dira. Literaturan, elkarrizketek esanguratsuak izan behar dute, eta ez alferrikako hitz jarria. Hori telenobelek eskaintzen baitute liburuek baino hobeto.

Ziur nago literaturak barruko mundua hobeto kontatzen duela zinematik baino. Zineman, irudiak esaten dizu zer sentitzen duen pertsonaiak, haserre dagoela, esaterako. Baina off bidez ez bada, (eta off-a oso kasu bakanetan erabili behar da) zinemak ezin du haserre horren berri eman, eta literaturak primeran ematen du.

■ **Euskal Herriko literaturaz zer duzu esateko?**

Ez naiz aditua, baina nik ongi ikusten dut, lehenengo aldiz gure historian oso adin ezberdinetako jendea ari baikara produzitzen. Ez gazteak bakarrik (gazteak beti egon izan dira), ez zaharrak bakarrik,

## ARGAZKI ZAHARRA



1979an Panpox.

erdibidekoak... belaunaldi pila bat, bakoitzak bere ikuspuntutik, eta hori sekula izan ez dugun aberastasun bat da. Estilo aldetik ere beti egon izan gara irekita.

■ **Herri bakoitzeko literatura ezberdina da?**

Niri lagun batek esan zidan, niri gustatzen zaizkidan liburu gehienak juduak direla. Kontatzeko modu hotz hori gustatzen zait; "diamante bat". Kendu, soberan ez du ezerk egon behar, garbia, ebakia... horretan saiatzen naiz ●

Literatura unibertsala da. Oso bertakoa egin nahi baduzu ere izan daiteke unibertsala. Nik nire libururak gutxi kokatzen ditut. Donostian kokatuak daude gehienak, baina nik buruan eszenatoki bat edukitzeagatik bakarrik, gero ez du axola non gertatzen den.

■ **Kontatzen dena unibertsala da. Eta kontatzeko modua?**

Agian ezberdina izango da.

ITZULPEN ZERBITZUA

# eskura

SERVICIO DE TRADUCCION

**EUSKARA - GAZTELANIA**  
**GAZTELANIA - EUSKARA**

*Bezeroen beharretara egokituz,*  
*Ingelesa, Frantsesa, Alemaniera, Italiara,*  
*Katalana, Portugesa, Galegoa...*

**1985EAN SORTUA**

JOSÉ ARANA, 15 BEHEGAINA • 20001 DONOSTIA  
TEL.: 943 29 18 30 • FAXA: 943 27 58 69  
[eskura@eskura.com](mailto:eskura@eskura.com) • [www.eskura.com](http://www.eskura.com)



## E Z P A

## PRINTZA

ZIRKUITURIK  
GABE

**Javier Balda** margolari iruindarrak elkarrizketa batean euskal artearen inguruan eginiko adierazpenak dira hauek "Euskaldunon Egunkaria"n jasoak: "(...) Lan interesgarriak egiten dira, eta artea askotarikoa da oso. Egun, zorionez, ez da euskal arteaz hitz egiten, euskal artistez baizik. Euskal artea garatuz joan da, helduz. Ez du ezaugarri bakar bat, nahikoa normalizatua dago, kontraesanekin, noski. (...) Arte erakusketak ez du programarik. Instituzioek ez dute asmatzen. Dirua jartzen dute, baina ez da aprobetxatzen, erakusketek ez baitute jarraipenik. Ez dago zirkuiterik. Gipuzkoan, adibidez, Artelekuk egitarau bat dauka, Koldo Mitxelenak beste bat, eta ez daude gaizki, baina ez dago harremanik. Harremanik ere ez dago herrialdeen artean. Lore ikusgarriak sortzen dira- Guggenheim-, baina lan sakonik egin gabe. Salbuespenak badira, baina hemengo artearen jarraipenik egiten duen bildumarik ez dago. (...)

Atzerrian ez da erraza obrak erakustea. Renokoa salbuespena da, eta hango euskal komunitateei esker leku askotan egon da. Aurrerantzean gauza gehiago egiteko asmoa dute, baina bestela diru asko behar da, eta zaila da galtzeko prest egongo den norbait topatzea".

## BERTSO LEHIARAKO PREST

HASIAK dira dagoeneko Bertsolari Txapelketa Nagusirako Gipuzkoako kanporaketak eta baita Nafarroako Bertsolari Txapelketa ere. Lehenengoan, guztira, 66 bertsolarik hartuko dute parte hil honetan hasi eta maiatzaren 27a bitarte egingo diren 18 ekitaldietan. Udazkenean egingo den Txapelketa Nagusian 14 bertsolari gipuzkoar izango dira, horietatik sei, sailkapenean jardun gabe dute parte hartzeko eskubidea, inoiz Gipuzkoako txapelketako finalean edota Txapelketa Nagusiko aurrefinalean kantatu dutelako. Nafarroako Txapelketan, berriz, 22 bertsolarik parte hartzen dute, horietatik gehienak 18 eta 25 urte bitartekoak. Mariano Izeta baztandarraren omenez egingo dira Txapelketa honetako saio guztiak.

## ANIMALIEI BURUZKO ARTEA

BIGARREN aldiz prestatu du "Organbidexka Col Libre" erakundeak Euskal Herriko Animalia Artisten Erakusketak. Ekainaren 1ean hasi eta hil horren 4a arte margolariek, eskultoreek, argazkilariek, marrazkilariek eta hainbat arte tailerrek hegazti migratzaileak ardatz hartuta euren lanak paratuko dituzte Chambre d'Amour-en, Angelun. Ilustratzaileek eginiko komikiak, eskulturgileek landutako egurrezko artelanak, margolariek akua-



■ Txorien eskultura batzuk.



relaz margotutako paisaiak... Horien guztien bidez, hainbat lekutako fauna eta landaretza ezagutzeko aukera eskainiko du erakusketak.


## EMAKUMEA ARKITEKTURAN

HOGETA HAMAR bat emakume arkitektoen lanak daude San Telmo Museoa, Donostian, paratu duten erakusketan. "Barnetik eraikitzen" izenburupean, emakumeek arkitekturari eginiko ekarpenak jaso dituzte. Erakusketak etxeari, lanari, elkarbizitzari eta oroimenari, hau da, eskulturen zaharberritzeari, eskaintzen dizkio, besteak beste, bere atalak eta ataletan erakusgai dauden lanak. Erakusketan, Gloria Ariztegi Huarte, Maite Apeztegia Elso eta Ana Arriazu Aranza, eta Cristina Perez Iriondo arkitekto euskaldunek hartzen dute parte.

## H I T Z B I T A N

- Ander Lipus aktorearen ustez, "antzezten denean ez da gezurrik esaten eta bizitzan ari garenean gezur asko esaten dugu". "Gara" k jaso zituen bere adierazpenok.
- Bernardo Atxagaren hitzak dira hauek "Euskaldunon Egunkaria"n bilduak: "Bizi garen kultura-deskultura honetan gauzarik errazena askotan ulertezin bihurtzen dira. Hori gertatu da poesiarekin, baita zientziarekin ere (...) Duela 30 urte idatzitako poema baten hitzak hamar urte geroago erabat zikinduta daude, ez dute mezu poetikorik ematen (...)".

# L A K



ALBERTO ELOSEGI

## MAX-EN JAKIN-MINA

Irabazleak zeintzuk izango diren jakitea da sariketa orotan jakin-mina sortzen duen arrazoia. Aurtengo Max Sariak ordea, badute beste bat. SGAEk, egile espainiarren elkarteak, antolatutako sariketak lau atal berri sortu baititu: egile kataluniar, galiziar eta euskaldunaren sariak eta ezusteko antezelanaren saria, hain zuzen. Euskal egile onenaren sarirako Carlos Paneraren "Ikaro", Garbiñe Losada eta Bego Losadaren "Gus eta Gas" eta Josu Camararen "Txirrikiz" izendatu dituzte. Jakin-minak apirilaren 23an, Bilboko Arriaga Antzokian egingo den jaialdia izango du helmuga, bertan jakingo baita lehen aldiz nor izango den hauetatik Max-aren euskal atalaren garaile.


## MARRAZKIAREN HARITIK

APIRILAREN 6a arte izango da zabalik Izurako Haize Berri kultur etxeak antolatzen duen Hamabigarren Marrazkirri erakusketa. Urtero legez, batetik, marrazki umoristikoei dagokien atala dago, non "Demokrazia edo bleufo-ratcho krazia" gaiaren inguruan hamabost artista amateur eta ezagunen hogeita bost obra erakutsiko diren. Eta bestetik, Josephe Dubordieu Donapaleuko margolariaren omenaldia. Horretarako, hain zuzen, honen obrak Marrazkirri irauten duen denboran ikusgai izango dira Haize Berrin.


## LITERATURAREN GORDAILUA

LITERATUR Aldizkariaren Gordailua aurkeztuko du Susak hil honen 24an. "Ibiñagabeitia Proiektua" izenpean 1975etik 2000 arte sortu eta

desagertu diren euskal literatur aldizkarietako testuak jasoko ditu. "Korrok", "Xaguxarra" edota "Pott" bezalako aldizkariaren edukiak ikusgai izango dira [www.armiarma.com](http://www.armiarma.com) helbidean.



■ Susa argitaletxearen webgunea.



ALBERTO ELOSEGI

■ Koldo Izagirre.

## IZENAK

Koldo Izagirre idazten ari den nobelaren lehen kapitulu irakurgai da Susa argitaletxearen webgunean. Honek irakurleari bere iritzia helarazteko aukera eskaintzen dio. Nobela bukatuaren lehen bertsioa Internet bidez zabalduko da eta ondoren, behin betikoa liburu gisa.

Maidor Lopez artista donostiarraren erakusketa zabaldu berri du DV Gale-riak. Pintura eta eskultura nahasten dituen artistaren lanak apirilaren 21a arte izango dira ikusgai.

Menchu Gutierrezek "La mujer ensimismada" bere laugarren lana kaleratu berri du Siruela argitaletxearen eskutik.

Hira taldeak "nortasuna" izeneko diskoa argitaratu du berriki IZ diskoetxearen eskutik. Lanak hamar kantu biltzen ditu.



■ Hira taldea.

• Jon Artatxo, IBAIAko zuzendari berria, honela mintzo zen "Gara"n euskal produkzioei buruz: "Ezin diogu eskatu produktoreari eskatzen zaiona baino gehiago, produkzioen finantziario azpiegiturak erabat estuak baitira".

• Laura Mintegik honela zioen "Zabalik"en: "Euskal literatura inoiz ez da izan gaur bezain dibertsifikatu eta literarioa. XX. mendeko azken laurdenean helburu eta nahi literarioak beste motibazioen gaineratik gailendu dira, eta horrek kalitatea eta sendotasuna eman dizkio. Hala ere, (...) literatura sendo-sendorik ez da egongo, hizkuntzaren egoera sendoa izan arte".



## ZIENTZI FIKZIOA

*Zientzi fikzioa ez da jada gutxiengo bati eskainitako generoa. Iluntasunean, galaxiez janzen diren zine aretoek milaka miresle bereganatzen dituzte, noizbehinka iruzurraren zientziak oparitzen duen dosia hartzeko prest. Etorkizunaren gaitza bizi al dugu?*

## EZINEZKOA GERTATU DA

**Z**ine beltzari sarritan jartzen zaion klasiko adjektiboa lortzea zaila egin zaion arren, lortu, aspalditik lortu du.

Ez da ondo konpontzen komediarekin, eta fantastikoaren lehengusua dela dioteneke arras miresten dute. Terrorearekin zenbaitetan egin du lan eta John Wayne protagonista izan duten westernak arrotz egiten zaizkio. Misterioari besoak zabaltzen dizkion bitartean, ez du lotsarik amodiozko istorioekin jolasteko. Gerrazalea ere bada, geneetatik datorkio, genero iraultzailea, fikzioaren mugak gainditzen dituena, zientziaren menpeko. Errealitateari ihes egiteko prest dauden fotograma matxinoak. Aurkezpenik behar al du?

Zientzi fikzioa literaturan aspaldi sortutako generoa den arren, pantaila erraldoian ezagunagoa egin zen joan den mendean. Irakurleen irudimenak sortutako mundu utopikoak, irudi bilakatu ziren bat-batean. Alemanian jazo zen, zinea egiteko estilo bati fideltasunez jarraitzen zioten zenbait zuzendariaren (Murnau, Robert Wiene...) erruz. Ez ziren garai gozoak haiek, 20ko hamarkadan, Alemaniak gudaren kiratsa arnasten zuen eta horrek, bertako

zuzendariengan eragina izan zuen zinea egiteko orduan. Espresionismoa deitu zioten. Estilo ilun eta zapaltzailea, iradokitzailea erabat. 1926. urtean Universum Film ekoiztetxearen laguntza zuzeneko Fritz Lang



zuzendari handiak maisulana erditu zuen, "Metropolis" film bikaina, alegia. Zine industriak eman duen zientzia-fikziozko lehendabiziko lana.

Maitasuna eta itxaropena, teknologia aurreratuaren kontra, bi mundu zeharo ezberdin, klase sozialei eginiko kritika zorrotza. Pelikula honekin ezaguna egin zen Lang, baina estreinatu aurretik, Universum ekoiztetxea, porrot egiteko zorian izan zen. Aurtengo Berlingo zinemaldiak Fritz Lang berari egin dio gorazarrea eta bere omenez "Metropolis" pelikularen bertsio berri bat izan da ikusgai. Zentsurak aspaldi moztutako fotograma zatiak, ez guztiak baina gehienak, berreskuratu dituzte bertara hurbildutakoekin zinegile alemaniarraren artelanaz gozatzeko.

## LAN EMARIA GARI LATZETAN.

Hurrengo hamarkadan, zientzi fikzioa, kultozko generoa bihurtu zen, gutxiengo zaletu batzuei eskainia. Estatu Batuetan, Europa zaharrean jaiotako mugimendu honi ongi etorria eman zitzaion, horrela, 1936. urtean, Frederick Stephani zuzendari eta gidoilariak, 97 minutuko "Flash Gordon: Rocketship" pelikula filmatu zuen. Aipatu filma, Universal ekoiztetxeak Flash

Gordon pertsonaiari buruz eginiko 20 sailen azken emaitza bihurtu zen.

Estatu Batuetako merkatuan zientzi fikzioak bere tokia lortu zuen nahiz eta "B" mailako eserlekua izan. Martiarren edota komunisten erasoari beldur, bizilagun yankiak mehatxatuta sentitzen ziren eta zineak, uneko egoera aprobetxatuz, fikzioa mundu osora zabaldu zuen. 1953an jaio zen H.G. Wells idazlearen eleberrian oinarritutako "War of the Worlds" (Munduen gerra) zinta aparta. Byron Haskin-en zuzendaritzapean, martiar espaziantziek lurra eraso zuten, bertako bizilagun guztiak menperatu asmoz.

Paramount ekoiztetxeak landutako filma dugu hau, maisulana, nahiz eta aurrekontu aldetik, diru-laguntza murrizta izan. 1956an "Invasion of the body snatchers" pelikulak, garai hartako gizar-teak bizi izandako paranoia azaleratu zuen. Don Siegel zuzendari handiaren lan honetan espaziotik etorritako leken eraso da ikusgai, gizakien gorputzak zurgatzen dituzten leka erraldoien eraso isil eta krudela. Walter Wanger Pictures ekoiztetxeak hartu zuen lan honen ardura, egun klasikoa bihurtu den zintarena, alegia.

Estudio handiek ez zuten begi onez ikusten zientzi fikzioa eta ekoizle umilena generoari aukera eman zioten. Britainia Handiko Hammer ekoiztetxe txiki baina aski ezagunak ere atea ireki zizkion. Terrorea, zine fantastikoa eta zientzi fikzioa nahastu zituen. Ahaztezina

zaigu Quatermass izena zuen doktoreak estralurtarren aurka borrokatzeko erakusten zuen grina, bikain, Brian Donlevy aktorearen interpretazioa Val Guest zuzendari handiaren esanetara. 1955eko pelikulak Guest-




### ■ Film aipagarrienak

- ✓ *Metropolis*. Fritz Lang (1926)
- ✓ *The War of the worlds*. Byron Haskin (1953)
- ✓ *Them!*. Gordon M. Douglas (1954)
- ✓ *Godzilla, King of the Monsters*. I. Honda (1956)
- ✓ *Invasion of the body Snatchers*. Don Siegel (1956)
- ✓ *Forbidden Planet*. Fred Wilcox (1956)
- ✓ *The Time Machine*. George Pal (1960)
- ✓ *Fahrenheit 451*. Francois Truffaut (1966)
- ✓ *Planet of the apes*. Franklin J. Schaffner (1968)
- ✓ *2001: A space Odyssey*. Stanley Kubrick (1968)
- ✓ *The Omega Man*. Boris Sagal (1970)
- ✓ *Star Wars*. George Lucas (1977)
- ✓ *Alien*. Ridley Scott (1979)
- ✓ *Blade Runner*. Ridley Scott (1982)
- ✓ *Dune*. David Lynch (1984)

i bigarren zatia egiteko aukera eman zion, "Quatermass 2", kritikariaren iritziz, lehenengoa baino askoz hobea.

50-60ko hamarkadan zientzi fikzioak gorakada izugarria ezagutu zuen. Kalitate aldetik aldaketa nabarmena izan zuen, etorkizunaren generoak gidoi landuagoak



# Bizkaiko Foru Aldundia

## Euskararen alde hizkuntzen urte europarrean



**Bizkaiko Foru Aldundia**  
Kultura Saila

**Diputación Foral de Bizkaia**  
Departamento de Cultura

## ■ Euskal mutanteen eraso

Euskal Herrian aspaldi ez dugula estralurtarren arrastorik aurkitzen. Bertoko zuzendariak, mutanteen antzera, duten gaitasun apartekoak beste zeregin (genero) batzuetarako erabiltzen dituzte. Zientzi fikzioa erabat baztertu dute azken hamarkadan eta erditu dituzten film edota labor gutxiak, egun oso estimatuak

dira. Euskal zinemagileek zaila ikusten dute zientzi fikzioa egitea, aurrekontu aldetik ez dutelako askatasun nahikoa. Fantastiakoaren mugan eta diru-laguntza murriztarekin egindako lanak filmatzen dituzte, euskal zinearen labela maila handikoa dela ziurtatuz.



### ✓ ACCION MUTANTE

**Zuzendaria:** Alex de la Iglesia

**Gidoia:** Alex de la Iglesia eta Jorge Gerikaetxebarria

**ekoiztetxea:** El Deseo, S.A.

**Aktoreak:** Besteak beste, Antonio Resines, Alex Angulo, Saturnino Garcia, Fernando Guillen eta Karra Elejalde.

Zientzia fikziozko euskal pelikula bakarra. 1993ko otsailean estreinatzen zen Madrileko Renoir zine aretoan. DefCon 2 taldeak jarri zion musika eta Almodovar zuzendari aski ezagunak ordu eta erdiko fotogramabobina bihurtzeko baimena eman zion zuzendari bilbotarrari. Iraultzaile bezain arrakastatsua izan zen Alex de la Igesiaren lehen filma. Euskal Herrian hainbat sekuentzi filmatu zen, Bilbon eta Bardeetan, hain zuzen. Istorioa 2012. urtean kokatzen da. Dirudunen gizarteari aurre egin nahian "Accion Mutante" izeneko talde bat sortuko da, elbarrituez eraturako taldea, alegia. Enpresari boteretsu baten alaba bahituko dute, hark ordezkatzeko duen klase soziala irainduz.

### ✓ IN VINO VERITAS

**Zuzendaria:** Esteban Ibarretxe

**Gidoia:** Ibarretxe anaiak

**ekoiztetxea:** Ibarretxe & Co.

1995. urtean estreinatutako zinta. Zientzia-fikzioaren mugan mugitzen da labor honekin "Las memorias de Karbo Vantas" telesaila zuzendu zuena. Anaia Jose Miguel izan du lagun Esteban Ibarretxek gidoia idazterakoan. Etorkizunean, Alphonse izeneko pertsonaiak bere lagun Gianluca erailko du. Errealitate gordina agerian, utopiaz jantzi-rik mundu batean. Eduardo Basterrak jartzen dio musika eta aktore lanetan besteak beste, Juan Inciarte, Alicia San Juan, Alex Angulo eta Efen Martin aritzen dira. Deustun eta Vildosolan (Iurre) filmatu ziren sekuentzia gehienak. Horrez gain, Ibarretxe & Co. ekoiztetxearen laguntzaz, "La venganza del artista calvo" eta "Malditas sean las suegras" laburrak filmatu ditu Esteban Ibarretxek. Bere lehen luzeak "Solo se muere dos veces" du izena, 1996. urtean Sitges-ko jaialdian "Melies D'Argent" saria erdietsi zuen.



eta istorio sakonagoak kontatzen zituen. Publikoak eskertzen zuen eta estudio handiek, nahi ala ez, aukera eman zioten.

**GARAI BERRIAK FIKZIOAREN-TZAT.** 70eko hamarkadak zientzi fikzioaren bestelako aurpegia erakutsiko digu. Hala ere, txima luzedun hippyen aroak kalitatezko ekoizpen apartak ezagutu zituen. Besteak beste, "Robinson Crusoe on Mars", "The Village of the Damned" edo "Barbarella" filmek publikoaren ones-

pena jaso zuten. Garai gozoak bizi zituen generoak, baina benetako iraultza 1977an gertatu zen, "The Six Million Dollar Man", "The Andromeda Strain" eta "THX 1138" filmek utzitako zapora onari eutsiz. George Lucas zuzendari estatubatuarrek kalitatea eta aurrekontu lodia batu zituen, Alec Guinness edota Harrison Fordi gainerako lana utziz. Garai jakin batean produkzio handiak eta zientzi fikzioa bateraezinak ziren, Lucasen lanari esker ordea, garai berri bati hasiera eman zitzaion. "Star

Wars" filmak osagarri guztiak zituen: guda ematen duen bizitasuna, pertsonaia interesgarriak, gidoi sendoa eta batez ere, beste guztiei falta zitzairen aurrekontu lodia. Horrek efektu berezi landuagoak erabiltzea erraztu zuen. Lurra utzi eta galaxia, robot eta estralurtarrekin partituko duen zenbait gizakik bizitzen duen konplot politikoa da ikusgai Lucasen zinta honetan. Lehena izan zen baina ez bakarra, beste hiru atal filmatu ziren honen ondoren, "The Empire Strikes Back", "Return

## ✓ MAMA

**Zuzendaria:** Pablo Berger**Gidoia:** Pablo Berger**Ekoiztetxea:** Mama Productions

Pablo Berger-en "Mama", euskal laburren historian zinta klasikoa bihurtu da. Ausarta eta zorrotza errealizadore bikain honen lana. Fantastikoarekin jolasten duen formatu txikiko bitxia. Berger ez da oso ezaguna Euskal Herrian, baina bere lanak nazioartean arrakasta franko izan du. Houston International Film Festival-eko garaile 1995ean, Palm Springs International Film Festival-eko lehen postua eskuratu zuen urte berean eta New Yorkeko "Film Expo" saria ere.

## ✓ CAPITAN TRUENO


**Zuzendaria:** Juanma Bajo Ulloa**Gidoia:** Juanma Bajo Ulloa eta Eduardo Bajo Ulloa**Ekoiztetxea:** Filmax

Laster gure zine aretoetan izango da ikusgai Juanma Bajo Ulloa zuzendariaren azken lana. Victor Mora marrazkilariak 1956. urtean asmatutako pertsonaia aski ezaguna aukeratu du gasteiztarrak bere azken filmerako. 1.000 milioi pezetako aurrekontuarekin, Bajo Ulloak, fantastikoa eta zientzia fikzioaren artean dagoen pelikula filmatzeari ekingo dio. Hala ere, oraindik ez dago erabakita txiroak babesten duen erdi aroko zaldunarena nork egingo duen, ezta nor izango den Sigrid, Thule uharterko erregina. Pelikularen atal asko Suedian filmatuko dira, bikingoen eszenak egiteko batez ere. Horrek, ahalegin handia eskatzen du produkzio aldetik, Filmax ekoiztetxea alabaina, larrialdietarako prestatuta dago (aurrekontua handitzeko prest). Drama, akzioa, maitasuna... gidoia bukatua dago jada, urrian bukatu zuten Bajo Ulloa anaiek, 80 pertsonaia ditu eta lau nagusiak aukeratzeko, Espainia osoan zehar casting-ak egingo dira.

## ✓ NOCTURNO

**Zuzendaria:** Jose Felix Collazos**Gidoia:** Jose Felix Collazos**Ekoiztetxea:** Jose Maria Lara P.C.

Kolore beltzak sortarazten duen zirrara azpimarratuz beste mundu batera eramaten gaitu Jose Felix Collazos zuzendari nafarrak "Nocturno" bere laburrekin. Koadro beltz bati begira dagoen emakumea, bat-batean bere baitan aurkitzen da, etorkizuneko mundu ilun batean, pertsonaia ilunekin inguratua bere patuaren bila. Iluna eta zapaltzailea Txema Areizagaren argazkia eta Javier Asinen musika. 1997. urteak eman zuen labor aipagarrienetarikoa.



of the Jedi" eta "Star Wars. Episode I: The Phantom Menace". Arrakasta eta dirua, aurreikuspen guztiak hautsi zituzten; azkenak orain dela urte bi.

Estudio handiek jaio berria zen 80ko hamarkadari etorkizun kutsua eman nahi zioten, ordurako, fotograma puskek ahotik kiratsa darien Alienen itxura hartzen hasiak ziren. Ridley Scott-ek 1979an espero ez zuen arrakasta lortu zuen bere "Alien" filmarekin eta egun zinezaletuen artean pertsonaia mitikoa den Ripley sar-

jenturekin. Steven Spielberg zuzendari aski ezagunak ere, zientzi fikzioa ezagutu nahi zuen eta horretarako bere etxeaz sarritan oroitzen zen estralurtar baten gorabeherak kontatu zituen "E.T"n.

"Blade Runner", "Dune", "The Fly", "The Terminator"... 80ko hamarkadak atek erabat ireki zizkion genero honi eta, teknologiak are gehiago. Ordenadoreen bidez, efektu bereziak erabat biribilak bilakatu ziren, Wachowski anaien "Matrix" (1999) filma ikusi besterik ez dago.

Azken albisteen arabera, Peter Jackson zuzendariak Tolkien-en eleberrian oinarritutako "Lord of the rings" filmatu berri du. Wingnut Films ekoiztetxearen laguntzaz Zeelanda Berrian filmatu da eta hiru atal izango ditu. Bata, aurtengo Gabonetan estreinatuko da eta besteak 2002 eta 2003ko Gabonetan. Ongia eta gaizkiaren arteko borroka amaigabea, hori bai, beste garai batean eta beste toki batean kokatuta. Akaso etorkizunean? ●

◆ IÑIGO BIDETXEA

*Hizkuntza & Literatura Euskal Museoa proiektua gauzatzear da Zarautzen. Euskararen historia eta bilakaeraren nondik norakoak bilduko dituen erakusketa iraunkorra, dokumentazio zentroa, ikus-entzunezkoen txokoa, zerbitzu pedagogikoa eta aldi baterako erakusketa izango ditu.*

## EUSKARAREN HARRIBITXIAK KRISTALEZKO KUTXATAN



DANI BLANCO

■ Euskararen eta euskal literaturaren aurpegi ezagunak ikus daitezke.

erakusketa iraunkorra eta aldi baterako, agiritegi bat, liburutegia, hemeroteka, fil-moteka, fototeka, fonoteka, ikuskizunak, zerbitzu pedagogikoa, ikerketarako aukera, argitalpenak...

Leopoldo Zugazak ondoko esaldian museoarene eginkizuna laburbildu digu: "Museoa erakunde iraunkorra da, irabazi asmorik gabea, gizartearen eta beronen garapenaren zerbitzura dagoena, jendeari irekia, eta gizakiaren eta bere inguruaren lekuko materialak eskuratzen, kontserbatzen, ikertzen, komunikatzen eta erakusten dituena azterketa, hezkuntza, eta gozamenerako". Definizio "perfektua" deritzo eta beren ahalegina hori behar bezala betetzera zuzenduko dela adierazi digu.

Hamazazpi urtez proiektua osatzen ibili ostean, Zugazak museoa zabaltzeko garaia dela uste du. Beraz, laster izango

**E**uskara eta euskal literaturaren altxorrik preziatuenak kristalezko kutxatan jarri dituzte ikusgai Zarautzen, Sanz Enea kultur etxean. Baina erakusketa honetan ikus daitekeena euskal hizkuntza eta literaturari eskainiko zaion museorik garrantzitsuenaren zertzelada bat besterik ez da oraingoz. Urtarrilaren 27an zabaldu eta apirilaren 1a arte iraungo duen erakusleihoan gure hizkuntza eta literaturaren lekukotasunik garrantzitsuenak ikus ditzakegu, hau da, etorkizunean Hizkuntza & Literatura Euskal Museoa izango denaren zati bat.

Etorkizuneko museorako linguistika, dialektologia, literatura eta abarrekin zerikusia duen material ugari bildu du Leopoldo Zugazak, proiektuaren bultzatzaile nagusiak. Besteak beste, euskaraz idatzitako lehen testuak; Don Juan Bau-

tista de Errok 1806an argitaratutako "Alfabeto de la Lengua Primitiva de España"; XVIII. mendeko "Euskara-gaztelania gaskoi glosategia"; "Basarri"ren bertso, argazki eta sariak; Mogelen "Peru Abarca"; 1935eko Aberri Eguneko kartelak; Oskarbi, Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Benito Lertxundi eta beste hainbat diskoak; "Xabiartxo" eta bere liburuak...

Museoa ez da erakusleiho soilak izango, ikusleak bere jakin-mina asetzeko aukera eta modu desberdinak izango baititu bertan eskura edukiko dituen zerbitzu eta programei esker:



DANI BLANCO

■ Dokumentuak kristalezko kutxetan babestuta.





■ Euskal kantagintzaren txokoa.

DANI BLANCO



■ Guillaume de Humboldten liburuak.

lehenengo narrazioa).

Alabaina ez da erraza horrelako materiala eskuratzea. Euskarazko dokumentu baliotsu askoren berri inor gutxik dauka, eta izan arren, balio sentimental handiko lekukotasunak izaki, zaila da erakusgai jar daitezten lortzea.

Dena den, beharrezkoa da egon badaudela eta non dauden jakinaraztea, eta horretarako Hizkuntza & Literatura Euskal Museoan informazio hori eman diezagukeen inbentario bat izango dugu eskura. Material asko museoan bertan aurkituko dugu proiektuaren bultzatzaileak dokumentu garrantzitsu ugari jabe baitira, baina beste hainbat eta hainbat gauza soilik erakusketa osatzeko bilduko dituzte. *“Ez da beharrezkoa dena guk edukitzea, normala da balio sentimental handiko gauzak familiak berak gorde nahi izatea, hala ere, komeni da horiek non dauden jakitea”*, azaldu digu Zugazak.

Bestalde, museoak materialen kontser-



■ Leopoldo Zugaza, sustatzailea.

DANI BLANCO



■ Musikagintzako hainbat altxor.

DANI BLANCO

dute euskarak eta euskal literaturak beren museoan, nahiz eta hasiera batean behin-behineko egoitza izango duen. Hori non izango den oraindik zehazteke dago baina, bien bitartean, Sanz Enea kultur etxeko erakusketaz gozatzeko aukera izango dugu apirila arte; martxoan ixtekoak ziren, baina izan duen arrakastaz jabetuta hilabete luzatzea erabaki baitute.

**MUSEO BATEN BEHARRA.** Leopoldo Zugazak hainbat museoaren sorreran hartu du parte eta beti somatu du hutsunea euskal literatura eta hizkuntzaren alorrean: *“Ez zegoen, nik dakidanez behintzat, zentrorik bereziki hizkuntzari lotutako lekukotasunen kontserbaziora emana zegoenik, eta bertakoek nahiz atzerritarrek ezin zuten gure hizkuntza eta literaturaren ibilbidearen ikuspegi zabalik jaso begiratu batean”*. Euskal Herrian gauza ugari egin diren arren, gehiagoren beharra ikusten du.

Horrela bada, museoarako hainbat eskuizkribu, mapa, grabatu, argazki, bideo eta disko bildu du euskarak izan dituen garai eta aldi desberdinen lekuko. Hala nola J. A. Artzek utzitako bitxikeri bat: Udarregi bertsolariak bertsoak gogoratzeko neurri desberdineko marrak egiten zituen horman gero lagunek paperera pasa zituzten, eta Artzek horma horietako baten puska eskaini dio museoari. Ruper Ordorikak, berriz, Bernardo Atxagaren “Etiopia”ren originala eskaini du, eta, Atxagak berak, besteak beste, “Esteban Werfell”en originala (“Obabakoak”eko

baziorako teknologia aurreratua eta baliabideak izango ditu, eta dokumentuen jabe-ei horretaz baliatzeko aukera emango die euskararen harribitxiak gal ez daitezten. Orain arte erantzun ezin hobea jaso dute Frantziskotarrengandik, Labayru Ikastegi-koengandik eta Koldo Mitxelena Kulturunearengandik, besteak beste.

## □ Bernardo Atxagaren “Etiopia”ren originala eskaini dio Ruper Ordorika abeslariak museoari

Erakusketa bezala, museoan ere Zarautzen kokatuko da, Leopoldo Zugazaren iritziz, ezinbestekoa baita museoan euskaraz bizi den leku batean kokatzea: *“Zarautz bezalako herri batean egon behar du, non biztanleen %95 euskalduna baita, hemen euskara ikusi egiten da”*. Museoan, funtsean, euskarari buruzkoa izango denez, *“anomalia handia”* litzateke Zugazaren ustez, museoan bertan euskara txoko guztietan egotea eta kanpora irten orduko euskarazko hitz bakar bat ere ez entzutea. Bestalde, ez dator bat horrelako proiektuak hiriburuetan soilik jartzearekin, zentzugabea deritzo dena hirietan jartzeari eta herriak *“deskapitalizatzeari”*; herriak *“basamortu kultural”* bihurtzeko joera dagoela iritzi dio.

Zarauzko Udala prest agertu da museoari lekua egiteko, baina oraindik ez dute kokalekua zehaztu eta honek luze jo dezake, maila honetako egitasmoekin gertatu ohi denez. Diru-laguntzak ere ez dituzte zehaztu oraindik, baina dagoeneko *“Museoaren laguna”* izateko aukera du nahi duen orok ●

◆ LORE AGIRREZABAL

*Euskal Herriko arrantzaleen artean liskarra eta zatiketa eragin zuen antxoaren arrantzak. Egoera horri irtenbidea bilatzeko deia luzatu zuen orduko aleak.*

# Gauzak datozen moduan ezin jasan



"ikuitze" horri ekiten zioten bada.

"Ondo dakigu gure arazoak berri-berriak dirala. Egungo gizarteak bizi dituen bide-guruzteak sekula ez bezalakoak direla. Lehenagoko erantzunetan ez dugu federik. Zerbait berriaren billa asi behar dugula. Eta berriaren billa-ketan, denok izan nahi dugu aurrenak. Denok agertzen gera gazte moduan: jazkeraz eta bizi-tankeraz. Baiñan, bestalde, gurea oso egoera larria da. Ez baitigu ezer egin dezakegun esperantzarik. Ezer egin, alegia, mundu onen zimentuak aldatzeko. Ikusi bai ikusten dugu gauza konkretoak egin dezakegula: baiñan mundua, kontrola ezin ditezkeen indarrak eragiten dutela uste dugu".

Eta noski, horrela, ezin oso urrutira joan: "Praktikoak izan nahi dugu. Nahiago dugu beteko

■ Antxoaren denboraldiak iskanbilak sortu zituen.

**MON ZER**

- SURET: AAI DEZET? 3 gerta
- JARDURA: SALLA BERE SINGA: 6 gerta
- ESTREZKAREN NOLAK: 7 gerta
- EUSKAL ERRI-LANDEZTA: 7 gerta
- LANDEZTA BILAK: 12 gerta

**ARRANTZALEAK**

LANTZALEEN BARRAZIA		BARRAZIA	
Urte	1990	1991	1992
1990	100	100	100
1991	100	100	100
1992	100	100	100

gingo diogu, zerua ere boladaz urdin eta bestetan beltz jartzen da, ezta? Bada, ZERUKO ARGIA ezin izan gutxiago, bere editorialei zegokionez, batez ere. Eta 1971ko martxoaren erdialde hartan oso haserre zebilen, hara! Egoerarekiko onespren gehiegi somatzen zuen inguruan, eta ezin jasanezkoa zeritzon jokaera horri.

## ETORKIZUNAREN HARIAN

Horrelako izenburu itxaropentsua zuen aste hartako editorialak, baina haren mamiak alaitasuna baino bihotz ikara gehiago ematen zuen. Jada hasieratik somatzen zitzaion zera: "Ez gatz noski etorkizunaren giltza eskuan dugula, geroaren ateak idekitzeko asmotan" ohartarazten zuen alde zurretik, zertara zetozen esateko berehala: "Gutartean nabaritzen diren joera eta egokiera batzuk ikuitzeko asmotan bakarrik gatz gaurkoan". Era xume honetan bere hitzen irakurlea lasaitu eta gero,

## Euskaldunen alfabetatzea

Iragarkia, 1971-III-14

**L**autatik hiru euskaldunek ez daki ez irakurtzen eta ez idazten euskeraz. Garbiago esanda: euskaldun gehienak analfabetoak gara. Euskeraz hitzegiten dakigunok euskeraz irakurtzen eta idazten ikasi behar dugu, euskaldun bagara behintzat, euskaldun izan nahi badugu behintzat. Euskal literatura zabal eta indar dadin. Inork tontotzat jo ez gaitzan. Irakurtzen eta idazten ikasi behar duzu. Guk lagunduko dizugu. Guk lagunduko dizugu. Ikasi nahi al duzu? Guk lagunduko dizugu. Etorri zaitez gure kurtsilloetara.

*P.D: Nola konpondu ote ziren ikasleak joateko, izango litzake galdera, zuzenbide arrastorik ez baitzuten ematen* ●

## ■ Gipuzkoan tren bat gutxiago

Astez aste, 1971-III-14

**Z**umarragatik Mekolalde bidean ibiltzen zan trenak egin du bere azken ibilaldia. Zer dala-ta? Bere burua ordaintzeko gauza etzalako hartu omen da erabaki hori, erabakia hartu dutenek diotenez. Gaurregun arrazoi hori oso ezaguna da eta askotxo erabiltzen da. Arrazoi hori dela-ta, beste zenbait tren ere geldituko zaigu. Zergatik ez dira tren-bide eta tren hobeak egiten? Ez ote luteke orduan, behar beste etekin aterako? Euro-pistak bakarrik ote dute etekinik? Zer gertatzen da? ●

ez dan idealik ez artu, eta gauzak datozen moduan jasan".


Hori guztia "dugu" baterakoa erabiliz esaten bazuten ere, haatik ez zezala inork pentsa bihotz hil horien uste berekoak zirenik! Hauxe zen, beraien ustez, "etorkizunaren arian" ez egotearen ondorioa: "Uste oietan kokatzeak, eta loari emateak, esnatze triste bat ekarriko digu. Gure aurrerabiderako, elburu baikor eta eraginkorrek behar beharrezko ditugu. Gure etorkizunaren jabeak geu izatera iritxi gaitezen, ahaleginetan leiatu beharko dugu. Beteko ez ote dan bildurrez, nahiago dugu ez erabaki etorkizunaren ari; baiñan ez erabaki nahia ere, erabakitzeko modu bat da".

### ANTXOA ZELA-ETA

Zer ote zegoen ezinegon horren atzean? Ez da erraza bete-betea asmatzea, jakina, baina baliteke euskal gizartearen egun haietan nabarmentzen omen zen zatiketarik zerikusia izatea. Izan ere, "Arrantzaleak" irakur zitekeen, urrutitik ere, aldizkariaren lehenengo orrialdean. Euskaldun oharkabetuenaren atentzioa deitzeko modukoak ziren izenburu deigarri hura eta azpian zeraman argazkia, eta apika batek baino gehiagok usteko zuen hura irakurriz itsasgizon izukaitzen bizi-modu bitxiak zer edo zer gehiago ikasiko zuela-edo. Baina Z. ARGIA eskuetan

hartu eta letra xeheek ziotena irakurtzen hasi orduko, herritar kementsuenaren begitarte alai ere goibeltzen joango zen duda gabe. Hona hemen arrazoiak:

"Gipuzkoarrak alde batetik, bizkaitarrak bestaldetik eta lapurtarrak berriz beretik, euskal arrantzaleen artean, ba da



■ Ormaiztegiko tren-zubia.

oraintsu istillurik eta ezin ikusirik. Zer gertatzen da? Beti bezala, euskaldunen artean itsutasuna eta berekoikeria nagusi".

Adierazpen etsikor hori egin eta gero, egoera ilun haren zergatia azal-

tzen zuen: "Bordeleko biltzarrean lapurditañrek lehen berea zuten 3 millatako uraldea 6 millataraino aunditzea lortu zuten. Beraz, bizkaitar ez gipuzkoarrek ezin uralde horren barnean arrantzarik egin. Inoiz gipuzkoar ontziren bat neurri horietan arrantzan arrapatu dutenean, lapurtzat jo dute eta zigor ederra eman ere bai. Euskaldun izena benetan itz utsa bihurtu zaigu. Baina nolabait esateko are eta gehiago arritzen gaituana, Santanderren gertatutakoa da. Gipuzkoarrak etziran biltzar horretara joan, alferrikakoa zela ikusirik; bizkaitarrak berriz, han ziran. Hauek, Kantauri Itsasoko beste probintziekin bat egin zuten... Arritzekoa, baina ala da".

Honaino, aldizkariak eskaintzen zituen datuak eta kexak. Handik aurrera, ordea, Z. ARGIAk argi eta garbi uzten zuen euskaldunak bere artean banatzen zituen auzi hartan sudurra gehiegi ez sartzeko zeukan borondatea: "Ez goaz orain antxoa arazoarekin zer gertatzen den aztertzea" abisatzen zuen zintzoki, jarraian berak ateratako ondorioa huts-hutsean agertzeko: "euskaldunak, berriz ere, bakoitza gure alde-tik gabiltzala bakarrik adierazi nahi genduke. Arazo bat iritxi eta elkartzea eziña zaigula. Honela ezin gindezke iñora joan!". Tamalez, hala izaki... ●

◆ PILAR IPARRAGIRRE

## ■ Galdakano: gaixorik

Basa-Jaun, 1971-III-14

**A**zken aldiotan ainbat adiskide daukaguz, danak gogoratute ezpagara be, gaixorik batzuk osetebakuntza egiña gaitik eta beste batzuk berezko gaixoren bategatik, batonbat, zorionez, estukure ortatik urtenda be aurkitzen dala; onetarikoa bat Elorriagatar Loren euskaltzale jatorra, ta beraz ZERUKO ARGIAren irakurlea. Elorriaga adiskide zintzoa, Bilboko osatete baten osatebakuntza eginda aurkitzen zan, baiña, zorionez ederto baten sendatuta errian ziar ezer jazo ezpalitzaken bezela dabil. Benetan poztutzen gara Loren, zeu barriz orretara ondo ikusitiaz. Bai-ta pizkat txarrago aurkitzen da osatebakuntza gogor bat egin ondoren, nai-ta beren etxean aurkitzen dan,

Zorriketatar Bittor adiskide ta aberkide kementsua. Adiskide on au, baiña, beti izanda adoretua ta, oraingoan-be gaixo zital ori jaurtiñaz barriz sendotuko dalakoan gara ta orretara izan daiten gura genduke. Aurrera Bittor! Oraingoan-be zulako euskaltzaleen bearrian gara-ta. Bai-ta Bilboko osatete nagusian, Hospitalean, guztiz txarto aurkitzen da, lerro auek idatziten duguzanian, Bilbaotar Mikel "Miguel Aberatsa", itxaropen andi barik. Ez aal-dau urtengo oraingoan euskaltzale zintzo kementsu onek? Benetan poztuko gintzakez bizkortuko ba-litz, orrelako gizon zintzoaren bearrean aurkitzen dalako gure Euskalerrria. Jainkoaren naia izango aal-da ●

# Film laburren merezimenduak

**B**eti esan izan da laburmetrai bat filmatzea eta dirua galtzea sinonimoak direla... eta egia da. Kasurik onenean, loterian bezala, jarritakoa berreskuratzea pozik geratzeko modukoa da. Istorio laburrak kontatzen dituztenek -laburmetraigile hitza arraroa irudituz zait beti- kexati eta negarti ospea jaso izanak badu arrazoi puntu bat, nahiz eta ongi begiratuz gero kexak bere logika baduen; lehen, kontaktu ohi dutenez, nahi beste negatibo metro bota eta lasai asko sar zezaketen hanka behin eta berriz, ez baitzen ezertxo ere gertatzen. Izan ere, zinema eskolek zerbait ona baldin bazuten horixe baitzen, hain zuzen; haiek ordaintzen zituztela beren ikasleen lehenengo zizakadurak.

Orain, ordea, eskolarik ez dagoenez -bai, badakit eskola pribatuak badaudela, baina hori beste gauza bat da- zine zuzendarigaiak ekoizle bihurtzen dira nahigabe. Hauek filmazioaren kostuei aurre egiteaz gain, zur eta lur egiaztatu behar izaten dute aurrekontu saila -sail asko daude- eta beti ehunka mila pezetakoa izaten da; milioi gehiegi akatsak eginez gastatzeko, jakinda, gainera, hasiera batean horretara doazela, akatsak egitera.

Hori dela eta, konbentzita ez dauden ekoizleentzat, eta dirudienez guztiak dira horrelakoak, film laburrak aurkezpen txartelak izateaz gain, merezimenduak epeka ematen dituen mirariak ere badira; merezimendua zera da, laguntzera eta xentimorik ere ez kobratzera etorri den jendearekin filmazio bat amaitzea. Hauek, gainera, nahi dutenean alde egiteko eskubidea dute, noski, eta kontuan hartu filmazio batean parte hartzeak izugarritzko xarma duela eta hau bezain lanbide hierarkizatu batean gora egiteko aukera ematen duela. Merezimendua da baita ere filmazioa den irudi puzzle horrek koherentzia izan dezan lortzea eta muntatzera iritsi ahal izatea. Merezimendua da jaialdietan hautatua izatea, are gehiago zuzendari gazteek -kasualitatez euskaldunek- luzemetraietara jauzi egin zutenetik eta Fresnadilloso Holliwoodera gerturatzeko utzi ziotenetik. Orduz geroztik itxaropen horrek, ikasketa izan beharko zukeena profesionalizatzeko modu arriskutsu bihurtu du. Gainera, hamabost minututan, ulergarria, eta noski, entrete-nigarria eta ondo muntatutako, edo behintzat akatsak gehiegi nabarmentzen ez diren moduan egindako istorio bat kontatzea lortu behar da. Aktoreek lotsagorritzeko moduko esaldirik ezin dute esan, eta ikuslearen enpatia lortu behar dute idatzi gabeko

arauak zergatik ulertzen ez dituen ez dakigun ikuslearekin, gehienetan laburmetraia istorio xelebreekin, lotsagabeekin, eta ahal dela amaiera zirraragarriekin edota hamabost minutuz eserlekuan eseri izana konpentsatuko dioten txiste errazeko amaieradunekin izan diren ikuslearekin, hain zuzen. Hori bai, gero ez dute ezer ere esaten ia hiru ordu irauten duen eta gehienetan iparramerikarra den film luzeak bere astia hartzen duenean -batzuetan baita ordu bete ere- zerbait kontatzen hasteko.

Agian, laburmetraiak ere beste guztiaren ginetik, talentua barne, gazte izatea gailentzen duen modari ezin diolako ihes egin gertatzen da hori, eta uste delako bere lehenengo ahaleginean zerbait itxurazkoagoa filmatzen ez duenak hobe duela zine-

man ikusle gisa parte hartzen jarraitzea, eta frogatzen segitzeko asmoa burutik kentzea. Erradikala bezain zentzugabea da hori, baina Amenabar fenomenoak (gaztea, lehenengo filma, lehenengo *takilazoa*) eragin handia izan du horri dagokionez.

**AMAIERAN** ohartu ohi da bat ezagutzen ez duzun jendeari existitzen ez den jendeari buruzko istorioak kontatzen jarraitzeko erabakia hartzean ikusten dugula, Euskal Herrian, lanbide honetan irautea errealitatea baino saiakera bat dela. Eta, nahiz eta laburmetraiak normalean lan egiteko aukera izan duten teknikari eta zuzendari asko hezi izan dituen, eta hauen lana aintzat hartua izan den, poltsa prestatu eta Madrilerako txartela hartu behar izan dute baldin eta zinea egitetik bizi nahi bazuten.

Eskerrak, orain, laburmetraiak banatzeari dagokionez, babestuta sentitu gaitzkeen Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak duela urte batzuk abian jarritako "Kimuak" deritzon ekimenari esker. Horrek ekoizleak euren lan karrera zabaltzeko eta nor-

beraren ekoizpenek kanpoan nahiz Euskadin izan dezaketen oihartzuna zenbaterainokoa den jakiteko jaialdien eta lehiaketen bila ibiltzetik libratzen ditu. Jaialdi eta lehiaketetan Euskal Herriatik iristen den zinema errespetuz, jakin-minez eta mirespenez hartzen denaren sentsazioa egiazkoa dela frogatzen da. Baina gogaikarri samarra gertatzen hasi da, dagoeneko, laburmetraiekin hasi eta hain ezagun egin diren zuzendarien belau-naldiaz geroztik -Alex de la Iglesia, Julio Medem edo Juanma Bajo Ulloa-, luzemetraira jauzi egin eta lehen aipatutakoan antzerako postuetan kokatzea inork lortu ez duela jakitea, ezta hurrik eman ere. Eta ordutik urte batzuk igaro dira jada ●



Pablo Malo  
Zinegilea

*"Uste da lehenengo ahaleginean zerbait itxurazkoagoa filmatzen ez duenak hobe duela zinemari ikusle gisa parte hartzen jarraitzea (...) Amenabar fenomenoak (gaztea, lehenengo filma, lehenengo 'takilazoa') eragin handia izan du horretan"*

n[on] klick, han txotx!

sagardo eta  
sagardotegi  
guztiak  
Interneten

*sagardoa kanala*

- Euskal Herriko sagardotegiak
- Sagarra eta bere mundua
- Munduko sagardo eta sagardotegiak

[www.argia.com](http://www.argia.com)

## A S T E K O L I B U R U A

## "PIZTIAREN IZENA"REN GAZTELERAZKO EGOKITZAPENA



**EL HUESPED DE LA NOCHE**  
**Anjel Lertxundi**  
 ALBERDANIA  
 133 orrialde  
 2.200 pezeta  
 88 libera

**A**lberdania argitaletxearen eskutik kaleratu berri du Anjel Lertxundik "El huesped de la noche", duela urte batzuk argitaratu zuen "Piztiaren izena" idazlanaren gaztelera-egokitzapena. Halere, bada aldaerarik batetik bestera. Narrazioaren protagonista nagusia den bentaria, kasu, Milia izenez bataiatua izan da gaztelera-egokitzapena, eta gainera, jatorrizko lanean baino kontzientziazago denez, hase-erretuago agertzen da "El huesped de la noche"n. Nolanahi ere, garai ilunetan bizi-egokitzapena zaie Anjel Lertxundiren nobela honen pertsonaiei, hau da, agintean dauden gustukoak ez badira

edozein huskeriagatik su emanda erre eta kiskaltzera zigortuak izan daitezkeen garaietan. Bizirik iraun nahi izanez gero ankerkeriari nola edo hala aurre egin behar zaionez, bistan da, bakoitzak ahal duena egingo du heriotza krudel horri ihes egiteko. Adi ibili beharra izango dute, ordea, zenbait herritar koldar agintari gupidagabeen salata-tilakatu direlako. Sinesmenak eta sineskeriak bat egiten dute egoeraren kontzientzia handiena duen jendearen aurka, eta hain zuzen fede kontu horietaz baliatu behar-ko dira hauek, sinesmenen irautea agintzen duen gizarte antolakuntza hori nolabait irauli ahal izateko.

## ▼ Egileari Galdezka

## "Globalizazioan ere euskal idazleak badu zer esana"



Anjel Lertxundi

## ■ Zein izan da "El huesped de la noche" argitaratzera eramaituen prozesua?

Alberdaniakoak eskaini zidaten "Piztiaren izena" liburua erdaraz jartzeko aukera. Juanjo Jimenezek itzuli zituen han agertzen diren ipuinak eta ipuin horietako bat zabaltzeko aukera ikusi nuen. Haritik tiraka-tiraka hasi eta beno, gaztelaniaz "El huesped de la noche" izena duen liburua osatzea lortu nuen. "Piztiaren izena"ren egokitzapen bat da, haren bertsio bat. Gaztelera-egokitzapen honetan, jatorrizko liburuan zeuden ipuin gehienak errespetatzen dira. Halere, hango glosa literarioak, euskal munduarekin zerikusizuzena zutenak, jakina, ez dira jaso.

## ■ Gero eta idazlan gehiago gaztelera-egokitzen duzu. Zergatik?

Beno, idazle batentzat norabide normala da hori. Azkenean, idazle batek nahi duena bere lana ahalik eta irakurle gehienengana heltzea da, eta hori, euskal idazleentzat eta munduko idazle guztientzat ere, itzulpenen bidez bakarrik lortzen da. Eta horretaz ari garela, hementik pare bat atera Alfaguararekin beste liburu bat kaleratuko dut, "Los días de la cera", alegia, "Argizariaren egunak"en itzulpena.

## ■ Globalizazioak zer eragina izan dezake euskal literaturan?

Hizkuntza bakoitza, munduko handiena baldin bada ere, globalizazioaren edota unibertsaltasunaren aurrean, hizkuntza partikularra da. Ingeles idazle bat edo euskal idazle bat idazle partikularrak dira, unibertsaltasunaren aurrean. Izan ere, unibertsaltasunak ez du esan nahi hizkuntza handien presentzia, hizkuntzen presentzia baizik. Kultura fenomeno plurala da anitza delako. Alde horretatik, euskal idazleak ere mundu horretan zer esana baduela uste dut, beste edozein idazle bezalako zer esana, hain zuzen.

LIBURUAK

**BERLIN  
ALEXANDERPLATZ**

Alfred Döblin  
IBAIZABAL  
506 orrialde  
3.225 pezeta  
169 libera




**DÖBLINEN IDAZLAN NAGUSIA EUSKARATURIK**

Anton Garitanok euskaratu du "Berlin Alexanderplatz", Alfred Döblin idazle alemaniarrek 1929an plazaratu zuen nobela ospetsua. Iragan mendean Europa odolustu zuten bi mundu gerren artean girotua dago eleberria, eta garai hartan Alemaniako hiriburua zen Berlingen kokatua, hain zuzen. Franz Biberkopf behartsuaren istorioa kontatzen zaigu, bereziki, bertan. Igeltsero eta garraio langile izan zen Franz, bere ibilera zoroak espetxera eraman aurretik. Ezagutzen dugun unean, kartzelatik irten berria da, eta handik aurrera zintzo jokatzeko asmo sendoa du, benetan. Baina Infernua ere asmo onez beterik omen dago eta, Döblinek maisuki bezain gordin eta errukirik gabe erakusten digun auzunean hondamendira doan zibilizazio horretan, ez zaio erraza gertatuko Franzi bere zina betetzea.

**RISKI ETA BERE  
LAGUNAK**

Joxemari Iturralde  
ELKARLANEAN  
109 orrialde  
1.130 pezeta  
45 libera



**HAMAR URTETIK AURRERA KOENTZAKO ABENTURAK**

Hauxe da Joxemari Iturraldek gaztetxoei zuzendurik argitaratu duen azken idazlana: "Risky eta bere lagunak". Hamar bat urteko mutikoa dugu Riski. Lagun asko ditu eta bai ikastolan, bai handik kanpo, oso ondo pasatzen dute elkarrekin jolasten eta bihurrikeriak asmatzen... eta egiten. Batzuetan muturtu muturtzen dira ere, baina haserrealdiak ez die gehiegi irauten. Riskiren koadrila mutilez osatua da, ez neskak atsegin ez zaizkielako, haiek inbiltzea kosta egiten zaielako baizik. Riskiri, adibidez, izugarri gustatzen zaio Anuxka deitzen den neskatoa, baina honek ez dio kasu zipitzik egiten eta gure mutikoak ahalik eta egokien egoerari eustea beste erremediorik ez du. Liburu honetan, Riski eta bere lagunei azken aldian gertatu zaizkien abenturen eta koadrilan edo bakarka egin dituzten aldrebeskerien berri izango duzue.

**BAT  
SOZIOLINGUISTIKA  
ALDIZKARIA**

Batzuen artean  
ESI  
95 orrialde  
1.000 pezeta  
40 libera



**BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIAREN 36. ALEA**

Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen erakundeak plazaratzen duen aldizkari honen 36. zenbakian, besteak beste, honako lan hauek aurki ditzakezue: Xabier Iasiren "Hizkuntza gutxitua, bizi iraupena eta normal-kuntza", David Anaut-en "Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzeko dekretua", Olatz Altunaren "Euskal Herri mailako erabile-raren laugarren kale neurketa abian", Pablo Suberbiolaren "Itzultzaile baten ametsa... egunero", Jordi Bañeres-en "Hizkuntza politikako legearen eragina araua oraindik hedatu gabeko eremuetan", Iñigo Urrutia Libaroren "Kronika: Hizkuntz Zuzenbideari buruzko Nazioarteko Kongresua" eta "Enpreseta-ko normalkuntza plangintzak gaur egun" gaia hizpide zutela, Elhuyar, EMUN, Artez eta LKS-ko ordezkarien artean eginiko mahaingurua.



Z E R B I T Z U A

**Beti  
hurbilago.**

Zerbitzu integrala,  
pertsionalizatua,  
hurbila eta  
etengabea.  
Horixe  
da gure  
konpromisoa.

**ZINKUNEGI  
MULTIOPTICAS**  
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a  
Hernani, 4 - DONOSTIA

## LIBURUAK

### SUKIL 3

Batzuen artean  
ORTZADAR  
FOLKLORE TALDEA  
468 orrialde  
3.000 pezeta  
120 libera




### KULTURA TRADIZIONALARI BURUZKO IKERKETAK

Ortzadar Iruñeko euskal folklore taldeak antolatzen dituen Folklore Jardunaldietako azken hiru edizioetan aurkeztu ziren lanez osaturik dator "Sukil 3" hau. Antropologoek, etnografoek, musikologoek, ahozko literaturaren ikertzaileek, folkloristek eta herri kulturaren azertzaileek hartu dute parte aipatu jardunaldi horietan. Ezin dugu beren ekarpen guztien berri eskaini, bistan da, baina argazki interesgarri horniturik agertzen diren hiru atal garrantzitsuenen gaiak aipa genitzake, behintzat: "Janzkera" deritza lehenak, "Ahozko transmisioa"ri eskainia da bigarrena eta "Dantza eta dantza taldeen egungo egoera euskal kulturari" aztertzen du hirugarrenak. Hitzaurre gisa, Kepa Fernandez de Larrinoak aurkeztutako "De la revitalización del folclore, las fiestas y las danzas" lana ageri da.

### ABARASKA

Rufino Iraola  
HIRIA  
121 orrialde  
1.650 pezeta  
66 libera



### RUFINO IRAOLAREN GOGOETAK AFORISMO MODUAN

Zuhur hitza, arau gisa proposatzen den esapide laburra omen da aforismoa, Zibon Sarasolaren hiztegiak dioenez. Abaraska, berriz, erleek, ezta gordetzeko, erlauntzaren barnean argizariz prestatzen dituzten hexagono formako zulo txoen multzoa ei dugu. Eta Rufino Iraola idazle zaldibitarren lan honek badu eztiak, baina eztiaren alboan liztorraren eztenkada ere nabari da inoiz, zeren eztenaz ere egin daiteke argia, sarritan ilunean dirauen euskal erlauntzaren baitan. Fedea, Gailurra, Bakea, Dibortzioa, Natura, Haserre, Erlijioa, Euskara, Biktima, Egia, Betaurrekoak, Historia, Gerra, Gizon xumea, Arinkeria, Laguna, Denbora, Eulia, Erreusa, Esku ximplea, Hurbiltasuna, Abertzalea, Hitza, Iraultza, Aberea, Jakin-mina, Biletea, Erretakoa, Felipe, Ignorantea eta abar luzea ditu hizpide Rufino Iraolak "Abaraska" honetan.

2001 GIDA  
DONOSTIA  
Euskararen Udal  
Patronatua  
DONOSTIAKO  
UDALA  
44 orrialde



### EUSKARAZKO KULTUR ETA AISIALDIRAKO JARDUERAK

Donostiako Euskararen Udal Patronatuak plazaratu berri du "2001 Donostia Gida", non kultura eta aisialdi mailan Gipuzkoako hiriburuan euskaraz aurki daitezkeen jardueren berri zabala eskaintzen den. Gidak emandako informazio guztia euskaraz zein gazteleraz dator. Euskararen erabilera gizarte mailan bermatu nahi luke Donostiako Euskararen Udal Patronatuak, baina horretarako, euskarazko eskolaz gain, kalea, lagunartea, aisialdia eta jendearen eguneroko bizitza inguratzen duen guztia da beharrezko, jakina. Eta hain zuzen ere eskolaz kanpo Donostian dagoen eskaintzaren berri eman nahi du gida honek, eta bertan erakundeek eta elkarteek euskaraz antolatzen dituzten jarduerak eta zerbitzuak biltzen ditu, gazteek, gurasoek, irakasleek eta, oro har, herritar guztiek euskarazko eskaintzaren informazioa eskura dezaten.

## DISKOA

EUSKADI  
GAZTEA MAKETA  
LEHIAKETA  
Lau talde  
EUSKADI GAZTEA  
8 kanta



### EL COLUMPIO ASESINO, HIRA, ANGER ETA OFFSET

Hona hemen Euskadi Gaztea irratia azkenengoz antolatutako izen bereko Maketa Lehiaketan era batera edo bestera irabazle suertatu ziren taldeen lanak entzuteko aukera. Dagoeneko jakingo duzuen bezala, El Columpio ASESINO taldea izan zen Euskadi Gaztea Maketa Lehiaketaren hamargarren edizioako irabazlea. Halere, lehiaketa horretan beti egin ohi den moduan, irratiko entzuleei

ere eman zitzaizkien gustukoak zizutzenak hautatzeko aukera eta Hira, Anger eta Offset taldeak izan ziren aukeratutakoak. CD honetan guztien lanak eskaintzen dira, hau da, El Columpio ASESINO taldearen "Azul" eta "Amarillo", Hiraren "Nortasuna" eta "Begiak Itxita", Angerren "Zure barruan" eta "Zuhaitz lehorra ereiten" eta Offseten "Odol gaua" eta "Bi aldiz".



EUSKAL HERRIKO

# GAZTE ASANBLADEN 1. TOPAKETA

APIRILAK 7 • USURBILEN

egitaraua

10etan:

TOPAGUNEARI ONGI-  
ETORRIA (trikitilariak,  
txalapartariak,  
zanpantzarrak...)

10' terdietan

EUSKAL HERRIKO  
GAZTETXE ETA GAZTE  
ASANBLADEN ARTEKO  
BATZARRAK  
GIDAREN AURKEZPENA

13' terdietan

BAZKARIA

• JATEKOA ZUK JARRI ETA  
GUK EDATEKOA JARRIKO  
DUGU:

... ONDOREN:

PEPI ETA GABI

KONTZERTU AKUSTIKOA

17etan

AZOKA

ALTERNATIBOAREN

IRIKIERA

(gazte asanbladen  
materiala, maketak, KD,  
2. eskuko erropa,  
pegatak...)

17:01etan

HERRI KIROLAK.

TALDEEN ARTEKO HERRI

PROBAK

17:02etan

BIDEO EMANALDIAK.

GAZTETXEEN

HISTORIAREN

INGURUKO BIDEOEN

EMANALDIA

19' terdietan

TRIKI-BERTSO POTEKO

HERRIKOIA

21etan KONTZERTU MUNDIALA

- ODIO

- KI-SAP

(SKA-BALENTZIARRA)

- ARRISKUA

- ASGARTH

- KAOTIKO

- LISABÖ

500 pzta

Sarrera

bertan

laguntzaileak:



ARGIA



**GETXO, martxoak 24**  
**Kontzertua**  
"The Corey Harris Blues Band" taldeak emanaldia eskainiko du. Corey Harris munduko bluesman akustikorik onenatarikoa da. Getxokoa da Euskal Herrian emango duen lehenengo kontzertua. Berekin izango dira Jamal Millner, Victor Brown eta John Gilmore.  
*Getxo antzokia*  
20:00



**MALLABIA, martxoak 23**  
**Diaporama**  
"Turkiatik Birmaniarra bizikletaz Nepalen alde ezkutua" goiburua duen diaporama emanaldia eskainiko du Amaia Elosegik. Korrika Kulturalaren eskutik uruneko herrialdeak eta beste bizimodu batzuk ezagutzeko parada izango dugu.  
*Kultur etxea*  
19:00



**ZARAUZ, apirilaren 1 arte**  
**Erakusketa**  
Lore Agirrek bere margolanak jarri ditu ikusgai. Puzzle baten modura, abstrakzio eta figurazioaren nahasketa eta jokotik abiatu da artista. Kolore zehatz eta indartsuak erabili ditu lana osatzeko.  
*Torre Luzea*



**MIARRITZE, martxoak 24**  
**Ikuskizuna**  
"Bi Harriz Lau Xori" izango da ikusgai Miarritzen. Sorkuntza eta ohiturak bateratuz euskal kultura munduko kulturen bide gurutzera eramango dute Amaia Zubiriak eta Naguila taldeak. Euskaldunon eta juduen kultur ondarea uztartuko dira Miarritzen.  
*Kokisea*  
21:00



**LARRANE, martxoak 25**  
**Maskarada**  
Ihaute giroak bizirik darrai Iparraldean. Horren adierazgarri dira apirilaren lehenengo hamabostaldi arte herri desberdinetan izango diren maskaradak. Asteburu honetan Larrañek hartuko du lekukoa.



**LAUDIO, martxoak 22**  
**Mahaingurua**  
"Mundu bat euskarara bildu, euskal selekzioa mundura" izeneko bideo emanaldia eta mahaingurua izango dira Euskal Selektzioaren aldeko iritzi taldearekin elkarlanean, Korrika Kulturalaren eskutik.  
*Zubiko etxea*  
19:30



**GASTEIZ, martxoak 22**  
**Bertso-partida**  
"Inprobisazio match" berritzaile batean Andoni Egaña eta Jon Enbeitak aurrez aurre izango dituzte Unai Iturriaga eta Jon Maia. Igor Elorza ariko da epaile lanetan. Bertsolaritzaren eskaintza zabalaren lekuko izango da saio berezi hau.  
*Kultur etxea*  
20:00



**BIANA, martxoak 23**  
**Kontzertua**  
Ruper Ordorikak emanaldia eskainiko du. Oñatiarraren ahots eder eta musika goxoaz gozatzeko Nafarroa hegoalderako bidea hartu besterik ez dago ostiralean.  
*Ulteya-Berri elkarte*  
22:30



**BERGARA, martxoak 23**  
**Kontzertua**  
Less Than Jake taldeak bere disko berria, "Borders and boundaries", aurkeztuko du. 1993an sortutako talde honek bosgarren lana du hau. Hardcore punk melodikoa eta ska doinu parrandazaleenek hartuko dute Bergara ostiralean.  
*Jam aretoa*  
22:00



**LARRAINTZAR, martxoak 24**  
**Kontzertua**  
Ulzama aldeko AEK-k eta Esan Erran irratia gaupasa kontzertua antolatu dute astebururako. La Polla, Kamul eta Samsara taldeen doinuek girotuko dute larunbat gaua Larraintzarren.  
*Frontoia*  
00:30

Agendarako deialdiak hogei egun lehenago bidali 37 34 03 faxera

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



*gizarte-ekintza  
obra social*

# Ihesi

Testua eta argazkiak  
Iosu Etxaniz

Euskal Herria ezagutz

Agurainaldea. 35 km · 1 egun Antzinako aztarnen bila

## Naturak eta gizakiek landutako harriak



■ Aguraingo kale nagusian honelako ataldeak ageri dira.

Ibilbide hau Agurain aldean oinarrituko dugu, berez herri interesgarria dena, baina, batez ere, bere monumenturik ederrenak zentrutik kanpo erakusten dituena. Bertatik kilometro gutxitara Sorginetxe eta Egilatzeko trikuharriak eta Leze haitzuloa aurki ditzakegu, eta baita Zalduondoko jauretxeak ere.



■ Belarri itxura duen Leze kobazulo ikusgarria.

ARABAN ZE HAR IBILTZEN BAZARA,

# ASEKO



# ZARA

Naturaz · Artez · Historiaz · Kulturaz  
Aisialdiz · Gastronomiaz...

Alava, a paso a paso.


ALAVA adivina  
ARABA gourc



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava

[www.alava.net](http://www.alava.net)



 **OPAKUA GAINA (1.025 M.) ARBOLATSUA** jaistearan erdian izen bereko herritxoa edo auzoa igaroko dugu, hau da, Oyakua. Kilometro bat beranduago aldiz, gure ezkerrean Arrizabalagako trikuharriraino eramango gaituen bidea hartuko dugu.

Aguraingo auzo edo herritxo hau berriz, beste kilometro bat bete ostean harrapatuko dugu. Arrizabalagan bertan eskuinera joz (trikuharria agertzen duen letreroari jarraikiz) laborantza lurren erditik igarotzen hasiko gara. Handik gutxira bideak ezkerreantzat jotzen du (zuzen bidexka bat hasten da Aguraineraino) eta zuzen-zuzenean Sorginetxe trikuharri ezin ederragora eramango gaitu.

Trikuharrira iritsi aurretik dagoen eta hartu ez dugun lurrezko bidexka horri jarraikiz, oso laster errepide orokor zaharrean aterako gara; hortik, eskubira joanez herrian sartuko gara, errepide orokor modernoaren ondo-ondotik. Azkenik, kilometro erdira eta ezkerrean herriko sarrera harrapatuko dugu, errotonda bat

pasatu ondoren. Agurainen (Salvatierra) bertan sartzen gara. Alde zahar monumentaleko herri interesgarri hau bisitatu ostean, berriz, Mezkia-Egilatz bidea hartuko dugu, azken herriska honetako trikuharria ikusi asmoz, baina erne ibili, zeren hemen inguruan errepide asko dago eta iristea nahaste-borraste handia bihurtu leike.

Aizkomendiko Trikuharri eder-ikusgarria Egilatzetik oso gertu eta errepide orokor zahararen ondoan dago. Txarto seinalizaturik dagoen errepide-multzo honetan burukominik izan nahi ez baduzue, hurrengo helmugara iristeko, llarduia ondoko Lezea haitzulora iristeko, gomendagarriena Agurainera itzuli eta bertan N-1 errepide nagusi berria hartzea da, Donostiarako norabidean.

N-1ean sartu eta 6-7 km. tara jada ezkerrean ikusgai dugu Lezea. Bertaratzeko urrats hauek segitu: N-1eko 389. irteerara ateratu (Egino-Andoin), ezkerrean Eginorantz jo, errepide zaharra zeharkatu, Egino-llarduia-Albeniz seinalea segitu, zubi bat pasatu, Eginon ezkerrean jo (llarduia), honetara iritsi aurretik bigarren eskuineko bidea hartu ("La Leze" jartzen du), eta haitzulo ikusgarriaren aurrean amaituko duzue.


Azkenik, llarduia eta Albeiz igaroz, ibilbidea Zalduondon amaituko dugu. San Adrian Tunela igarota Santiago-ko Bideko geldialdi garrantzitsua, gordetzen dituen eraikin zibil aberatsen artean Birpizkundeko Lazarraga Jauregi-Museo aparta nabarmentzen da, bere aurreko armari, alboetako estatuak eta zutabe jonikoekin. Baita ere, ondoko Larrea eta Andoin-Luzuriaga jauretxeak ikusgarriak dira.



■ Lazarragarren jauretxe-armaria.

Datorren astean ARGIAN...

## ARABAR ERRIOXAn, Biasteri

 *Historia, Monumentuak, Informazio praktikoa...*

*Ihesi* Euskal Herriko Gida Turistikoa



■ *Sorginetxe trikuharria 1831n berragertu zen zientziarako.*

## AGURAIN

**Herrialdea:** Araba  
**Gasteizera:** 25 km.  
**Altitudea:** 600 m.  
**Biztanleak:** 3.867  
**Euskaldunak:** %15

**Azalera:** 38 km<sup>2</sup>  
**Dentsitatea:** 102 bizt./km<sup>2</sup>  
**Jaiak:**  
 San Joan (ekainak 24)  
 Errosarioko Andra Mari (urriak 2)

Arabako lautadaren bihotzean dagoen Agurainaldeak historiaurretik jada populazio nabaria zuen, monumentu megalitiko ugariak erakusten duten moduan. Hiriak Erdi aroko trazarako alde zaharra du, eta hau inguratzen zuten harresiek bertan dira, jauretze askorekin batera.

### IKUSTEKOAK

Santa Maria Eliza gotikoa (XV-XVI mendeak) harresiaren ipar-muturrean kokatzen da, eta beraz, hiriaren defentsa sisteman integratua zegoenez, gotorleku funtzioa ere betetzen zuen. Barruan hiru barneluzego edo nabe ditu, eta erretaula nagusia (urreztatua eta polikromatua), Birpizkundeko kaperak eta zilar-gin-koruak nabarmetzen dira. Kanpoaldean bere ataria, suzko-gotikoa, gailentzen zaigu.

San Juan Parrokiak berriz, elizatari barrokoa erakusten du, dorre erdi gotiko (behealdea) erdi barroko (goialdea) batekin.

### Informazio Praktikoak

#### AGURAIN

**Turismo Bulegoa:** Kale nagusia. ☎ 945- 31 25  
 35 / 608- 90 16 70.

**Udaletxea:** Zapatari. ☎ 945- 30 01 55

**Ertzaintza:** ☎ 945- 31 21 71

#### Kotxe-tailerrak

Izaguirre- Ford- Litutxipi Industrigunea ☎ 31 23  
 70 / 908- 67 30 16.

#### Jatorduan:

Jose Mari- K/ Nagusia 73.  
 Sarayola- K/ Sagarmín I.  
 Merino- San Juan Plaza 3.

#### ZALDUONDO

**Udaletxea:** ☎ 945- 40 60 06.

#### Jatorduan:

Imaz Jatetxea- Arbin auzoa.

Barruan XVII.go erretaula nagusia nabarmen da, flandestar kutsuko margo interresgarriak dituela.

Bi eliza hauen artean (bakoitza alde zaharraren mutur batean) Zapatari, Harategi eta Nagusia kaleetan zehar, jauretze eta jauregi bilduma zabalaz gozatzeko aukera izango dugu. Etxe hauetako askok armari ederrak dituzte. Iparreko "Bentaberri" Gurutzeta, hiriak gordetzen duen mugagurutzerik handiosoena, jabedun lorategi batean dago, San Lazaro Ospitaletik oso gertu. Gurutzearen besoak ederki landuak ditu.

### SORGINETXE TRIKUHARRIA

Arrizabalaga auzoan kokatutako trikuharri hau Euskal Herriko politenetakoa da eta oso ondo zainduta dago. Trikuharria karezko zazpi harrik osatzen dute (batzuk 2,5 metro baino altuagoak). 1831n aurkitu zen (zientziarako), eta 1890an, horietako harri bat mugitzean, hiru hilotzen aztarnak azaldu ziren.

### AIZKOMENDI TRIKUHARRIA

San Millan herriko Egilatz auzoan dagoen 11 harriko monumentu megalitiko hau ere 1830-31an aurkitu zuten, eta aurkuntza honek Arrizabalagakoarekin batera euskal aurrehistoriaren ikerkuntzaren hasiera suposatu zuen.



■ *Aizkomendikoa ere garai beretsuan aurkitu zen.*

### LEZEA

N1etik ikusten den (Iruñerantz ezkerrean) koba hau Asparrengo Ilarduia auzoan dago, eta espeleologiazaleek askotan bisitatzen dute, bere pasabideek mendigune osoa zeharkatzen dute-eta. Besteontzat ere, merezi du bertaratzea, belarri moduko sarrera ikusgarria gertutik behatu, bertatik isurtzen den errekatxoan busti eta kanpoaldeko atsedenekuan denbora igarotzen uzteko bada ere.

*Intsektuen aurkari ekologikoak ohikoak dira Amerikako zenbait lurraldetako negutegietan. Euskal Herrian ere ekoizpen garbien aldeko jarrera indartzen ari da azken boladan.*

## AMERIKAN

**L**andare eta animalia ekoizpen garbien aldekoen alde jotzen dute azken haizeek eta ezer txarrik ez bada haize-orratzak norabide horri begira izatera ematen al dira puska baterako.

Guk geronek ondo geronena dugu haixea eta inguruan eta ingurumenean agintzen duenak hamabost axola. Diruari diogun beldurra nagusi, lurrak ia antzutzeraino pozointzen eta gure barrunbeak estoldatzen jotzen ditugun artean bada mundu honetan gosea mahaikide duten tokirik. Gosearen aurkako borroka bertena dagoen kutxazaina baina urrutiagora begira antolatutako estrategia jasangarrian zutabetzen dute han, batzuk.



*Beauveria bassiana, Metarhizium anisopliae, Verticillium lecanii, Paecilomyces fumosus, Trichoderma berzianum,*

*Trichoderma viridiae, Trichoderma lignorum, Paecilomyces lillacinus eta Azaridachtina indica* dira, zitriko, barazki eta loreak ekoizten dituzten negutegieta-ko hamarretik zortzik darabilzkiten entomopatogeno edo intsektuen aurkari ekologiko batzuk. Haez gain jatorria Indian duen Nim zuhaitzaren, ondoen eta tabakoaren estraktoak ere merkatuan badabil-tza, aliatu fidagarri gisa salduak. Lasai, ez da ez gure merkatuan.

Panorama hemengoaren aldean latza duten lurretan. Non ote da, bada? Non izango da, bada? Non dira gu baino azkarragoak? Amerikan. Kolonbian ●

◆ JAKOBA ERREKONDO  
mandio@zerain.com

## O S A S U N A

*Gertuko objektuak ongi ikusteko, urruntzeko joera hartzen hastea presbizia edo "ikusmen nekatua" ren sintoma izan daiteke. Patologia hau konpontzeko ebakuntza da aukera bat.*

## EBAKUNTZA PRESBIZIARENTZAT

**P**resbizia edo "ikusmen nekatua" oso gauza usua da, behin adin batera (50 urte ingurura) arrimaten hasten garenean.

Zein da presbiziaren sintoma nagusia? Gertuko objektuak (egunkaria, esate baterako) urruntzeko joera, horiek ongi ikusi nahi ditugunean. Eta patologia honen erantzulea kristalinoa da, begiaren barruko lentea hazi eta gogortu egiten delako urteen poderioz. Bere inguruan dagoen muskulu ziliarra ez da gai, uzkur-tzen denean, kristalinoa modifikatu edo aldarazteko eta, beraz, gertutik behar bezala ikusteari uzten diogu.

Eta orain arte soluzio bakarria beturreko edo lentilla multifokalen erabilera zen, urrutitik bezala baita gertutik ere



ikusteko aukera ematen dutelako. Baina, hala ere, badago duela urtebetetik hona beste konponbide bat: Madrileko Unibertsitate Autonomoan Oftalmologiako katedraduna den Miguel Angel Zato dok-toreak martxan jarritako ebakuntza berri

honek zonula esaten zaiona (kristalinoaren eta gorputz ziliarraren arteko loturagunea) teinkatzeko plastikozko mikro-zuntzaxka batzuk ezartzen ditu, eta horrela muskulu ziliarra berriro funtzionatzen hasten da. Aldez aurretik ehun konektiboko geruza bat altxatu beharra dago, ebakuntzaren ondotik bere kasa zurgatzen den loturarekin itxiko dena.

Ebakuntza osoak orubete baino gutxiago irauten du eta anestesia lokalekin egiten da. Pazienteak ez du batere minik sentitzen, erabat kontziente dago. Operazioa segurua da erabat, ebakiak oso txikiak direlako, eta kornea ez delako ukitzen. Egun gutxiren buruan, hurbileko ikusmena berreskuratzen da ●

◆ JABIER AGIRRE



# Denborapasak

Kike Amonarrizen  
Umorea



## ZIGORRA

-Zein da erregea ergeltzat joz gero, erants diezazuketen zigorra?

-!!!

-Hogei urte... estatu sekretuak hedatzeagatik.

## ERAKUSKETAN

Gorkaren lagun margolari batek bere margolan batzuk zintzilikatu ditu, erakusketa kolektibo batean. Gorka berez ez da oso pintura zalea, baina erakusketaren zabalpenean krocketak eta bestelako zizka-mizkak banatzen dituztela entzun duenez, hurbildu egin da herriko Kultur Etxera.

Jende artean galduta dabilela, bere laguna ikusi du:

- Zorionak Josune! Gauza bat esango dizut. Erakusketa honetan ikus daitezkeen margolan bakarrak zureak dira.

- Mila esker Gorka, ez nuen horrelakorik espero zugandik.

# MANIXUTA?

Asteko Lokuzioa

HAIZATU, LEKUAK HUSTU, NAJEL EGIN



Toki batetik alde egin

**Ez zegoen giro eta lekuak hustu genituen**

DARSE EL PIRO, ABRIRSE /  
SE TIRER-FOUTRE LE CAMPS / SPLIT THIS JOINT

ΣΑΡΡΙΑΚ  
BATMAN

-Bai, egia esan... besteen aurrean jende gehiegi baitago!

## LASTER HIRU

Agurtzane, zeharo kitzikatuta sartu da etxera, ia bere onetik aterata:

- Joseba! Joseba!

- Zer gertatzen da ordea, emakumea?


- Laster hiru izango gara etxean!

- Etzazu esan! Hau poza!

Hori entzutean Agurtzaneak asaldaturik:

- Zaude isilik eta irakurri telegrama hau: "Joseba! Bihar iritsiko naiz. Ama!"

## Gurutzegrama



### EZKER ESKUIN


- 1.- 30 eguneko denbora-tarteak.
- 2.- Atabal jolea.
- 3.- Ordaindu. Errepikatuz, ikara.
- 4.- Istu, Mundua, lurra.
- 5.- Artzainak mendira eramaten duen janari-kopurua. Marokoko hiriburua.
- 6.- Berdegunea. Bat. Bokala.
- 7.- Bokala. Bokala. Tona. Sarrera.
- 8.- Garaitu. Bostehun.
- 9.- Merkatuak. Jardun.
- 10.- Pluralean, gerra-tresna. Ogi, hitz elkarketan.

### GOITIK BEHERA

- 1.- Hasierak.
- 2.- Galdera. Barazki ezaguna.
- 3.- Gehiegi. EEBB-etako estatua.
- 4.- Trebeak. Ukapen.
- 5.- Elkartu. Arerio.
- 6.- Prezipitazio-mota. Ikas eta Ari.
- 7.- Herri hizkeran, eta. Baldintzetan. Kanpo, landa. Potasioa.
- 8.- Erditik zatitua.
- 9.- Arabako herria. Bokala. Hizki grekoa.
- 10.- Ekialdeko borroka-mota. Du, niri.


### Ekar bosteko hori!

Ezker-eskuin eta goitik-behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu



1. Gorputz-barrunbe.
2. Fruitu-mota.
3. Bakun.
4. Txori-mota.
5. Beharrak.


### Letra Zopa



Aurki itzazu letra zopa honetan 8 garraio-mota. Hitzak ezker-eskuin, goitik-behera edo diagonalean azalduko zaizkizu

### Aurreko asteko soluzioak

ATAELIFSEDETOIKP  
OKUOARAODOKAHNIA  
KARTNODESABODAEN  
ROKAEANRENEBOAOU  
GAZANPANTZARRAKD  
AOKTRIA TIGRAOFIE  
RPZIU TDZAODENMAR  
RAAMSETRZSATISUA  
ENBALUIOAO KIDEAO  
GOTELOMNOSRKOGEJ



### Gurutzegrama


Ezker-eskuin: 1. Gidaliburu. 2. Ikaraturik. 3. Paterak. Go. 4. Udo. Ukana. 5. Ziri. Ate. 6. Ka. Za. U. DI. 7. O. Bete. Ter. 8. Atabalaria. 9. Katakume. K. 10. Ora. Aranda.

Goitik-behera: 1. Gipuzkoako. 2. Ikasia. Tar. 3. Dator. Bata. 4. Are. Izeba. 5. Laru. Ataka. 6. Itaka. Elur. 7. Bukatu. Ama. 8. Ur. Ne. Tren. 9. Riga. Dei. D. 10. Uko. Biraka.





Hitz Gezidunak

	Pl., landare mota	Ipar., esna	Orri baten alde	Garra	Ahuntzaren arra
	Zokoratua	Poltsa	Bokal errep.	Nazioarteko garraioetan	
	Eskasiak				
	Zuberoako herria				
Atso bihurtua	Gai itsaskorra		Iridioa	Bokala	
Zimikoa	Izena		Ergela	Jainko egiptoarra	
				Kontso. errep.	
				Burdinazko lokarria	
Karraskari-mota			Bizkaian, elkar		
Zuloa			Itxura		
			Verdiren opera		Bokala
			Bokal errep.		Argi, hitz elkarketan
Titanioa	Komuna				
Zareten horiek	Modu atzizkia				Kasik
		Bururatu		Gaixo	
		Nitrogenoa		Fosforoa	
Bizkor			Oinetakoa		

Pertsonaia: Kantari eta olerkari gipuzkoarra

Denborapasak: LUMA • Txistek: KIKE AMONARRIZ • Komikia: MARKO HARMSPACH



# BILINTX

## MEGADENDA

IGANDE ETA JAIEGUNETAN ZABALIK

Fermin kalbeton, 21 • Tel.: 42 00 80 / 42 02 24 • Faxe: 42 23 63 • 20003 DONOSTIA  
 Fermin kalbeton, 30 • Tel: 42 26 96 • 20003 DONOSTIA  
 Republica Argentina, 4 • Tel: 62 68 17 • Faxe: 62 68 17 • 20300 IRUN  
 Arostegieta, z/g. • Tel: 67 35 33 • Faxe: 67 35 00 • 20400 TOLOSA  
 Ibargarai, 12 • Tel: 76 40 50 • Faxe: 76 40 50 • 20570 BERGARA



ELIXABETE GARMENDIA

## IZUAREN GALERA

**P**sikologo sozialek izango dute zer azterturik urte batzuk barru. Baita ideologoek ere. Material ugari ari gara pilatzen egunetik egunera: izuaren erdian nola molda litekeen, bizimodu onarekiko gustoa galdu gabe. Nola sortu litekeen aberastasuna festari ezer kendu gabe, nola familiak hazi eta hezi, eta lagunarteko harreman oparoak izan; nola antzezlanak taularatu, bertsolaritza ikuskizun bihurtu, literatura idatzi, musikaren arlo guztiak landu eta kirola egiteko astia hartu; bazterrak zaindu, Realaren etorkizunaz eztabaidatu eta sagardotegiak lepo bete aste gorrian ere. Hori dena bonba batek goizeko zortzietan lanera doazen gizon anonimo batzuk harrapa ditzakeenean.

**PSIKOLOGO** sozialek aztertuko dute fenomeno eta emango dituzte esplikazioak urte batzuk barru. Orain, berotan, intuizioak somatutako zertzelada hipotetiko batzuk zirriborratzea besterik ezin egin. Inkonzientzia hutsa ote da gurea? Eskizofrenia? Edo gerra garaietan sortzen omen den jarra psikologiko berezi hori, arriskuaren hurbiltasunak eragindako carpe diem zoroa?

Galerak, galera materialak, pezetatan ez ezik, eurotan kontatuko ditugu laister. Saminari, ordea, preziorik jarri ezinik jarraituko dugu. Ondorio batzuk identifikatzearekin konformatu beharko: bizipoza zapuztea, tristura, gorrotoa... Baina bada gainera beste galera mota bat, kopurutara ekarri ezinezkoa izan arren detektatzeko modukoa: sentsibilitate sozialaren galera deituko nioke, izenburu bat jartzearen.

Bi zutabetan bereiziko nuke galera hori, gatazkaren mutur banatatik zintzilik. Batean, uholde modura eskuinetik datorkigun horretan, Madrildik barrena eta Parisekiko konexioekin, izpika eskuratutako ondare demokratikoaren murriztea ari zaigu gertatzen. Talibanak Afganistanen monumentu historikoak suntsitzea nazioarteko eskandalo bihurtzen den bitartean, hemen Europako zibilizazioan harribitxi den hizkuntza hankapean darabilte. Autodeterminazio eskubi-dearen aldarrikapena diskurtso politiko

arruntera pasatu orduko, herejia izugarri bihurtu da. Desobedientzia zibilaren bidea zirriborratzen hasi direnak berriz, gartzelan daude.

Eta parean, hor dago beste zutabea. Biolentziaren erabilera sakralizatzen duena. Erabiltzaileak ukiezintzat dituen. Hau da, kritika izpirik ere ez astakeriarik haundien aurrean; jarrera horren arrazoitzat, onenera jota, etsaiari argudioak ematea dela. Onenera jota diot, izan ere, isiltasunaren azpian sarritan soma bait liteke beste arrazonomendu ximple hori: egin badute, zerbaitegatik izango da. Modu batera edo bestera, kontua da ezikusiarrena egiten zaiola gizatalde zabaletan ETaren jarduerari. Urrutixko dabilen bitartean, odol zipriztinek alkaldora zikitzen ez diguten bitartean... hor nonbait.

Kritika falta horrek, jarrera pasibo horrek gehitxo gogorazten du diktadurapean ezagututako apolitizismo hura. Koldarkeriaren erreinua, fatalismoarena. Utz ditza gun gauzak bere horretan, ezertan nabarmendu gabe, inori behatzik zapaldu gabe, auzoan norbaiti lepoa moztzen ari bazaizkiote ere. Libra gaitezen gu eta gutarrak mutu eta otzan egotearen kontura.

**URTE** batzuk barru, jarriko diote izena sindrome hauetako bakoitzari. Gizarte zientzietako eskuliburuetan ikasgai izango da euskal kasua. Antropologoek ez dute gehiago bilatu beharko herri honetako enigmaren argitzea. Lapiko expressetako metraila zatiekin birrindu omen zen ●

*“Madrildik barrena eta Parisekiko konexioekin, izpika eskuratutako ondare demokratikoaren murriztea ari zaigu gertatzen. Talibanak Afganistanen monumentu historikoak suntsitzea nazioarteko eskandalo bihurtzen den bitartean, hemen Europako zibilizazioan harribitxi den hizkuntza hankapean darabilte”*



Bidalketa gasturik gabe etxean jasoko duzu

EV 014



Godaletak

18700 pta



### Alfa Arte

EV 012



Klip-ontziak

11550 pta

EV 005



5840 pta

Gutunazal-irekitzekoak

EV 009



6355 pta

Papergainekoak



## Brontzezko arte-lanak

Papergainekoak

EV 010



6355 pta

EV 007



10785 pta

Txartel euskarriak


EV 015



7250 pta

Post it azpikoak

EV 017



17250 pta

Gutun euskarriak

### Jon Ander Egaña

Informazio Edo Argibide Gehiago Nahi Baduzu, Deitu Gure Telfonora Edo Ondoko Laukia Bete Ondoan, Bidali Gure Helbidera.

ESKAERA: ERREFERENTZIA \_\_\_\_\_

IZEN-DEITURAK \_\_\_\_\_

KALEA \_\_\_\_\_ ZBKIA \_\_\_\_\_ SOLAIRUA \_\_\_\_\_

HERRIA \_\_\_\_\_ TFNOA \_\_\_\_\_ POSTA KODEA \_\_\_\_\_

HERRIALDEA \_\_\_\_\_ HARPIDETZA ZENBAKIA \_\_\_\_\_



# TXITXARDIN BELTXA

Oria Etorbidea, 12  
☎ 37 03 04  
20160 Lasarte-Oria